

## XEDAPEN OROKORRAK

### INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

## 5570

*358/2013 DEKRETUA, ekainaren 4koa. Honen bidez, Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzen dira Urdaibai eta Gaztelugatxeko Donieneko eremuan dauden Batasunaren Garrantzizko 4 Leku, eta onartu egiten dira KBE horien eta Urdaibaiko itsasadarreko HBBEaren kontserbazio-neurriak.*

Gobernu Kontseiluak 1997ko abenduaren 23an, 2000ko azaroaren 28an eta 2003ko ekainaren 10ean egindako bilkuretan hartutako Erabakien bidez, Hegaztientzako Babes Bereziko 6 Eremu (HBBE) izendatu ziren, eta 52 gune proposatu ziren Batasunaren Garrantzizko Leku (BGL) izateko. Proposamena Europako Batzordera eraman zen, eta han ontzat eman zuten BGLen zerrenda, 2004/813/EE eta 2006/613/EE Erabakien bidez. Erabakiok Atlantikoko eta Mediterraneoko eskualde biogeografikoei dagozkie, hurrenez hurren, eta hortxe kokatzen da gure autonomia-erkidegoa.

Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauaren 4. artikuluan (habitat naturalak eta basoko fauna eta flora babesteari buruzkoa da zuzentaraua) eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 44. eta 45. artikuluetan ezarritakoa betez, autonomia-erkidegoek, jendaurrean jarri aurretik, BGL guztiak Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) deklaratu dituzte, eta beren lurraldeko Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE) ere deklaratu dituzte. Horretaz gain, behar adina kontserbazio-neurri ezarriko dituzte, eremu horietako habitat natural mota eta espezie mota guztien premia ekologikoei erantzuteko. Kontserbazio-neurri horiek izango dira, batetik, kudeaketako planak eta tresnak, eta, bestetik, erregelamenduzko neurriak, administratiboak edo kontratuzkoak. Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen gehienez 6 urte pasa daitezke, Europako Batzordeak lekuen zerrenda onartzen duenetik. Gainera, kontuan izan behar da, 42/2007 Legearen 2.f) artikuluan ezarritakoaren arabera, hiri- eta lurralde-antolaketa-erikiko lehentasuna duela ingurumena babesteak, eta hori arautegi horren printzipio bat dela.

Halaber, Habitat Zuzentarauak eskatutako lehentasunak hiru mailatan finkatu dira: lehendabizi, lehentasuna eman zaio Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeari inolako babes figuraren menpe ez dauden eta presio eta mehatxu handiak jasaten dituzten guneak; bigarren mailan, gune bakoitzaren barruan babesteko dauden objektuen artean funtsezkoak direnak aukeratu dira; eta, hirugarren mailan, kontserbazio-neurri aktiboak lehenetsi dira, garrantziarik handiena emanez premia gehiena dutenei edo objektuen –eta, oro har, gunearen– kontserbazioan hobekuntza nabarmenagoa dakartenei.

Urdaibai eta Gaztelugatxeko Donieneko eremuan, EAeko Red Natura 2000 osatzen duten guneak honako hauek dira: 4 KBE (Gaztelugatxeko Doniene (ES2130005), Urdaibaiko ibai-sarea (ES2130006), Urdaibaiko itsasertzak eta padurak (ES2130007), Urdaibaiko artadi kauntauriarrak (ES2130008) eta HBBE bat (Urdaibaiko itsasadarra; ES0000144). Gune hauetan Europar Batasunaren intereseko habitatak eta espezieak daude, hain zuzen, habitatei buruzko 92/43/EEE Zuzentarauaren I. eta II. eranskinetan jasotakoak, bai eta basoko hegaztien kontserbazioari buruzko 2009/147/EE Zuzentarauaren I. eranskinean jasotako hegazti-espezieak ere. Eremu horiek, gainera, erkidego honetara iritsi ohi diren hegazti migratzaileentzako atsedenleku eta janleku dira. Horregatik eman zitzaien Natura 2000 gune izendapena.

Eremu horretan, ibai-sareak garrantzia handia du Natura 2000 Sarearen koherentziarako, konexio ekologikorako garrantzia handia baitu. Konexio-funtzio hori luzetara betetzen du sare hidrografikoan, bai eta zeharka ere, erriberako basoak eremu horretako harizti eta artadiekin dituzten loturretan, baita alderik menditsuenen eta estuario eta itsasertzaren artean ere. Urdaibai eta Gaztelugatxeko Donieneko eremuko Natura 2000 guneen eta dauden antolamendu-tresnen arteko lotura ekologikoei eremu horiei buruzko dekretu-proiektu komun bati ekitea aholkatzen dute; hain zuzen ere, horien guztien kudeaketa erraztuko duen dekretu-proiektu bat, baliabideak abiarazteko eraginkortasun eta efizientzia handiagoa sustatuko duena.

92/43/EEE Zuzentarauak Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko ezarritako eskakizunak betetze aldera, sakon aztertu dira gune horiek, eta eskala egokian adierazi da Europar Batasunaren intereseko habitaten eta eskualdearen intereseko beste habitat batzuen banaketa. Horretaz gain, Natura 2000 gune horietako fauna- eta flora-espezie bereizgarrien kokapena eta kontserbazio-egoera ere aztertu da.

Xehetasun-lanek aukera eman dute habitat-moten informazio zientifikoa hobetzeko; baina horietan adierazitako azalera-datuetan, zenbaitetan, alde handiak daude Euskal Autonomia Erkidegoak –proposatutako tokien zerrendarekin batera– Europako Batzordera bidalitako eta hari jakinarazitako datuen artean. Hasierako proposamena egiterakoan lanerako erabili zen eskalak eragin ditu desberdintasun horiek.

Xehetasun-azterketak, gainera, zenbait habitati buruzko interpretazioa zuzentzeko aukera eman du. Esate baterako, egiaztatu ahal izan da, toki batzuetan, formularioan adierazitako zenbait habitat-mota ez zeudela; eta, aitzitik, hasierako proposamenean adierazi ez ziren habitat-mota batzuk bazirela.

Kontserbazio Bereziko Eremu izendapenerako prozeduran, ondo bete da nahitaezko parte-hartzearen prozesua, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen printzipioei jarraikiz (lege horrek ingurumenaren alorrean informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen ditu). Prozesu horretan, gizarte- eta ekonomia-interesen ordezkari diren hainbat eragilek hartu dute parte. Gainera, dekretua tramitatzekoan, bete egin da informazio publikoaren nahitaezko tramitea.

Urdaibai eta Gaztelugatxeko Donieneko eremuko 4 KBEen eta HBBEaren kontserbazio-neurriak lantzeko, Europako Batzordearen printzipioei jarraitu zaie, eremu horretan dauden –eta 92/43/EEE eta 79/409/EEE Zuzentaruetan jaso diren– habitat eta taxonen eskakizun ekologikoei erantzun ahal izateko. Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 45. artikuluan ezarritakoaren arabera, 4 KBEak eta HBBEa batzen dituen kudeaketa-tresna bakarra landu da, gune horiek eremu komun batean kokatuta baitaude eta lotura eta jarraitutasun geografikoa baitago euren artean.

Bestalde, kontuan hartu dira honako xedapen hauetan ezarritakoak, horiei gerora egindako aldaketak barne: 5/1989 Legea, uztailaren 6koa, Urdaibai Biosfera Erreserba Babesteko eta Antolatzeko dena; eta 242/1993, abuztuaren 3koa, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilpenerako eta Kudeaketarako Egitamua onartzen duena.

Gaztelugatxeko eremuari dagokionez, kontuan izan da baita ere irailaren 15eko 229/1998 Dekretua, Gaztelugatxe aldea babespeko biotopo deklaritzen duena.

Eusko Jaurlaritzari dagokio kontserbazio-neurriak ezartzea eta izendatzea, honako xedapen hauetan ezarritakoarekin bat etorriz: 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa, 44. artikulua; eta 16/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Herriko Natura Babestekoa, 17. artikulua eta 13.d) artikulua.

Horrenbestez, Euskal Herriko Natura Babesteko 16/1994 Legearen 17. artikuluan eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 44. eta 45.1 artikuluetan ezarritakoa betez, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak –2013ko ekainaren 4an egindako bilkuran– eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Helburua eta lurralde-eremua.

1.– Bizkaiko Lurralde Historikoan, Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzea gunehauek:

– Gaztelugatxeko Doniene / San Jaun de Gaztelugatxe (ES2130005).

– Urdaibaiko ibai-sarea / Red Fluvial de Urdaibai (ES2130006).

– Urdaibaiko itsasertzak eta padurak / Zonas litorales y marismas de Urdaibai (ES2130007).

– Urdaibaiko artadi kantauriarrak / Encinares cantábricos de Urdaibai (ES2130008).

2.– 4 KBE horien eta HBBEaren mugaketa dekretu honen eranskinean dago jasota. Mugaketa hori bat dator Europako Batzordearen 2004/813/EE Erabakiarekin, eskualde biogeografiko atlantikoan dauden Batasunaren Garrantzizko Lekuen zerrenda onartzekoarekin.

3.– Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) horien eta Urdaibaiko itsasadarra / Ría de Urdaibai Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuaren (ES0000144) kontserbazio-neurriak onartzea. Kontserbazio-neurri horiek dekretu honen eranskinean jasotzen dira. Neurrietako batzuen aplikazio-eremuak gainditu egiten du Natura 2000 guneen mugaketa.

4.– Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 17.2 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta alde batera utzi gabe 92/43/EEE Zuzentarauaren 6.3 artikuluan eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko ekainaren 13ko 42/2007 Legearen 45. artikuluan ezarritakoa, Urdaibaiko Biosfera Erreserban dagoen lurralde osoa eremu horretako KBE/HBBEen Babes Eremu Periferikotzat jotzen da.

Gaztelugatxe KBEaren Babes Eremu Periferikoa izango da Gaztelugatxe aldea babespeko biotopo deklaratzeko duen irailaren 15eko 229/1998 Dekretuan ezarritakoa.

2. artikulua.– Xedea.

1.– Arau honen xedea hau da: Kontserbazio Bereziko Eremuetan (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuan (HBBE) bermatzea Europar Batasunaren intereseko habitat naturalak eta basoko fauna- eta flora-espezieen habitatak kontserbazio-egoera onean mantentzen direla edo egoera horretara berriro ekarriko direla. Habitat horiek ezarrita daude Kontseiluak 1992ko maiatzaren 21ean emandako 92/43/EEE Zuzentarauan, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora babesteari buruzkoan. Horretaz gain, arauaren helburua da hegazti-espezieen biziraupena eta ugalketa ziurtatzea dagokion kokaleku-eremuan, eta, bereziki, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak basoko hegaztien kontserbaziori buruz 2009ko azaroaren 30ean emandako 2009/147/EE Zuzentarauaren I. eranskinean adierazitako espezieena, bai eta eranskin horretan adierazi ez diren baina gurera iritsi ohi diren espezie migratzaileena ere. Horren guztiaren azken helburua da ahalegina egitea Europako lurraldean biodibertsitatea kontserbatuko dela bermatzen.

2.– Kontserbazio Bereziko Eremuetan eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuan araubide orokor hau aplikatuko da: 92/43/EEE eta 2009/147/EE Zuzentarauetan ezarritakoa, eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean ezarritakoa.

### 3. artikulua.– Kontserbazio-neurriak.

1.– Dekretu honen xede diren Urdaibai eta Gaztelugatxeko Donieneko 4 KBEentzako eta HBBEarentzako kontserbazio-neurriak honako agiri hauetan zehaztutakoak dira:

a) Diagnostikoaren agiria:

a.1.– Diagnostikoaren eranskinak.

b) Helburuen eta jardueren agiria.

c) Gidalerro eta arauen agiria.

d) Mapak:

d.1.– KBE/HBBEen mugaketa.

d.2.– Batasunaren eta eskualdearen intereseko habitatak.

e) Gehigarria: Europar Batasunaren intereseko habitat- eta espezie-moten kontserbazio-egoe-  
raren segimenduari buruzko fitxak.

2.– Zehaztapan arau-emaileak dira b eta c dokumentuak eta d.1) ataleko guneen mugaketaren  
kartografia, dekretu honen eranskin moduan argitaratzen direnak. Gainerako atalak informatze-  
koak eta orientagarriak dira.

3.– Kontserbazio Bereziko Eremuen eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuaren kon-  
tserbazio-neurriei buruzko dokumentazio osoa interneteko helbide honetan eskura daiteke:  
<http://www.euskadi.net/natura 2000>

4.– Kontserbazio-neurrien berrikusketa edo aldaketa, zeina ez baita funtsezkoa, ingurumenaren  
alorrean eskumena duen sailburuak emango duen agindu baten bidez egingo da, egoerak berak  
edo eskura dauden ezagutza tekniko eta zientifikoek hala egitea eskatzen badute, eta, betiere,  
92/43/EEE Zuzentarauaren 11. eta 17. artikuluetan ezarritakoa betez. Izan ere, helburua baita  
kontserbazio eta kudeaketa moldaeraz, etengabe eta malgu baterantz joatea. Prozedura horre-  
tan, bermatu egin behar da herritarren parte-hartzea eraginkorra izango dela, 26/2007 Legeak  
ezarri bezala; eragindako administrazioei eta erakundeei kontsulta egingo zaie eta Naturzaintza-  
ren txostena jasoko da.

### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta gelditzen da Lurralde Antolamendu eta Ingurumeneko sailburuaren 2004ko aza-  
roaren 18ko Agindua, Urdaibai Biosfera Erreserbaren Artadi Kantauriarren Lurralde Ekintzarako  
Egitamua behin betiko onesten duena.

### AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA.– Baimenak.

Ingurumenaren arloan eskumena duen sailburuari baimena ematen zaio Eusko Jaurlaritzaren  
izenean beharrezkoak diren izapide eta jakinarazpenak egin ditzan, Estatuko Administrazio Oro-  
korraren eta Europar Batasunaren aurrean.

### AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.– Ministeriora bidaltzea.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak Nekazari-  
tza, Elikadura eta Ingurumen Ministeriora bidaliko du dekretu honen onarpena, handik Europako  
Batzordera bidalia izan dadin.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA.– Beste Plan batzuekiko harremana.

Urdaibai eta Gaztelugatxeko Donieneko eremuko KBEen eta HBBearen plangintza eta kudeaketa Urdaibaiko Biosfera Erreserbak eta Gaztelugatxeko Donieneko Babespeko Biotopoak dutenekiko koherentea izan dadin, bi eremu horien plangintza eta kudeaketarako agiriak berrikusi –eta, behar izanez gero– aldatu egingo dira.

AZKEN XEDAPENETATIK LAUGARRENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Busturian, 2013ko ekainaren 4an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,  
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.

## I. ERANSKINA, EKAINAREN 4KO 358/2013 DEKRETUARENA

Urdaibai eta Gaztelugatxeko Donieneko Eremuko Kontserbazio Bereziko Eremuen eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuaren kartografia (ES2130006), (ES2130007), (ES2130008), (ES0000144) eta (ES2130005)

<http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/Urdaibai/Urdaibai.xml&lang=eu>

## II. ERANSKINA. EKAINAREN 4KO 358/2013 DEKRETUARENA

URDAIBAI ETA GAZTELUGATXEKO DONIENEO EREMUKO KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUEN ETA HEGAZTIENTZAKO BABES BEREZIKO EREMUAREN HELBURUAK ETA JARDUERAK (ES2130006), (ES2130007), (ES2130008), (ES0000144) ETA (ES2130005) (\*)

**SARRERA**

Helburu eta neurrien dokumentu hau aplikatuko diren KEB eta HBBEak dauden Urdaibaiko eta Gaztelugatxeko Donieneko eremuak badu lehendik ere ibilbide luze bat biodibertsitatea kontserbatzeko kudeaketan.

Biodibertsitatea kontserbatzeko kudeaketa izan baitira eremu interesgarriak babesteko hartu izan diren aurretiko neurriak. Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren EKPGk hainbat neurri eta arau xedatu zituen, ezinbestean aintzat hartu beharrekoak, eta horien mende aplikatu dira kontserbazioa eragin duten hainbat ekintza: hasi habitatak, taxonak eta intereseko prozesu ekologikoak ikertzearekin eta eremu jakin batzuk kudeatzeko lurralde-ekintzako planak prestatzeraino, hala nola artadi kantauriarrei buruzkoa, eta ingurumenarekin lotutako hezkuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak sustatzeraino.

Bestalde, Gaztelugatxeko Donieneko biotopo babestuaren arau propioek iristeko eta itsaskiak biltzeko mugak ezarri zituzten, bertako itsas hegaztien kolonia handien kontserbazioaren mesedetan. Halaber, hegaztiak sentikortasun berezia duten eremuetan haiek ahalik eta gutxiena gogaitzeko, padura eta artadiak ehiza-babesleku izendatu ziren eta arroaren gainerako azalera ehiza modu antolatuan ustiatzen da, Ehiza Kontrolatuaren bidez.

Zaintzaile eta basozainak hainbat erakundek ipintzen dituzte, basoa, biodibertsitatea nahiz ura eta ibilguak zaintzeko. Hori dela eta, itsas-lehorreko jabari publikoaren mugaketa burutu da azken urteetan, eta abian da hondakin-urak arazteko eskualde-mailako instalazioaren proiektua. Bizkaian, gainera, bada basafauna zaintzeko zentro bat, foru-aldundiak kudeatua.

Inguru honetan dauden Natura 2000 balioen kontserbazioarekin zuzenean lotzen diren zenbait ekintza egin dira, hala nola Laidako hondartzako dunak leheneratzea eta estuarioan landare aloktono inbaditzaileak (bereziki Carolinako txilka, *Baccharis halimifolia*) kontrolatzeko egin diren lan handiak, hemendik aurrera LIFE proiektu batez luzatuko direnak. Flora aloktono inbaditzailea kontrolatzearen ildo beretik, hainbat polder urperatu dira, oso emaitza onekin, biodibertsitatea, hegaztiena batik bat, nabarmen handitu baita.

Urdaibaiko Itsasadarreko HBBEaren barruan eta beste eremu galkorretan (artadi kantauriarretan, esaterako) hegaztiei arriskua eragiten zieten argindar-linea gehienak zuzentzeari ekin zaio (Consultora de Recursos Naturales, S.L., 2007).

Horrez gain, bertako espezie batzuek onartua dute Bizkaian beren kudeaketa-plana: ekaitz txori txikiak, ubarroi mottodunak eta Europako bisoiak, hain zuzen. Azken horren planaren harian Amerikako bisoia kontrolatzeko kanpinak egin dira, bertakoaren kontserbazio-arazo nagusia baita.

Aurrekari horiek labur aztertuta, kudeaketaren ardatza diren gako elementuak kontserbatzeko xedatu diren neurri konkretuak analizatuko dira hurrena.

\* Oharra: KBEei buruzko dokumentazio osoa interneteko helbide honetan kontsultatzea aholkatzen da: <http://www.euskadi.net/natura2000>

Dokumentu honek hartzen dituen espazio guztietarako definitutako gako elementuak lehenago ere azaldu diren hainbat irizpide aplikatzearen definitu dira. Irizpide horietako lehenak, habitat lehenetsiei buruzkoak, ez du ezbairik onartzen: izan ere, Europar Batasunean habitatak kudeatzeko gakotzat hartzen dira dagoeneko elementu horiek. Habitat lehenetsiren bat aktiboki kudeatu beharreko elementuetara bildu ez izanaren arrazoia da aztertutako espazioan oso esangura motza dutela. Gainerako irizpideek, berriz, Sareko beste gune batzuen kasuan ere aintzat hartu izan diren beste ezaugarri batzuk dituzte ardatz, hala nola intereseko taxonak edo habitat bereziak egotea, dela berezko garrantziagatik, dela fauna edo florako taxon jakinen batentzat mesedegarria izateagatik.

Gero, gako elementuak banan-banan garatu dira, bakoitzaren kontserbazio-egoeraren xehetasunak azalduta baldin eta Urdaibaiko eta Gaztelugatxeko Donieneko Natura 2000 espazio batek baino gehiagok hartu badu gako elementutzat.

Hala ere, gako elementu guztientzat hauek definitu dira:

- Gaur egungo kontserbazio egoera.
- Kontserbatzeko helburuak, xedeak eta emaitzak (helburu operatiboak).
- **Neurriak** (2. dokumentu hauxe bera).
- Elementu bakoitzaren zerikusirik duten **Gidalerroak** eta **Arauk** (ikus 3. dokumentua).

**Neurri** horietako batzuk ez dira Natura 2000 sareko eremuetara mugatzen; aitzitik, esparru handiagoa hartzen dute, eta hala adierazi da berariaz:

- Urdaibai: Urdaibaiko Biosferaren Erreserba, alegia (UBE).
- Gaztelugatxeko Doniene: biotopo babestua eta haren inguruko babes-zerrenda.
- Espezie jakin batek Bizkaian edo EAEn duen banaketa-eremua.
- Oka ibaiaren unitate hidrologikoa.

## IDENTIFIKATZEA ETA MUGATZEA

Mugatze hori bat dator Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (HBBE) eta Batasunaren Garrantzizko Leku (BGL) izendatzeko guneen proposamenarekin. Gobernu Kontseiluak 2003ko ekainaren 10ean egindako bilkuran hartutako Erabakiaren bidez, Eusko Jaurlaritzak proposamen hori Europako Batzordera eraman zuen ontzat hartzeko. Onespen hori 2004/813/EEren bidez gauzatu zen; hori Atlantikoko eskualde biogeografikoei dagokie, eta bertan daude Urdaibai eta Gaztelugatxeko Doniene.

Eremu mota	Natura 2000 kodea	Izena	Azalera (ha)	% a/guztira HBBE/KBE
HBBE	ES0000144	Urdaibaiko itsasadarra	3242,3	% 100,0
KBE	ES2130005	Gaztelugatxeko Doniene	157,8	% 3,9
	ES2130006	Urdaibaiko ibai-sarea	1.327,8	% 32,6
	ES2130007	Urdaibaiko itsasbazterrak eta padurak	1.009,6	% 24,8
	ES2130008	Urdaibaiko artadi kantauriarrak	1.582,8	% 38,8
			4.077,9	

Taula 1.- Natura 2000 eremukako azalera. Eremu bakoitzak eremu mota bakoitzaren (HBBE edo KBE) azalera osoan hartzen duen % adierazten da.

Kontserbazio Bereziko Eremuek (KBE) eta, Urdaibaiko eta Gaztelugatxeko Donieneko Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuek 23 udalerriri dagokien lurraldea hartzen dute, 2. taulari jarraiki. Udalerrri horiek eremu horien eragin sozioekonomikoaren area osatzen dute, Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 22. artikuluekin bat.



Izena	HBBE Urdaibaiko itsasadarra (ha)	KBE Gaztelugatxeko Doniene (ha)	KBE Urdaibaiko ibai-sarea (ha)	KBE Itsasbazterrak eta padurak (ha)	KBE Artadi kantau- riarrak (ha)	Guztira KBE (ha)	Udale- rriaren %
Amorebieta-Etxano			14,0			14,0	% 0,2
Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz			21,4			21,4	% 0,9
Arrieta			8,9			8,9	% 0,6
Bakio	21,9	9,8				9,8	% 1,3
Bermeo	292,3	17,1	173,6	15,7		206,3	% 13,7
Busturia	218,8		172,9	115,7	90,6	379,2	% 24,4
Elantxobe	93,7			11,9	85,0	96,9	% 51,4
Ereño			3,2		148,9	152,1	% 14,4
Gauegiz Arteaga	369,0		11,1	195,9	523,2	730,2	% 66,2
Gernika-Lumo	24,0		39,9	12,0		51,9	% 7,5
Ibarrangelu	78,8		54,6	40,6	372,6	467,8	% 35,6
Mendata			225,7			225,7	% 9,9
Morga			0,1			0,1	% 0,0
Muxika			293,1			293,1	% 5,9
Mundaka	34,4		33,4	3,6		37,0	% 17,0
Sukarrieta	23,8		16,6	11,5		28,1	% 26,2
Errigoiti			41,0			41,0	% 2,5
Forua	153,5		31,8	66,0	86,4	184,3	% 35,6
Kortezubi	223,8		44,1	92,9	112,7	249,6	% 32,1
Murueta	267,6			157,9	101,8	259,6	% 69,3
Nabarniz			13,3		61,5	74,8	% 6,5
Ajangiz			42,2			42,2	% 5,9
Arratzu	14,6		86,8	13,3		100,1	% 10,1

2. taula.- Natura 2000 eremuen azalera-banaketa, udalerrri bakoitzeko.

## HABITATAK

### GE 1.- Estuarioa

EB mailako intereseko habitata (1130).

Hondarrezko mareaz azpiko hondoak barne (1110 kodea)

#### Egungo egoera

Gaur egun izen bereko multzo geomorfologikoaren zati murriz bat besterik ez dute okupatzen estuarioek. Gure definizioaren arabera, erabateko trantsizioko uren esparrura mugatuko litzateke estuarioa, non sedimentazio-patroia mistoa baita, erdia flubiala, erdia itsasokoa. Hala adostuta, estuario kontzeptuaren barruan lohi eta hondarrezko hondoak gehi horiek itsaso aldera duten jarraipena (1110 habitata) hartu dira; alegia, zeharo hondartsuak diren hondoak, itsas sedimentazio-dinamikaren eraginpean daudenak, barne.

Horregatik hartu dira biak batera; haatik, kontserbazio-egoera kaskarra dela eta, berezko estuarioa sartu da aktiboki kudeatu beharreko habitaten artera.

Ezaugarri bereizgarriari erreparatuta, gogora ekarri behar dugu funtsezko bi elementuk osatzen dutela estuarioa: marea-lamina nahaslea eta harekin lotutako hondar eta lohizko hondoak. Gaur egungo azalera konstantetzat har bagenezake ere, eta parametro normaltzat hartu, ez dago ahazterik haren ondoko beste formazio batzuek azalera galdu izanak estuarioaren funtzionaltasun primarioaren galera eragin duela, ez zuzenean azalera urrituta, baizik eta okupatzen duen unitate geomorfologikoaren hustubide eta kargabide moduko funtzioa urratuta. Hala, funtzio hori kolokan jarri du estuarioaren erdialdean egindako kanalizazioak eragiten duen presioak.

Bestela esanda: jatorrizko estuarioan urak hartzen zituen eremu asko lehortu izanak gaur egun bestelako habitat moduan sailkatzea eragin du; haatik, aldaketa hidrodinamikoak eginda nahiz ez, estuario osoaren azalera ez da aldatu, oro har. Beraz, albo-eremu horien azalera galdu izanak ez dio eragiten habitatak okupatzen duen azalerari, baizik eta haren funtzionaltasunari, zeren uraren erregimena zeharo aldatzen baita aldaketa hidrodinamikoak eginda (itxiturak, bazterketak...). Ur-xaflaren hidrodinamikaren aldaketan (abiadura bizkortzea da, batik bat, ondorioa) eta, horren ondorioz, hondoen higadura-sedimentazio kondizioen aldaketan ere bai, antzematen zaio aldaketa estuarioari.

Bestalde, sedimentuan bizi diren ornogabeentzako habitat-erreserba moduan duen eginkizuna ere jarri da kolokan; funtzio hori egiturari lotuta dago neurri batean, eta horregatik aldi behin egiten diren hondoko sedimentu-erazketek (dragaketek) ere eragiten diote hari, ur-xaflaren dinamika zinetiko (ibilbidea eta abiadura, funtsean) nabarmen aldarazi ez ezik.

Etorkizunerako ikuspegia, oro har, ontzat jotzen badugu ere –zenbait elementu adierazgarriengatik, hala nola arauen bideko babesagatik eta arroaren saneamendu integralaren planak eragingo duen uraren kalitatearen hobekuntzagatik–, ezin dugu aipatu gabe utzi aldi behingo dragaketek ikuspegi orokor horri ñabardura bat eginarazten digutela. Begi-bistakoa da bi dragaketaren artean sistemak egokitu behar izaten duela eta oreka dinamiko berriak erdiesteko eboluzionatu; hori dela eta matizatu behar dugu balorazio orokor hori.

Estuarioa - 1130			
<i>Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa</i>		Desegokia	
<b>Azalera</b>	<b>Egitura</b>	<b>Funtzioak</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Aldekoa	Aldekoa	Desegokiak	Aldekoa
Une oro itsasoko urez (sakonera txikikoa) estalita dauden hondar bankuak 1110			
<i>Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa</i>		Aldekoa	
<b>Azalera</b>	<b>Egitura</b>	<b>Funtzioak</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Aldekoa	Aldekoa	Aldekoa	Aldekoa

### Baldintzagarriak

Lehen baldintzagarria da habitat honi egiten zaizkion zuzeneko ekintzek gaktzat hartutako beste sistema batzuei eragin liezaieketela; esaterako, munak zabaltzeak estuarioaren hidrodinamikari eragiten dio (gazitasun-kondizioei), baina lezkadietako komunitate helofitiko azpibalofiloiei ere bai. Beste baldintzagarri bat da dragatuei lotutako jarduera produktiboak zuzenean eragiten diola inguru sozioekonomikoari.

Idatzita dago dagoeneko, Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitateko zuzendaritzak enkargatuta, Oka ibaiaren goi-estuarioa erabat leheneratzeko proiektu bat, Natura 2000 sareko hainbat gako elementuren kontserbazio-egoera hobetzeko neurri egokiak bildu dituena.

### Helburuak eta neurriak

<b>X.1 xedea</b>	<b>Gaur egungo egitura eta funtzioa kontserbatzea eta ahal den neurrian hobetzea, sistemak pairatzen dituen presioei eraginda.</b>
<b>E.1.1 emaitza</b>	<b>«Estuario» habitatak okupatzen duen kanalaren ezaugarri hidraulikoak eta uraren kalitatea hobetu dira, eta estuarioa erabat leheneratzea sustatu da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<b>N.1.1.1.</b> Habitat honek hartzen duen azalera leheneratzea eta estuarioa naturaliza dadin laguntzea. Halaber dira aplikagarriak Gidalerro eta Arau hauek <b>G.2.1, G.2.2, G.2.3, G.2.4, G.2.7 eta A.2.2.</b>

**GE 2.- Itsasoko urak une oro estaltzen ez dituen hondar- eta lohi-bankuak**

EB mailako intereseko habitata (1140)

Egungo egoera			
<p>KEBaren barruan, marearteko eremu hondar-lohitsuaren azalera eta egitura egokiak dira. Funtzioak ez daude zeharo xehatuta, eta, oro har, zenbait xehetasun desitxuratu samar geratzen dira, hala nola haren egitura taxutzen duten kate trofikoaren jarduna, elikagaien fluxua, ziklo biogeokimikoak eta poluigarrien hondoko presentzia.</p> <p>Etorkizunerako aurreikuspena egokia da, eta segurutzat jo liteke, habitat hau eremu babestuaren, Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren, erdian dagoenez.</p>			
Itsasoko urak une oro estaltzen ez dituen hondar- eta lohi-bankuak - 1140			
<i>Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa</i>		<b>Aldekoa</b>	
<b>Azalera</b>	<b>Egitura</b>	<b>Funtzioak</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Ezezaguna</b>	<b>Aldekoa</b>
Baldintzagarriak			
<p>Hiru kontu ukitzen dituzte batik bat. Alde batetik, badira poluzio diferituko iturriak habitateko sedimentuetan metaketa eragiten dutenak. Bestetik, inguruaren erabilera produktiboak, modua eta intentsitatea nolakoak, halako distortsioak eragin diezazkioke habitataren egiturari. Azkenik, eremu hurkoen (estuarioko ubideenak, alegia) erabilera publikoak eragiten dituen zeharkako eraginak sistema bera eta haren berezko komunitateren bat kaltetu litzake, hala nola <i>Zostera noltii</i> itsas belarra; edota hegazti migratzaileei, hala nola <i>Platalea leucorodia</i> mokozabalari, eragotzi. Taxon horien kudeaketa ere gako elementutzat hartu da.</p>			
Helburuak eta neurriak			
<b>X.2 xedea</b>	<p><b>Sistemaren beharrezko egonkortasuna atxikitzea bertan bizi diren taxon nagusientzako biotopo moduan bideragarri iraungo duela bermatzearren, eta aldi berean habitataren berezko komunitateentzako kondizio ekologikoak hobetzea. Erreferentziako taxonek (mokozabalak, esaterako) eta horien jardunari eusten dioten beste batzuek ere ingurua erabiltzeko kondiziorik onenak izango dituztela bermatzeko moduko egonkortasun-maila lortu nahi da.</b></p>		
<b>E.2.1 emaitza</b>	<p><b>Habitataren osotasuna hobetzea da helburua, fauna eta flora interesgarriarentzako baliabide moduan.</b></p>		
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p>Gidalerro eta Arau hauek dira aplikagarriak: <b>G.9.2.</b> eta <b>A.5.3</b></p>		

**GE 3.- Itsasertzeko urmaelak**

EB mailako intereseko habitata (1150) (lehenetsia).

Egungo egoera
<p>Nahiko berezia da 1150 habitata Urdaibain, orain duen egitura edukita. Egiatan, habitat-hasikina besterik ez da, garatzeko berariaz egindako giza esku-hartzen baten ondorioz sortua.</p>

Estuarioaren hidrodinamika orokorrak pairatzen dituen murriztapen batzuei lotuta dago (marearen ekarpenen eta sakoneraren erregulazioa; urmaelaren zati bat geza da erabat eta bestea berriz, gazikara izatea...). Gaur egun barne-eboluzioa pairatzen ari da, oro har funtzionatzeko diseinatu diren kondizio hidraulikoen mende. Hala, ez dago elementu hau urria den beste toki batzuetako sistema naturalekin konparatzerik, Kantauriko itsasertzean bederen.

Arteagan, Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBea, dagoen itsasertzeko urmael baten «hasikin» hori, beraz, sortuberria da, eta hura GE moduan sortu izanaren justifikazioa da, funtsean, azkenean erdietsi nahi den egoera ekologikoranzko bidean egiten diren hobekuntza-jarduerei jarraitu beharra.

Okupatutako eremua ez dago inola kalifikatzerik, zeren, sortuberria izanik, ez dago konparatzeko moduko patroirik. Azalera ontzat jo dugu, habitata garatzearen, eta ez beste ezergatik, erabaki baita.

Gaur egungo egitura lausoa da, hasiberria; barne-bilakaera, beraz, oso motza da eta oraindik ez du sortu egonkortasuna emango dion komunitate heldurik. Funtzioak, beraz, ez dira ekosistema heldu bati dagozkionak; hartara ezin dira baloratu sistemaren alterazio gisa, baizik eta berezko eboluzio naturalaren urrats moduan.

Etorkizuneko aurreikuspenak ez dira, antza, oztopo, zeren sistemara bertara zuzendutako proiektu jakin bat egoteak ziurtatu egiten baitu etorkizuneko kondizioak gutxienez egonkorrak izango direla.

Itsasertzeko urmaelak - 1150 (*)			
Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa		Desegokia	
Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikuspenak
Aldekoa	Desegokia	Ezezaguna	Aldekoa

### Baldintzagarriak

Sistemaren hasierako kondizio hidraulikoak ez daudenez erabat akoplatuta sistema aurreikusi eta maneiatu bati (non ureztatze-kota, ureztatze-denbora, urtean zehar izango den gazitasuna, zenbat ur kontinental -geza- deskargatuko den eta, aldeztatik jakin edo estimatu baitaitezke), ez dago *a priori* zehatz jakiterik norantz doan zehazki habitataren eboluzioa eta, hala, urmaelaren bitarteko egoerak zein izango diren, komunitateen banaketari dagokienez. Funtzioak habitataren barne-eboluzioaren baitakoak izango dira; beraz, azken emaitza eraikitze-fasean diseinatutako parametro hidraulikoekin bat etorriko da. Nolanahi ere, gaur egungo kudeaketa malgua da; hegaztientzako eta, oro har, biodibertsitatearentzako egoera optimoa lortzea du helburu.

### Helburuak eta neurriak

<b>X.3 xedea</b>	<b>Itsasertzeko aintzira funtzional bati dagokion heldutasun-gradura iristea, bere baitan komunitateak behar bezala graduatuta dauzkala, animaliak zein landareak.</b>
<b>E.3.1 emaitza</b>	<b>Aintziraren heldutasuneranzko bilakaera sendotu egingo da, habitat lehenetsiaren mesedetan</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>N.3.1.1.</b> Aintzirako landare- eta bentos-komunitateen bilakaera berariaz monitorizatzea.</p> <p><b>N.3.1.2.</b> Intereseko taxonek -hegaztiekin bat- lurraldeari ematen dioten erabileraren bilakaera berariaz monitorizatzea.</p> <p>Ikus halaber landare aloktonoak kontrolatzeko neurriak, bereziki <b>NA.1-17.1.1</b> neurria.</p>

**GE 4.- Atlantiko eta Baltikoko kostaldeetako itsaslabarrak**

EB mailako intereseko habitata (1230)

Egungo egoera			
KEBen barruan, gaur egun, labarretako landareetak ez du aparteko eraldaketarik erakusten, ez behintzat bereziki negatiboa jo litekeen eraldaketarik.			
Habitatak ohiko azalera hartzen du, eta haren banaketa, biotopoaren ezaugarri fisikoen ondorioz, ez-jarraitua eta heterogeneoa da.			
Egitura eta funtzioa ohikoak dira, eta ez dago gaur egun aparteko eraldaketa eragiten duen elementurik. Biotopoaren osotasun fisikoa ez baita auzitan jarri, ez da sistemaren gaineko aparteko mehatxurik hautematen, eta etorkizunerako aurreikuspenak, aintzat hartuta biotopo babestu baten barruan gaudela, esan liteke egonkorrak eta, hortaz, arrazoiz positiboak direla.			
Itsaslabarrak - 1230			
<i>Gaztelugatxeko Donieneko KEBa</i>		Aldekoa	
Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikuspenak
Aldekoa	Aldekoa	Aldekoa	Aldekoa
<i>Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa</i>		Aldekoa	
Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikuspenak
Aldekoa	Aldekoa	Aldekoa	Aldekoa
Baldintzagarriak			
Baldintzagarriak, kasu honetan, ez datoz habitatetik bertatik, baizik eta inguruaren osotasun fisikotik. Labarren kasuan, hormen esposizio-maila, kontinentekoak nahiz uharteetakoak, faktore mugatzailea da zalantzarik gabe. Labar baten osotasun fisikoa maldaren eta itsasoarekiko esposizioaren mende dago.			
Helburuak eta neurriak			
X.4 xedea	<b>Sistemaren beharrezko egonkortasuna atxikitzea bertan bizi diren taxon nagusientzako (hala nola ekaitz-txori txikia, ugarroi motto-duna, belatz handia, <i>Lavatera arborea</i> eta <i>Armeria euscadiensis</i>) biotopo moduan bideragarri iraungo duela bermatzearen. Esandako erreferentziako taxonek eta horiek jardunari eusten dioten beste batzuek ere ingurua erabiltzeko kondiziorik onenak izango dituztela bermatzeko moduko egonkortasun-maila lortu nahi da.</b>		
E.4.1 emaitza	<b>Habitataren osotasuna hobetzea da helburua, fauna interesgarriarentzako baliabide moduan.</b>		
Gidalerroak, Arauak eta Neurriak	<b>N.4.1.1.</b> Izaron duen kontserbazio-egoera analizatzea eta hark jasan litza-keen kalteak leuntzeko neurriak ezartzea.  Ikus halaber fauna eta florako GE interesgarrietarako neurriak.		

**GE 5.- Kostaldeko duna finkoak, belarki-landarediarekin (duna grisak)**

EB mailako intereseko habitata (2130) (lehenetsia).

Egungo egoera
2130 habitataren jatorria berezia da, estuarioan egindako dragaketen hondarren gainean sortua baita. Jatorria gora-behera, baina, interbentzio horietan eratu diren komunitateek oso naturaltasun-maila altura iritsi dira, nahiz eta zenbait defizit baduten, bereziki landare aloktonoek eragindakoak.

Testuinguru horretan, azpisistema bat –hala nola duna tertziarioaren ertzetik gertu dagoen duna barruko sakonune hezea esaten zaiona– agertzeak sistema nagusia aberastu egiten du; beraz, habitat lehenetsiarekin batera tratatuko dugu hemen.

Hartzen duen azalera egokia da, ez baita espero izateko modukoa hain handia izatea inguratzen duen estuario-sisteman. Beraz, horrek ez du hobetu behar nabarmenik.

Egitura desegokia da, gaur egungo egoera heldutasunetik urrun baitago eta ez baitago sistema gazteen eta eboluzionatuagoen arteko graduaziorik. Horren ondorioz, komunitateen sorta oso murrizta da. Ezarzte-fasean eta espazioagatik lehian dauden.

Funtzioak ezezagun moduan aipatu dira, bertako duna tertziarioak ez baitio jarraitzen ohiko hondartzaduna gradienteari, padura eta kontinentearen artean baitago kokatuta. Dunaren eta paduraren arteko trantsizio horrek para interesgarria eskaintzen du intereseko zenbait landare-taxon agertzeko.

Aurreikuspenak ontzat jo dira, gaur egun babes-maila nabarmena baitute toki hauek. Nolanahi ere, dragatuak erazutako hondarren bidezko betelanez ahalbidetu duten habitat lehenetsi hau egoteak ez du berekin ekarri behar halako lanak berriz ere egitea; aitzitik, sistema egungo parametroetan egonkortzea izan behar du helburua, berez eboluzionatu dezan eta berez heldu dadin. Egitura nabarmen hobetuko da horrela eta sistema sortu den inguru naturalean dituen funtzioak definitu egingo dira.

<b>Kostaldekoko duna finkoak, belarki-landarediarekin (duna grisak) - 2130 (*)</b>			
<i>Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa</i>		<b>Desegokia</b>	
<b>Azalera</b>	<b>Egitura</b>	<b>Funtzioak</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	<b>Desegokia</b>	Ezezaguna	<b>Aldekoak</b>

### Baldintzagarriak

Duna tertziarioak hartzen dituen espazioetako batzuetara (San Kristobala, esaterako) kontrolik gabe sar daiteke jendea; ezarri diren komunitateen galkortasuna handia izanik, arriskuan ipin liteke horrela populazioen estaldurari dagokion egitura.

Duna-eremu hauen jatorriak auzitan jar lezake habitat hauek kontserbatu beharra. Aintzat hartu behar da ezen, jatorria antropikoa izanik (betelana) eta estuarioaren osotasun ekologiko eta dinamiko atxiki beharra hor egonik, inoiz beharrezkoa edo komenigarria suerta litekeela helburu horiekin batago etor litezkeen beste habitat-mota batzuetara eboluzionatzen laguntzea.

Habitat honek orain okupatzen duen testuinguru ekologikoan zer funtzio dituen ez da zehatz jakiten.

### Helburuak eta neurriak

<b>X.5 xedea</b>	<b>Heldutasun-egoera bat erdiestea, non taxon aloktonokoen komunitateek ez duten lehiarik ekarriko. Hari lotutako azpisistema minoritarioen egoera kontserbatzea.</b>
<b>E.5.1 emaitza</b>	<b>Duna tertziarioaren heldutasuneranzko bilakaera sendotu egingo da, habitat lehenetsi gisa.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<b>N.5.1.1.</b> Habitat mota honetako landare-komunitateen bilakaera berariaz monitorizatzea eta ikertzea, estuarioaren dinamika osorik eta ondo atxikitzeko beharrezko testuinguru orokorrean.  Halaber da aplikagarria Gidalerro hau: <b>G.9.5.</b>
<b>E.5.2 emaitza</b>	<b>Duna flora aloktono inbaditzailez garbi atxikiko da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	Ikus zer neurri proposatu diren taxon aloktonoak kontrolatzeko.

**GE 6.- Lezkadiak**

Eskualde mailako intereseko habitata (EUNIS C3.1, C3.21, D5.11, A2.53C)

Egungo egoera			
<p>Habitat hau ageri den KEBetan, lezkadiaren fazies ugarietan hari lotuta ageri den landaretza helofitikoak hainbat eraldaketa nabarmen ageri ditu, bereziki taxon inbaditzaileen presentzia beren egituran eta formazioaren erdian hainbat jatorritako hondakinak (organikoak eta hiri-hondakin solidoak) egotea.</p> <p>Hartzen duen azalerari, berriz, oso egoki iritzi zaio, neurri handi batean estuarioak jasan izan dituen presio handien harira garatu baita: bideraketak, padura-lehorketak eta polderrak erabiltzeari uztea...) Ibai-sarearen kasuan, haien behe-ibilguan garatzen dira batez ere lezkadiak, hainbeste ez garatuagatik ere oso naturaltasun-gardu eta interes ekologiko handiko populazioak eratzen dituztelarik hor.</p> <p>Egiturak eta funtzioak, biak ala biak pairatzen dute eragin negatiboa, zeren bai han-hemenka haiekin lehiatzen diren taxon inbaditzaileek, bai halako eremu jakinetan pilatzen diren hondakinek, ekosistema natural moduan dituzten kondizioak eraldatzen baitituzte. Hori bi KEBetako komunitateetan gertatzen da.</p> <p>Egin beharreko kudeaketaren baitan egongo dira etorkizunerako aurreikuspenak, hala ere, pentsatzekoa da naturagune babestuen barruan egotea nolabaiteko bermea dela; gaur egunean ere, izan ere, halako espazioetan daude lezkadiak eta haien egoera ez dago aldekoa denik esaterik. Nolanahi ere, intereseko zenbait hegazti-espezierentzako habitat izateko gaitasuna dela eta, sistema hauek kontserbatzeko eta hobetzeko moduko guneztat hartu behar dira (gogora dezagun gaur egungo egoera desegokia dela).</p>			
Lezkadiak (azpimota guztietakoak)			
<i>Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa</i>		<b>Txarra</b>	
Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikuspenak
<b>Favorable</b>	<b>Txarra</b>	<b>Desegokiak</b>	<b>Desegokiak</b>
<i>ZEC Red fluvial de Urdaibai</i>		<b>Txarra</b>	
Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikuspenak
<b>Aldekoa</b>	<b>Txarra</b>	<b>Desegokiak</b>	<b>Desegokiak</b>
Baldintzagarriak			
<p>Lezkadiak estuarioaren ertzetan hartzen duten posizioak eragindakoak dira baldintzagarriak; kontinenteko formazioekiko trantsizio betean eta, hortaz, gizakiak egiten dituen jarduera intentsiboekiko mugan, esaterako, inguruko larretan egiten den nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenekiko mugan. Orobat dira marjinalak lezkadiak ibaietik. Halaber, lehen esandako gaur egungo presioek eragindako baldintzagarriak ere egungo funtzioak mugatuta atxiki ditu; haatik, kudeaketa aktiboa hobekuntzak izateko nolabaiteko bermez beren gain fokalizatzeko bezain zehatzak eta konkretuak dira.</p>			
Helburuak eta neurriak			
<b>X.6 xedea</b>	<p><b>Oraingo egitura- eta funtzio-kondizioak hobetzea, hartara zoko ekologiko moduko haren kanpo-funtzioak sistema hauek erabiltzen dituzten espezieentzat mesedegarriak gerta daitezten. Esandako erreferentziako taxonek, florakoek nahiz faunakoek, ingurua gehiago erabiliko dutela bermatzeko moduko kondizio ekologikorik onenak izatea lortu nahi da.</b></p>		
<b>E.6.1 emaitza</b>	<p><b>Nabarmen murriztu da landare aloktono inbaditzaileek eragindako presioa.</b></p>		
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p>Aplikagarriak dira taxon aloktonoak kontrolatzeko neurriak.</p>		

<b>E.6.2 emaitza</b>	<b>Nabarmen murriztu da ekologikoki garrantzitsuenak diren lezkadietan hondakinak egoteak eragindako presioa.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>N.6.2.1.</b> Estuarioko, haren inguruko eta ibai-bazterreko lezkadi nagusietan (ur gezatako azpimota lehorrean eta helofitikoan) hondakin-pilatzeak gehien eragindako eremuak ebaluatzea.</p> <p><b>N.6.2.2.</b> Estuarioko eta estuario-buru nagusietako lezkadi handietan hondakinak kentzeko kanpainak egitea.</p> <p>Gidalerro eta Arau hauek dira aplikagarriak: <b>G.9.1</b> eta <b>A.2.1.</b></p>

### GE 7.– *Erica vagans* duten kostaldeko txilardi lehor atlantikoak

EB mailako intereseko habitata (4040) (lehenetsia).

Kostaldekoko txilardi lehorrak; txilardi lehorrak oro har (4030 ere bilduta)

Egungo egoera
<p><i>Erica vagans</i>en faziesaren banaketa bakarrik aintzat hartuta, 4040 habitata nahiko ubikuotzat jo liteke eskualde mailan eta eskualde biogeografiko atlantikoaren estatu barruko eremuan, nahiz eta Europa mailan nahiko murrizta izan. Oso hedatuta dago Kantauri itsasoko kostaldean, eta Galizia inguruan bakarrik falta da.</p> <p>Adierazgarritasuna kontuan izan da, gako elementutzat jo da Donienen, eta han hektarea erdian zabal-tzen da itsasertz beteko eremuan, labar bertikaletako landaretzaren eta ondoko zerrenda kontinentaleko landaretzaren arteko trantsizio-eremuan. Kasu gehienetan mosaiko-banaketa dauka, beste formazio batzuekin tartekatuta, inoiz zurkarekin, inoiz belarkarekin. Iratzeekin tartekatuta ere bai. <i>Erica vagans</i> habitata definitzeko ezinbesteko baldintza izanagatik ere, ez da masa handitan agertzen, eta labarraren ertzetik hasi eta barru alderantz metro eskasetan baizik ez da ageri. Hortik barrurago bakandu egiten da eta haren banaketa saretu egiten da; izaera kontinentalagoa duten formazioetan agertu arren beste espezieen mende bizi da eta una jakin batean desagertu egiten da. Dena dela, zaila da habitat honen eta 4030 txilardi lehorraren arteko bereizketa zorrotz egitea.</p> <p>Itsasertzeko txilardi lehorrak hartzen duen azalerari desegoki iritzi zaio, zeren definizio horretara bil genitzakeen populazioak oso bakanduak baitira, txilardi ez diren beste formazioek infiltratuak, maiz. Bestalde, jendeak bertan paseatzean ireki dituen bidezidorrek unitatea are gehiago zatikatzen badute ere, zidorrak berak komunitatearen azalera efektiboa handitzeko eta haren funtzioa hobetzeko baliabide bat izan litezke. Flora aloktonoak –<i>Gramma americana</i> esaterako– beren banaketa hedatzeko erabil litzake bidezidor horiek.</p> <p>Egitura ez-jarraitua eta irekia da; beraz ez dago egokitzat jotzerik populazioaren osotasunari dagokionez. Alabaina, komunitatearen barruko geruzak -belarrak eta zuhaixkak aintzat hartuz gero, ez dirudi egitura oso eraldatuta dagoenik. Zatikaketa-maila kudeatu beharreko elementuetako bat denez, txilardiaren egituraren urraketa nabarmentzat hartu behar dugu, bietatik, bereziki, itsasertzekoarenaren kasuan, masak ez baitira jarraituak eta oso urruti baitaude komunitate jarraitu eta gailenak eratzetik. Haatik, txilardi lehorra osorik aztertuz gero (itsasertzekoa eta bestea batera), onar liteke egituraren urraketa partziala besterik ez dela.</p> <p>Itsasertzeko txilardi lehorraren funtzioak –komunitate kontinentalen lehen eboluzio-lerroaren funtzioak, alegia– itsasertzeko dinamika orokorraren, labarraren osotasun fisikoaren eta komunitate kontinentalizatuagoen eraginaren oso mende daude. Hainbat lan-dokumentutan (bereziki «oinarri ekologikoetan») hiru elementu baliatu dira funtsean, egitura eta funtzioa ebaluatzeko: espezie-zerrenda, oligotrofia eta bizitokietatik distantzia. Elementu horiek itsasertzeko txilardi lehorrean dituzten balioak ezezaguntzat har litezke (handinahikoegiak direlako, nonbait); agian osaera izan ezik, hori ezaguna baita.</p> <p>Etorkizunerako aurreikuspenek ez dakarte aparteko aldaketarik gaur egungo egoerarekiko. Hasierako formulatan esleitutako azaleraren balioa geroa aldatu izana, gure ustez, ez da benetako aldaketa baten isla, baizik eta interpretazio-aldaketa batena (aintzat hartuta lehengo estimazioak eta lan honetarako berriaz egindako kartografia berria). Dena dela, gaur egungo azalera ezin da optimotzat jo, esandako analisi kartografikoek agerian utzi duten azalera-galera dela eta. Beraz, komunitate hauetarako aurreikuspenak, gaur egungo presioak ere kontuan hartuta, hala-moduzkoak jo daitezke.</p>



<b>Erica vagans duten kostaldeko txilardi lehor atlantikoak - 4040 (*)</b>			
Gaztelugatxeko Donieneko KEBa		<b>Desegokia</b>	
<b>Azalera</b>	<b>Egitura</b>	<b>Funtzioak</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Desegokia</b>	<b>Desegokia</b>	Ezezaguna	<b>Desegokiak</b>
<b>Txilardi lehorrak - 4030</b>			
Gaztelugatxeko Donieneko KEBa		<b>Aldekoa</b>	
<b>Azalera</b>	<b>Egitura</b>	<b>Funtzioak</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>	Ezezaguna	<b>Aldekoak</b>
<b>Baldintzagarriak</b>			
<p>4040 kodeari dagozkion itsasertzeko txilardiak (EAeko Biodibertsitateari buruzko Informazio Sistema), kasu honetan gainerako txilardiak gehituta ere, urriak dira eta beren funtsezko kondizio ekologikoen aldaketekiko nahiko sentikorrak, batez ere pertsonen ibilerak eragindakoei (erabilera publikoa) eta hari lotutako poluzioak eragindakoei (izan ere, horrelaxe sartzen dira habitat honetara espezie erruderalak eta landare aloktono inbaditzaileak ere). Presio horiek lurraldean eragiten duten ondorioa ez da guztiz eza-guna oraindik; haatik, lurraldean ezin hobeto adierazita dauden bidezidorrak direla eta, erabat erraza da txilardiaren egituraren toki agerikoenean interes bereziko taxonak ageri diren eremu sentikorretara iristea.</p> <p>Funtzioei dagokienez, ez dago zertan horiek guztiz jakin nahi, hau bezalako gidalerro-dokumentu baten irismenetik at bailegoke hori. Zentzu horretan har litezkeen neurriak, nolana, sistema monitorizatzetik abiatu behar lukete, betiere txilardiaren kudeaketa aktiboko gainerako ekintzekin koordinatuta.</p>			
<b>Helburuak eta neurriak</b>			
<b>X.7 xedea</b>	<b>Kontserbazio-egoera egokia lortzea (egungoa hobetzea kasu guztietan), betiere formazio nagusia –kostaldeko txilardia– txilar lehorreko formazio kontinentalagoekin –4030 kodekoekin– lotuz.</b>		
<b>E.7.1 emaitza</b>	<b>4040 habitataren benetako azalera sendotuko da eta, hala, txilardi osoarena.</b>		
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	Halaber da aplikagarria Gidalerro hau: <b>G.9.5</b>		
<b>E.7.2 emaitza</b>	<b>Gaztelugatxeko Donieneko itsasertzeko eremuan landare inbaditzaileak kontrolatuko dira.</b>		
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	Aplikagarriak dira taxon aloktonoak kontrolatzeko neurriak.		

## GE.8.– Ereinozdi zuhaizkarak

EB mailako intereseko habitata (5230) (lehenetsia).

<b>Egungo egoera</b>
<p>Ereinozdiak, oro har, formazio urriak dira eskualdeko KEBetan, bai berez eta soil daudenean, bai artadiaren suzesio-serie bateko gradu direla. Eskualdez kanpoko formazioak dira, gehiago baitagozkio Eskualde Biogeografiko Mediterraneoari Eurosiberiarrari baino. Habitat hau sakabanatuta eta heterogeneoki ageri da eskualdean; masak txikiak dira, baina hori ez da erabakigarria, ereinozdiak formazio nabarmenak baitira.</p> <p>Artadiari dagozkion ereinozdiek egitura egokia dute; beraz, aldeko kalifikazioa eman zaie. Funtzioak ezezagun samarrak dira, masa bakartuenei dagozkienak behintzat, horiek baldintzapen ekologiko espezifikoak dituztela ematen baitu. Artadien KEBaren kasuan, artadiaren fazies lauordearen funtzioak garapen egokia du sistema zabalago baten (artadiaren) zati moduan. Hor, masa nagusiarentzako kondizio bereziko giroa taxutzen du, zehatz.</p>

Etorkizunerako aurreikuspenak ez dira argiak, zeren habitat honek eremu marjinal samarretan duen egoerak ez baitu egonkortasunik ekartzen. Bestelakoa da masa integratuen egoera (artadien fazies lau-roidea, esaterako); horien aurreikuspenak beti egonkorragoak baitira, antza.

Ereinozdi zuhaizkarak - 5230 (*)			
<i>Urdaibaiko kantauriar artadien KEBa</i>		Aldekoa	
<b>Azalera</b>	<b>Egitura</b>	<b>Funtzioak</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Aldekoa	Aldekoa	Aldekoak	Aldekoak

### Baldintzagarriak

Azalera eskasa, banaketa ez-jarraitua, presioa ingurumarian, batez ere nekazaritzak, abeltzaintzak eta inoiz egurgintzak ere eraginak. Lurraren jabetza faktore esanguratsua da jardun beharreko tokiak hautatzeko, are gehiago habitata hedatzeko egin litezkeen ekintzei dagokienez.

### Helburuak eta neurriak

<b>X.8 xedea</b>	<b>Gaur egungo sailak sendotzea eta ahal den guneetan zabaltzen laguntzea.</b>
<b>E.8.1 emaitza</b>	<b>Urdaibaiko Artadi Kantauriarrak KEBean bildutako ereinozdiak konterbatuko dira</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	Gidalerro eta Arau hauek dira aplikagarriak: <b>G.2.8, G.6.6</b> eta <b>A.5.2</b>

## GE 9.- Turistikoki ustiatu gabeko kobazuloak

EB mailako intereseko habitata (8310)

### Egungo egoera

Azterketa honen aztergaia Busturialdea-Lea-Artibai sistema karstikoan kokatua da, Busturialdeko multzoan zehazki- 330 kobazulo zerrendatu dira bertan, eskura dagoen datu-biltegiaren eta Artadien LEPetik hartutako informazioaren arabera (ikus Geologia eranskina KEBetako kobazuloen lokalizazio-datuak zehazteko).

Azalera ez da kuantifikagarria, bai ordea kobazuloen ugaritasuna. Kuantitatiboki nahiz kualitatiboki, egoki iritzi zaio.

Oro har, ez dirudi ez egitura ez funtzioa auzitan daudenik, zeren leize gehienak dauden lurraldea hain latza izanik, zaila baita oso haietara iristea, hartara habitataren funtzioa eta egitura egokiak direlarik.

Etorkizunerako aurreikuspenak, beraz, egokitzat jo daitezke, bai sistemaren kudeaketa orokorrak bai lurraldea estaltzen duten kudeaketa-tresnek hala iradokitzen baitute.

Turistikoki ustiatu gabeko kobazuloak - 8310			
<i>Urdaibaiko kantauriar artadien KEBa</i>		Aldekoa	
<b>Azalera</b>	<b>Egitura</b>	<b>Funtzioak</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Aldekoa	Aldekoa	Aldekoak	Aldekoak
<i>Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa</i>		Aldekoa	
<b>Azalera</b>	<b>Egitura</b>	<b>Funtzioak</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Aldekoa	Aldekoa	Aldekoak	Aldekoak
<i>Urdaibaiko ibai-sarearen KEBa</i>		Aldekoa	
<b>Azalera</b>	<b>Egitura</b>	<b>Funtzioak</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Aldekoa	Aldekoa	Aldekoak	Aldekoak

Baldintzagarriak	
Baldintzagarriek leizeen kokapen urruna eta haietara iristeko zailtasuna dute oinarri. Izan litezkeen presioek (kontrolrik gabeko bisitek, leizeen barruaren eraldaketak, hondakinak botatzeak, poluzioak...) eta sistema hauen galkortasunak eragin lezaketen baldintzagarriak, berriz, leizeek intereseko taxonak ostatatzeke gaitasuna kolokan jar lezake.	
Helburuak eta neurriak	
<b>X.9 xedea</b>	<b>Kobazuloetako habitat moduko kondizioak atxikitzea eta hobetzea, horiek gaur egun taxon troglodita, troglobio eta trogloxenoentzat nahiz lurpeko ur-medioan bizi diren taxonentzat (estigobioak) duten gaitasuna egoki jakitetik hasita. Halaber sakondu behar da kobazuloak eta kanpoaldea komunikatzen dituzten eremuetako berezko landaretzaren jakintzan, aktiboki kudeatu beharreko elementu denez.</b>
<b>E.9.1 emaitza</b>	<b>Kontrolrik gabeko ibilerak eta nahi ez den poluzioak eragindako presioa urritu egingo da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<b>N.9.1.1.</b> Kobazuloetako alterazioak ezabatzeko programa diseinatzea, taxonak ostatatzeke gaitasunaren arabera duten garrantzia aintzat hartuko duena. Halaber dira aplikagarriak Gidalerro eta Arau hauek <b>G.2.11, G.9.6. eta A.9.1.</b>
<b>E.9.2 emaitza</b>	<b>Kobazuloen jakintza hobetu egingo da taxon interesgarrien habitat moduan.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<b>N.9.2.1.</b> Kobazuloetako faunako (troglobio zein estigobio) aldaerei buruzko azterlanak egitea, sistema bakoitzak talde faunistiko bakoitzarentzat zer nolako gaitasuna duen jakiteko. <b>N.9.2.2.</b> KEBetako kobazuloen sarrerei lotutako landareei buruzko azterlanak egitea.

### GE 10.- *Quercus ilex* eta *Quercus rotundifolia* artadiak

EB mailako intereseko habitata (9340)

Harizti eutrofoekin eta baso mistoekin batera landu dira (Eunis G1.A1).

Egungo egoera
<p>Gako elementu honen ezaugarri nagusia da naturagunea oro har konfiguratzeko duela. Artadia eta harizti eutrofoa bikoteak ia zeharo konfiguratzeko du KEBak hartzen duen eremu osoa. Bata eta bestea txandakatu egiten dira, eta kondizio ekologikoen arabera estaltzen dituzten kareharrizko mendiei jarraituta banatzen dira. Artadiaren eremu potentziala, batik bat, harkaitz gorrizko maldekin bat dator, eta hariztiarenak, berriz, lurzorua pilatzen den sakonuneekin.</p> <p>Bi formazio horiek estaltzen duten azalera desegokitzat jo liteke, haien banaketa-eremu potentzialaren zati handi bat egurgintzarako aldatutako zuhaitz aloktonoek estaltzen baitute.</p> <p>Egiturari, berriz, egoki iritzi zaio, eremu batzuetan suzesio ekologikoaren faseren batean dagoela ulertu ahal izanagatik. Halakoetan artadiaren forma heldugabeak ageri dira, baso zaharreko guneak eskasak izanik (ikus haginaren atala taxonen artean).</p> <p>Funtzioei dagokienez, berriz, ez dago desegokitzat hartzerik (zaila da erreferentziako dokumentu batzuetan definitutako irizpideak aplikatzea; izan ere, masen okupazioa dela-eta ezin direnez termino absolutuetan ebaluatu, funtzionaltasuna egokia dela jo liteke.</p> <p>Beste elementu funtzional batzuk badira, hala nola egur hila edo mikrohabitat jakin batzuk egotea, nekez hautematen direnak halako formazio itxi eta iristen zailean; haatik, gabezia horiek ezin dira hain zorrotz ebatzi.</p>

Etorkizunean ez dirudi aldaketa handirik egongo denik, sistema berariazko erregulazio-erregimen baten pean baitago. Gaur egun ustiatu gabeko eremu bat izate hutsa berez da egonkortasun-faktore; halaber, ezin aipatu gabe utzi konifero eta eukaliptoak, produkzio-espezieak, artadi eta hariztiei presio handia egiten baitiete.

<b>Quercus ilex eta Quercus rotundifolia artadiak - 9340</b>			
Urdaibaiko kantauriar artadien KEBa		Desegokia	
<b>Azalera</b>	<b>Egitura</b>	<b>Funtzioak</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Desegokia	Aldekoa	Aldekoak	Aldekoak
<b>Harizti eutrofoa eta baso mistoa - Eunis G1.A1</b>			
Urdaibaiko kantauriar artadien KEBa		Desegokia	
<b>Azalera</b>	<b>Egitura</b>	<b>Funtzioak</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Desegokia	Aldekoa	Aldekoak	Aldekoak

### Baldintzagarriak

Baldintzagarri nagusiak egurgintzarako laboreak dira, masen ertzetan, alboetan eta erdian ere ageri ohi direnak. Kudeaketa zaildu egiten du horrek. Halaber, masen barne-kudeaketa zaila da, masa bera itxia eta sarria delako berez, eta haren ertzean ez beste inon egiten diren ekintzak zailak dira.

### Helburuak eta neurriak

<b>X.10 xedea</b>	<b>Baso barrua eta mendi-oineko baso-ertza hobetzea</b>
<b>E.10.1 emaitza</b>	<b>Dauden artadi-hariztiak kontserbatuko dira.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	Gidalerro eta Arau hauek dira aplikagarriak: <b>G.2.9, G.6.1, G.6.2, G.6.3, G.6.5, G.6.6, A.2.3, A.2.4 eta A.6.4</b>
<b>E.10.2 emaitza</b>	<b>Masaren barne-egitura hobetu eta suzesio-serieko etapen bilakaera erraztu egingo da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	Gidalerro eta Arau hauek dira aplikagarriak: <b>G.6.8, G.9.4 eta A.6.1</b>
<b>E.10.3 emaitza</b>	<b>Artadi-hariztiaren osotasuna hobetuko da haren eremu potentzial osoan.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<b>N.10.3.1.</b> Basoak sortzeko moduko lurretan, basoa egur-laboreen kontura zabaltzeko programa bat diseinatuko da.

### GE 11.- *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* duten erreka bazterreko basoak

EB mailako intereseko habitata (91E0) (lehenetsia).

Eunis F 9.2 –Urbazterreko zuhaixka-formako sahastia– eskualde mailako intereseko habitata barne.

### Egungo egoera

Urdaibaiko Kontserbazio Eremu Berezi guztien elementu nagusietako bat da 91E0 habitata. Izan ere, Oka ibaiak eta haren ibaiadarrek sortutako arroan zehar guneak antolatzen dituen elementua da.

Habitat hau ibaiari lotuta dago, eta espazio banatan sailkatu ditugun bi eremutan banatu dugu. Alde batetik ibai-sare orokorra dago, sarearen tarteko eta behe-zatietako ibai-bazterreko haltzadiak dituen. Bestalde, ibai horien beren ahoak, non Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBarri lotzen zaizkion; haltzadiak, hor, periestuerial bilakatzen dira, zeharo ibaikoak ez bezalakoak, haatik, ez elkarrengandik zeharo berezita.

Haltzadiek hartzen duten eremu guztia ez da berdina; paduretako KEBean daudenen azalera ez da egokia, oso zatikatuta baitago eta, gainera, giza jarduerak gogor eragiten baitiete. Egitura eta funtzioa ere kolokan daude, inguruko jarduera urbanoen, nekazaritzakoen, abeltzaintzakoen eta egurgintzakoen presioak ikaragarri mugatzen baitituzte.

Ibai-haltzadie dagokienez, berriz, nahiz eta luze eta zabal banatuta egon, haien azalera desegokitzat jo dugu. Izan ere, eremu askotan habitaterako lehentasun handiko medioa izanik, eremu potentziala erreala baino askoz ere handiagoa da.

Toki batzuetan batere itxurarik ez dute ez egiturak ez funtzioak, behe-eremuetan batik bat. Oro har, bere masan sakontasun, nemoraltasun eta geruza-dibertsitate eskasa du ibar-basoak, inoiz ezin hautematekoa ere. Eten nabarmenak ditu, halaber. Beraz, ez dago egokitzat jotzerik haren funtzio ekologikoa.

Etorkizunerako aurreikuspenak ez daude argi, habitat honek giza eragin handiko eremuetan duen egoera sistema desegonkortu egiten baitu. Hala ere, lurraldearen babes-maila dela eta, etorkizuneko aurreikuspenak erdipurdikoak jo ditzakegu.

Urbazterreko zuhaixka-formako sahastiari dagokienez, bestalde, urbazterreko serieari dagozkion zuhaitz-eta zuhaitz-formako formazioek okupatu gabeko eremuak hartzen ditu Urdaibaiko ibai-sarearen KEBean. Alegia, bertako elementu klimazikoa den haltzadi-lizardia adibide duten formazio eboluzionatuagoen ordez ageri da. Horrexek bilakatu ditu gako formazio hauek Urdaibaiko ibai-sarean egiten diren eskuhartzeetan. Izan erre, eremu horietan urbazterreko basoaren galera handia gertatu da, nahiz eta gero hain eboluzionatuak ez diren landare-formazio naturalak garatu diren bertan.


Sahastiek hartzen duten azalera, beraz, KEBerako proposatu den mugen barruan, egokitzat jo liteke, baina kontuan harturik, esan bezala, ordezko formazio bat direla (ez baitira inondik ere klimaziko edo azpiklimaziko, haien ordezkapen-formazioak baizik, zeharo eboluzionatu gabeak), onartu behar da aldi baterako egoera dela oraingoa eta formazio horientzat aplikatu beharko dela, oro har, urbazterreko basoentzat aplikatzen dena.

Egiturari egoki iritzi dakiok, nahiz eta horrek ere ez duen aparteko berezitasunik. Aipagarria da urbazterreko zuhaixka formako sahastia (ez dezagun hau nahastu *Salix alba* eta *S. fragilis* espezieek eratzen duten zuhaitz formako sahastiarekin) hurritzarekin batera agertzen delarik, batzuetan agerikoa dela, bestetan hurritzak hartzen duela protagonismo osoa eta bestetan, azkenik, banaketa parekatua izaten duten formazio biek.

Formazioa egote hutsak egoki bihurtzen du haren funtzioa, erreka bazterreko formazio klimaziko edo azpiklimazikoetarako bidean dela adierazten baitu. Beraz, egokitzat jo ditugu kasu guztietan.

Etorkizunerako aurreikuspenak ezezagunak izendatu dira, urbazterreko sahastiak hondar-formazio moduan ageri ohi baitira eta etengabe egoten baitira eraldaketen mende, nahiz eta ibai-arro osoa babestuta egon. Egurgintzako zuhaitz-laboreen presioa nabarmena da toki hauetan; hartara, gaur egun auzitan dago formazioen funtzioen eboluzioa.

<b><i>Alnus glutinosa</i> eta <i>Fraxinus excelsior</i> duten erreka bazterreko basoak - 91E0 (*)</b>			
<i>Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa</i>		<b>Desegokia</b>	
<b>Azalera</b>	<b>Egitura</b>	<b>Funtzioak</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Desegokia</b>	<b>Desegokia</b>	<b>Desegokiak</b>	<b>Desegokiak</b>
<i>Urdaibaiko ibai-sarearen KEBa</i>		<b>Desegokia</b>	
<b>Azalera</b>	<b>Egitura</b>	<b>Funtzioak</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Desegokia</b>	<b>Desegokia</b>	<b>Desegokiak</b>	<b>Desegokiak</b>
<b>Urbazterreko zuhaixka formako sahastia - Eunis F 9.12</b>			
<i>Urdaibaiko ibai-sarearen KEBa</i>		<b>Aldekoa</b>	
<b>Azalera</b>	<b>Egitura</b>	<b>Funtzioak</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoak</b>	<b>Ezezaguna</b>

Baldintzagarriak	
Azalera txikia, egitura desegokia eta, beraz, funtzio eztabaidagarria dira baldintzagarrien elementu nagusiak. Habitat horiek eremu produktiboen erdian egotea gehitu lekieke haiei. Egurgintzako laboreek askotan ibai-ertza bera ere hartzen dute, ibilguraino bertaraino. Gainera, pistak irekitzeak, egurra ateratzeak eta egurra pilatzeak bi habitat horien gaineko kaltea eragin dezakete, batez ere zuhaixka formako sahastien gainean. Halaber aipatzen dira gaur egungo presio gisa herriguneeen hedapena eta horrekin lotuta dauden garraio- eta komunikazio-azpiegiturak.	
Helburuak eta neurriak	
<b>X.11 xedea</b>	<b>Erreka-habitataren sistemari jarraitutasuna ematea, bera baita ertzen arteko lotura eta arroaren eta itsasoaren arteko lotura, estuarioa trantsizio-gune izanik. Halaber erreka-basoei, horien zabalera eta luzera handituz. Urbazterreko zuhaixka formako sahastiari dagokionez, haren barne-egitura hobetzea eta haltzadi-lizardiranzko suzesioa bultzatzea da helburua, hori baitu berezko joera.</b>
<b>E.11.1 emaitza</b>	<b>Habitataren egitura eta funtzioa hobetuko dira haltzadiak estalitako azalera sendotuta eta hobetuta. Sahastien kasuan, berriz, egungo komunitateak hobetu eta ordezkoko basoa (erreka-basoa, hain zuzen) leheneratu egingo da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>N.11.1.1.</b> Unean egoera larrienean dauden haltzadiak leheneratzeko proiektua diseinatzea eta gauzatzea, bereziki estuario-aurreko ordeakako ibaigune nagusiei dagokienez –estuariora datozen ur gezako ekarpen nagusiak baitira–, KEBen eta «Establecimiento de prioridad de actuaciones de revegetación de riberas en la CAPV» (URA, 2011) azterlanean 1. lehentasunekotzat jo diren zatien arteko konektibitatea bermatzearen, batik bat.</p> <div style="text-align: center;">  </div> <p><b>N.11.1.2.</b> Ur-ekosistemak Lehengoratzeko Gidaplana, EAeko plangintza hidrologikoan aurreikusia, idaztea.</p> <p>Halaber dira aplikagarriak Gidalerro eta Arau hauek <b>G.2.2., G.2.3., G.2.4., G.2.5., G.2.6., G.2.13., G.6.4., G.6.6., G.6.7., G.6.9., G.6.10., G.9.1., G.10.3., A.2.1., A.6.1.</b> eta <b>A.6.4.</b></p>

<b>E.11.2 emaitza</b>	<b>Ibai-sareari kalte handiena egiten dioten lehen sektoreko erabileretarako urruntze-distantziak xedatuko dira.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>N.11.2.1.</b> Urdaibaiko Ibai Sareko KEBa izendatu eta urtebeteko epean Urdai-baiko Ibai Sareko KEBaren barruan espezie aloktonoekin egur-landaketa berriak ezartzeko debekua konpentsatzeko irizpideak xedatuko dira; halaber konpentsazio horiek jasotzeko prozedura. Halaber prestatuko dira epe horretan aplikagarri izan litezkeen borondatezko hitzarmenak egiteko irizpideak.</p> <p>Halaber dira aplikagarriak Gidalerro eta Arau hauek <b>G.6.9, G.6.10, A.6.2, A.6.7 eta A.6.8</b></p>
<b>E.11.3 emaitza</b>	<b>Ibai-habitaten garrantziaren jakintza hedatuko da, batez ere tipologia ekologikoaren adierazgarriak direnen garrantziarena.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>N.11.3.1.</b> Erreka-basoen, oro har, eta bereziki erreketako haltzadien balioei buruzko dibulgazio-materiala prestatzea, biodibertsitate-biltegi moduan ez ezik, korridore ekologiko gisa eta ibai-ugaldiak leuntzeko eta kontrolatzeko lehen mailako elementu funtzional moduan ere.</p>

## GE 12.- Haritz kandudenez osatutako harizti oligotrofoak

Eskualde mailako intereseko habitata G1.86

Eunis F9.2, G1.91 –Urkidi-sahastia– eskualde mailako intereseko habitata barne

<b>Egungo egoera</b>
<p>Gako elementu hau ibai-sareko ibilguen arteko lurretan hazten da, batez erre maldetan, baina inoiz haran-hondoetan ere bai, lurra elikagaitan pobrea delarik. Formazio eboluzionatuago hauen ordez agertu ohi da sahasi-urkidia, inoiz haien aurretik ere, suzesio-ekologikoko etapa bat denez. Egurgintzako labo-reekin batera ere bizi daiteke.</p> <p>Hariztiak hartzen duten azalera desegokitzat jo da, benetako hedadura hedadura potentzialaren aldean oso murrizta delako, batez ere hostozabal eta konifero aloktonoen labore estentsiboen mesedetan. Sahasti-urkidiak hartzen duen azalera, beraz, KEBen barruan, egokitzat jo liteke, baina kontuan harturik, esan bezala, ordezko formazio bat dela (ez baita inondik ere klimaziko edo azpiklimaziko, halakoen ordezte-formazioak baizik, zeharo eboluzionatu gabeak), onartu behar da aldi baterako egoera dela oraingoa eta formazio horrentzat aplikatu beharko dela, oro har, hariztientzat aplikatzen dena.</p> <p>Egindako prospekzioetan ikusi da nemoraltasunak zein geruzaketak egokiak diruditela; beraz, egitura egokitzat jo da. Baliteke inoiz barne-eboluzio bidean egotea, hala ere. Espezie adierazgarriak beti daude presente; hala, egonkor eta zuzentzat jo dezakegu parametro hori. Atzerabidean dagoen eremuetan ez hainbeste, habitat potentzialen ezaugarriak aldatuak direla islatzen duten formazioek (hala nola eremuan urkidi-forma arruntena den sahasi-urkidiak) ordezten baitute –edo hari tokia uzten–. Horretan sakondu nahi izanez gero, ikusi diagnostikoan habitaten deskripzioa egiten duen eranskina.</p> <p>Funtzioei dagokienez, horiek formazioak biodibertsitatea ostatatzeko gaitasunari eta egonkortze-funtzioari lotutako elementu-multzotzat hartuta, ez dirudi aparteko arazorik dutenik, talde faunistikoei erreparatuta. Beraz, ez dago funtzioak desegokitzat hartzerik; aitzitik, masen okupazioaren arabera funtzionaltasuna onargarria dela pentsa liteke. Sahasti-urkidiaren funtzio hertsiki ekologikoei dagokienez, bestalde, ez daude oso garatuta, masak itxura gabe samarrak baitira; ibai-ingurunearen egoera orokorrari eusteko funtzionaltasun globalari dagokienez, berriz, ontzat jo daiteke.</p>

Beste elementu funtzional batzuk badira, hala nola egur hila edo mikrohabitat jakin batzuk egotea, nekez hautematen direnak halako formazio itxi eta iristen zailean; haatik, halako gabezia horiek ezin dira hain zorrotz ebatzi: toki batzuetan masak helduagoak dira eta beste batzuetan hazkundera eta leheneratzea gailentzen dira. Ingurune funtzional honen azken elementua da masa hauek hertsiki urbazterrekoak ez diren haranburuak eratzeko gaitasuna dutela. Hainbat autorek azpimarratu dute kontu hori. Uraren eraginik ia ez dagoen tokietan ere, urbazterrekoak ez diren basoak ibilguraino iristen direnean eta kolonizatzen dutenean ere, urbazterreko elementu interesgarriak dira harizti eta sahasti-urkidiak.

Etorkizunerako aurreikuspenak ez dira uste litekeena bezain onak, babesa egonagatik ere. Egurgintzako zuhaitz-laboreen presioa oso nabarmena da toki hauetan; hartara, gaur egun auzitan dago formazioen funtzioen eboluzioa.

<b>Haritz kandudun ez osatutako harizti oligotrofoak - Eunis G1.86</b>			
<i>Urdaibaiko ibai-sarearen KEBa</i>		<b>Desegokia</b>	
<b>Azalera</b>	<b>Egitura</b>	<b>Funtzioak</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Desegokia</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Ezezaguna</b>
<b>Sauceda-Abedular - Eunis F9.2, G1.91</b>			
<i>Urdaibaiko ibai-sarearen KEBa</i>		<b>Ezezaguna</b>	
<b>Azalera</b>	<b>Egitura</b>	<b>Funtzioak</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Ezezaguna</b>	<b>Ezezaguna</b>

### Baldintzagarriak

Baldintzagarri nagusiak egurgintzarako laboreak dira, masen ertzetan, alboetan eta erdian ere ageri ohi direnak. Kudeaketa zaildu egiten du horrek. Suzesio ekologikoaren bitarteko etapak gainditzea eta formazio klimazikoek horiek ordeztzea zail samar bilakatzen da, batez ere egurgintzako labore produktiboen erabileragatik; landaketen presioa arindu ezean ez da suzesioaren etena gaindituko.

### Helburuak eta neurriak

<b>X.12 xedea</b>	<b>Hariztiaren eremu potentzialetan azalera handitzea, egitura hobetzea eta suzesio ekologikoa sustatzea, sahasti-urkidiak hartara jotzen baitu.</b>
<b>E.12.1 emaitza</b>	<b>Dauden hariztiak kontserbatuko dira eta haien egitura hobetuko da suzesioko serieen etapen bilakaeraren alde eginez.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	Gidalerro eta Arau hauek dira aplikagarriak: <b>G.2.10, G.6.1, G.6.2, G.6.6 eta A.6.4</b>
<b>E.12.2 emaitza</b>	<b>Hariztirako eremu potentzialetan, urkidi sendotuak barne, leheneratzea hobetuko da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	Gidalerro eta Arau hauek dira aplikagarriak: <b>G.6.7, A.6.1 eta A.6.3</b>
<b>E.12.3 emaitza</b>	<b>Hariztiaren osotasuna hobetuko da haren eremu potentzial osoan.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<b>N.12.3.1.</b> Basoak sortzeko moduko lurretan, horiek egur-laboreen kontura zabaltzeko programa bat diseinatzea. Ibai-sarea indartzeko hori egitea garrantzitsua suertatzen den KEBeko eremuetan, batez ere. Gidalerro eta Arau hauek dira aplikagarriak: <b>G.6.3. eta A.6.5</b>



## FLORA

**GEM 13-15.- IBAI SAREKO FLORAKO GAKO ELEMENTUAK EB mailako garrantziko iratze paleotropikalak**

Gako elementuen multzoa

**GE 13.- *Culcita macrocarpa***

EB mailako intereseko taxona (1420)

**GE 14.- *Vandenboschia speciosa* (= *Trichomanes speciosum*)**

EB mailako intereseko taxona (1421)

**GE 15.- *Woodwardia radicans***

EB mailako intereseko taxona (1426).

Espezia	Gaztelania	Euskara	Habitategi buruzko Direktiba	EAEko katalogoa	Liburu gorria
<i>Culcita macrocarpa</i>	Helecho de colchoneros	-	II eta IV	GA	AL
<i>Vandenboschia speciosa</i>	-	-	II eta IV	KA	KA
<i>Woodwardia radicans</i>	Píjara	-	II eta IV	KA	KA

**Gaur egungo egoera** (hiru espezieena batera deskribatu da)

Hiru espezieen kasuan habitat potentziala espezieek benetan hartzen duen azalera baino nabarmen handiagoa denez, banaketa ez dago ontzat jotzerik. Populazioari dagokionez, txarra jo da *Culcita macrocarpa*ren kasuan, eta desegokia, berriz, besteenean. Gaur egun, *Woodwardia radicans*ek ditu populazio onenak.

Hiru espezieen habitata dela eta, murriztapen gehiegi dago arroan hura garatzeko; haatik, egurgintzako landaketak dira populazio potentzialera ez iristeko duten muga nagusia. Horren ondorioz, ezezaguntzat jo behar dira etorkizunerako aurreikuspenak, bai eta habitat potentzialaren kalitatea hobetuko balitz ere. Hala ere, *Woodwardia radicans*ek ditu aurreikuspen onenak.

*Culcita macrocarpa*ren kasuan, azken kontserbazio-egoerari txarra iritzi behar zaio nolahi ere, eremuan oso populazio txikia baitauka. Beste espezieen kasuan, desegokia da.

***Culcita macrocarpa* - 1420**

Urdaibaiko ibai-sarearen KEBa		<b>Txarra</b>	
Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
<b>Desegokia</b>	<b>Txarra</b>	<b>Aldekoa</b>	Ezezaguna

***Vandenboschia speciosa* (= *Trichomanes speciosum*) - 1421**

Urdaibaiko ibai-sarearen KEBa		<b>Desegokia</b>	
Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
<b>Desegokia</b>	<b>Desegokia</b>	<b>Aldekoa</b>	Desconocidas

***Woodwardia radicans* - 1426**

Urdaibaiko ibai-sarearen KEBa		<b>Desegokia</b>	
Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
<b>Desegokia</b>	<b>Desegokia</b>	<b>Aldekoa</b>	Desconocidas

Baldintzarriak	
Bi dira baldintzarri nagusiak: garapen potentzialeko tokietan esku-hartzearen zailtasuna (egurgintzako labore pribatuen presionatzen dituzten errekaak baitira), eta iratze paleotropikal handi hauen behar izan ekologiko bereziak oso ezezagunak izatea. Eremuak eta baldintzak mugatu artean, kondizio horietan kudeatu beharko dira taxon hauek.	
Helburuak eta neurriak	
<b>X.13-15 xedea</b>	<b>Espezie horien gaur egungo populazio-egoera hobetzea.</b>
<b>E.13-15.1 emaitza</b>	<b>Iratze horientzat habitat egokia egongo dela bermatuko da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<b>N.13-15.1.1.</b> Urdaibaiko Ibai Sareko KEBean taxonek duten banaketa potentziala kartografiatzea.  Halaber dira aplikagarriak Gidalerro hauek <b>G.3.1, G.3.6 eta G.9.3</b>
<b>E.13-15.2 emaitza</b>	<b>EB mailako intereseko iratzeak bizkor hautemango dira.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<b>N.13-15.2.1.</b> EB mailako intereseko taxonak, batez ere iraungizetik gertu daudenak, bertan bizi direla adierazten duen dibulgazio-materialen bat egitea. Horiek hautemateko prozesuan herritarrek parte har dezatela sustatzea; esaterako, landareen argazkiak bidalita, identifikatzearen. Neurri hau EB mailako intereseko taxon guztientzat komuna litzateke.  <b>N.13-15-2-2.</b> Gaur egun dauden populazioak monitorizatzea, espezie kaltebekin eta galtzeko arriskuan daudenekin batera.

### GEM 16-28.- ITSASERTZEKO ETA PADURAKO FLORAKO GAKO ELEMENTUAK. Hainbat espezie

Gako elementuen multzoa

#### **GE 16.- *Chamaesyce peplis***

Eskualde mailako intereseko taxona

#### **GE 17.- *Festuca vasconensis***

Eskualde mailako intereseko taxona. Festuka

#### **GE 18.- *Medicago marina***

Eskualde mailako intereseko taxona Itsas alpapa, itsas luzerna

#### **GE 19.- *Matricaria maritima* subsp. *maritima***

Eskualde mailako intereseko taxona. Itsas kamamila

#### **GE 20.- *Sonchus maritimus* subsp. *maritimus***

Eskualde mailako intereseko taxona. Kardabera

#### **GE 21.- *Olea europea* subsp. *oleaster***

Eskualde mailako intereseko taxona. Basolibondoa

**GE 22.– *Zostera noltii***

Eskualde mailako intereseko taxona. Itsas belarra

**GE 23.– *Herniaria ciliolata***

Eskualde mailako intereseko taxona. Herniaria

**GE 24.– *Honckenya peploides***

Eskualde mailako intereseko taxona

**GE 25.– *Lavatera arborea***

Eskualde mailako intereseko taxona. Malba garaia

**GE 26.– *Salicornia ramosissima***

Eskualde mailako intereseko taxona. Salikornia

**GE 27.– *Suaeda albescens***

Eskualde mailako intereseko taxona. Itsas soda

**GE 28.– *Armeria euscadiensis***

Eskualde mailako intereseko taxona. Armeria

Espezia	Gaztelania	Euskara	Espezia ageri ohi den habitatak	(Habitategi buruzko Direktiba)	EAEko katalogoa	Liburu gorria
<i>Chamaesyce pepelis</i>	Péplide	-	1210, 2110, 2120	-	GA	AL
<i>Festuca vasconensis</i>	Festuca	Festuka	2120, 2130*	-	GA	AL
<i>Medicago marina</i>	Hierba de la plata	Itsas alpapa	2110, 2120, 2130*	-	GA	AL
<i>Matricaria maritima ssp. maritima</i>	Manzanilla de mar	Itsas kamamila	1140, 1420,	-	GA	GA
<i>Zostera noltii</i>	Seda de mar de hoja estrecha	Arakatsa	1110, 1140, 1420	-	GA	GA
<i>Olea europaea</i>	Acebuchu	Basolibondoa	9340, 1230	-	GA	GA
<i>Sonchus maritimus</i>	Cerrajón	Kardabera	Padura garaia	-	GA	GA
<i>Honckenya peploides</i>	Arenaria de mar	-	2110, 2120, 2130*	-	KA	KA
<i>Salicornia ramosissima</i>	Salicornia	Salikornia	Zelai hezeak	-	KA	KA
<i>Suaeda albescens</i>	Espejuelo	Itsas soda	1330	-	KA	KA
<i>Lavatera arborea</i>	Malva arborea	Malba garaia	1230	-	KA	KA
<i>Armeria euscadiensis</i>	Armeria	Armeria	1230 eta txilardiak	-	KA	KA
<i>Herniaria ciliolata</i>	Herniaria	-	2110, 2120, 2130*	-	KA	KA
<i>Salicornia obscura</i>	Salicornia	Salikornia	1140, 1310, 1330, 1420	-	B	IA
<i>Suaeda maritima</i>	Espejuelo	-	1140, 1310, 1330, 1420	-	KA	IA
<i>Juncus acutus</i>	Junco agudo	Ihia	Zelai hezeak	-	B	IA
<i>Salicornia dolichostachya</i>	Salicornia	Salikornia	1140, 1420	-	B	IA
<i>Salicornia lutescens</i>	Salicornia	Salikornia	1140, 1310, 1420	-	B	IA
<i>Sarcocornia perennis</i>	Salicornia rastrea	Beiraki belarra	1140, 1310, 1420	-	B	IA
<i>Frankenia laevis</i>	Brezo de mar	Itsas txilarra	2130*	-	B	IA

Dokumentu honi dagokionez, kudeatu beharreko gako elementu moduan habitat-motetako landare-espezia behinenak hautatu dira, haien adierazgarri direlako, egiazat hartuta kudeaketa horietan fokalizatzea habitat osoaren kontserbazioaren mesedetan izango dela.

Espezia horiek egungo egoera, xedea eta baldintzagarriak bildu dira segidan, IUCNren Liburu Gorrian duten mehatxu-mailaren arabera antolatuta (AL-tik AT-ra). Taxon bakoitzaren deskripzioa ikusteko, ikusi kontserbazio egoeraren diagnostikoaren 3. atala eta dagokion eranskina.

**Egungo egoera*****Chamaesyce peplis***

Taxon hau tokian desagertua dela jo da. Baliteke erabilera publikoak ekarri izana egungo egoerara, populazioa pixkanaka urritu ondoren. Argitzeko dago *C. polygonifolia* bere ahaide aloktonoak eragiten dion ala ez.

Espeziea nola galdu zen ez baitakigu, etorkizunak, kasu onenean ere, erdipurdikoak dira.

Azken kontserbazio-egoera desegokitzat jo behar da, gaur egungo populazioa nulua baita.

<b><i>Chamaesyce peplis</i></b>			
<i>Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa</i>		<b>Txarra</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Txarra</b>	<b>Txarra</b>	<b>Desegokia</b>	<b>Desegokiak</b>

***Festuca vasconensis***

Taxon hau tokian desagertua dela jo da; beraz, banaketa eta populazioaren egoera desegokia da, argiro.

Habitatari dagokionez, erabilera publikoak urritu ditu populazioak, gaur egungo egoerara iristeraino. Ez dugu duna-sistemak kolonizatzea eragotzi liezaiokeen dunetako espezieekiko gatazka posibleen berririk. Hori dela eta, desegokia jo liteke gaur egun habitataren egoera. Espeziea nola galdu zen ez baitakigu, etorkizunak, kasu onenean ere, erdipurdikoak dira.

Azken kontserbazio-egoera desegokitzat jo behar da, gaur egungo populazioa nulua baita.

<b><i>Festuca vasconensis</i></b>			
<i>Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa</i>		<b>Txarra</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Txarra</b>	<b>Txarra</b>	<b>Desegokia</b>	<b>Desegokiak</b>

***Medicago marina***

Tokian desagertua da taxon hau. Habitatari dagokionez, aurreko bi taxonen gabezia berberak ditu, medio bera baitute bizileku. Gabezia horiek eta erabilera publikoak urritu dituzte populazioak, gaur egungo egoerara iristeraino.

Desegokitzat hartu behar da ezin bestean azken kontserbazio-egoera, ez baitago populaziorik, hartara, banaketarik ere ez. Halaber dute aurreko bi taxonen balorazioa bere espezie honen habitatak eta etorkizunerako aurreikuspenek.

<b><i>Medicago marina</i></b>			
<i>Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa</i>		<b>Txarra</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Txarra</b>	<b>Txarra</b>	<b>Desegokia</b>	<b>Desegokiak</b>

***Matricaria maritima* subsp. *maritima***

Oso populazio-arazo larriak ditu espezie honek, eta hori dela eta apenas dago gaur egungo erreferentziarik. Oro har, espezieak gaur egun EAEn duen banaketa KEBean deunarekin bat dator: hori kontserbatzea, beraz, Natura 2000 Sarearen tokiko ekintza hutsa ez ezik haren eskualde-mailako egoeran isla izango duen neurria ere bada.

Populazioari dagokionez, prospekzio-aldian ez ziren zuzenean hauteman; habitata dela-eta, berriz, taxona medioen arteko ekotonoetan agertzeak ez dio mesede egiten ez garapenari, ez detekzioari, kontserbatzeko interes handiko taxona izanagatik ere.

Azken kontserbazio-egoerari desegoki iritzi behar zaio nolanahi ere, oso populazio urria baitu, bai gunean, bai EAE osoan ere.

<i>Matricaria maritima</i> subsp. <i>maritima</i>			
Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa		Txarra	
Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
Desegokia	Txarra	Desegokia	Desegokiak

### *Sonchus maritimus* subsp. *maritimus*

Oso populazio-arazo larriak ditu espezie honek, eta hori dela eta apenas dago gaur egungo erreferentziarik. Populazioari dagokionez, berriz, prospekzio-aldian ez ziren zuzenean hauteman.

Habitata dela-eta, berriz, taxona medioen arteko ekotonoetan agertzeak ez dio mesede egiten ez garape-nari, ez detekzioari, kontserbatzeko interes handiko taxona izanagatik ere.

Azken kontserbazio-egoerari desegoki iritzi behar zaio nolanahi ere, oso populazio urria baitu gaur egun -agian desagertu ere egingo zen- bai gunean, bai EAE osoan ere.

<i>Sonchus maritimus</i> subsp. <i>maritimus</i>			
Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa		Txarra	
Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
Desegokia	Txarra	Aldekoa	Desegokiak

### *Olea europea* subsp. *oleaster*

Populazioak ezagunak dira, eta urriak, kopurutan zein dentsitatean. Espeziearen banaketa-eremua gutxi gorabehera egonkorra bada ere, ezin da gauza bera esan populazioei buruz, labarretan bizi baitira eta noiznahi galdu bailitezke ertzak atzera egin ahala.

Azken kontserbazio-egoerari desegoki iritzi behar zaio nolanahi ere, oso populazio urria baitu, bai gunean, bai EAE osoan ere.

<i>Olea europea</i> subsp. <i>oleaster</i>			
Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa		Txarra	
Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
Desegokia	Txarra	Aldekoa	Aldekoa

### *Zostera noltii*

Populazioa zein banaketa desegokiak ditu, habitat potentziala banaketa erreala baino nabarmen handiagoa baita; halaber dira urriak dentsitatea eta hartzen duen azalera.

Habitatari dagokionez, ondo samar dago; haatik, egoki iritziagatik ere, populazioek aurrera egitea garaizten duten elementuak egon behar dute. Horren ondorioz, ezezaguntzat jo behar dira etorkizunerako aurreikuspenak, bai eta uraren kalitatea arroko saneamendu integralaren bidez hobetuko balitz ere.

Azken kontserbazio-egoerari desegoki iritzi behar zaio nolanahi ere, oso populazio urria baitu gunean.

<i>Zostera noltii</i>			
Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa		Desegokia	
Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
Desegokia	Desegokia	Aldekoa	Ezezaguna

**Herniaria ciliolata**

Dunetako berezko landare tipikoa da *Herniaria*, oso bereziki 2110 eta 2120 zenbakidun habitatei lotua. Prospekzioa egin zenean aleren bat hauteman zen Laidan. Aurkitu zeneko duna landaketa berriak eginda leheneratu zen. Jatorria antropikoa dela frogatuz gero, aleen jatorria iragazi beharko litzateke, eta aztertu ea komeni den kudeaketa bereizia egitea. Naturala izanez gero, taxona kaltebera denez, ez dago baieztazterik estatus hori EAEn duenarekin bat datorrenik. KEBaren kasuan, oraintsu agertu izanak esan nahi lezake, agian, leheneratze-bidean dagoela populazioa, aleak oso urriak izanagatik. Hala, oso populazio desegokia duen espezieztat jo dugu. Hartzen duen azalera ez da zabala, baina habitata bera urria denez, banaketari egoki iritzi lekiok, eta ekologiarekiko koherente.

Habitata, ordea, desegokia da, sistemak pairatzen duen giza presioaren ondorioz. Hala ere, gaur egun okupazio txikia izateak eta inguruan beste duna-sistema batzuk egoteak, gutxienez desegokiak ez diren etorkizuneko aurreikuspenak izatea ekar lezakete, betiere babes zorrozpean atxikiz gero habitat horiek.

Etorkizunerako aurreikuspenak ezezaguntzat jo dira *Suaeda* zein *Herniaria*ren kasuan, bai eta *Honckenia peploides*en kasuan ere. Azken horrek oso duna antropogenoekiko lotura du, eta hori ez da, inondik ere, haren populazioen egonkortasunerako inolako berme. Dena dela, espezie horien kontserbazio-egoera hobetzera bideratutako kudeaketak ezin argiago lagunduko du duna sortuberriek eta mugikorrek edo zuriak oro har kontserbatzen.

<b>Herniaria ciliolata</b>			
Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa		<b>Txarra</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	<b>Txarra</b>	<b>Desegokia</b>	<b>Ezezaguna</b>

**Honckenia peploides**

EAEn, oro har, taxon bakana izanik, «kaltebera» izendatu dute. KEBaren barruan lehenago Zerrenda Gorrian aipatu gabeko toki batzuetan aurkitu dituzte populaziotxo batzuk, hala nola San Antongo betelanean, non ale dezente multzoak aurkitu baitira, segur aski iparraldetik (Laidatik) iritsitako propaguluen ondorengoak (aipatutako argitalpenean iradoki bezala).

KEBeko hondartzetan barrena izan den dispertsioak banaketa egokitzen hartzeko aukera eskaintzen du, nahiz eta, aurreko kasuan bezala, etorkizunerako aurreikuspenak ez diren zeharo onak. Izan ere, sartzeko libre diren hondartzetan agertzeak, urteroko landare izatearekin batera, auresan ezineko fluktuazioak pairatzea ekarriko dio.

<b>Honckenia peploides</b>			
Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa		<b>Desegokia</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	<b>Desegokia</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Desegokiak</b>

**Lavatera arborea**

Itsasertzean bertan baizik ez da ageri *Lavatera arborea* KEBean, labarrei lotutako eremu harkaiztsuetan, betiere itsas hegaztien koloniek lotuta. «Labarrak» gako elementuari lotuta ageri da, nahiz eta hartako puntu bakan batzuetan baino agertu ez.

Nahiz eta Zerrenda Gorrian *Lavatera arborea* zortzi tokitan bizi dela esan den, Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBean eta Gaztelugatxeko Donienekoan baino ez da aipatu. Ezin izan da egiaztatu azken KEBean bizi denik; haatik, Aketx oso toki potentzial probablea da, eta iraganean aipatua izan da bertan espeziea.

Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBeko *Lavatera arborea*ren populazioen banaketa eta habitata egokiak dira. Azken horren kondizio ekologiko xeheak, baina, KEB horretako puntu jakin batzuetan baizik ez dira betetzen. Oraingoz ezin izan da egiaztatu populazio potentzial horiek benetan existitzen diren; gainera ez dakigu zein den populazioaren goi-muga, ez eta hark gorabehera ziklikoak dituen ere.

<b>Lavatera arborea</b>			
Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa		Desegokia	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Aldekoa	Desegokia	Aldekoa	Aldekoak
Gaztelugatxeko Donieneko KEBa		Ezezaguna	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Ezezaguna	Ezezaguna	Ezezaguna	Ezezaguna

<b>Salicornia ramosissima</b>			
EAEn, oro har, taxon urria da; horregatik izendatu dute «Kaltebera». Eskura dagoen kartografia puntualen arabera, banaketa egokia da, eta zenbait populazio hauteman dira KEBean, non paduretako komunitate aitzindarienetan ageri den. Nolanahi ere, espeziea urterokoa denez, ahiz eta kartografia puntuala izan, banaketa jakin horiek ezer gutxi balio dute egungo banaketa zein den jakiteko, iraganeko kontua baitira.			
Populazioaren egoerari egoki iritzi diogu, halaber habitatari, ez baitu espeziearen aurka egin lezaketen eraldaketa-elementurik ageri. Etorkizunerako aurreikuspen ezagunak onak dira, hiru babes-figura desberdinek hartzen duten tokian bizi denez.			
Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa		Aldekoa	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Aldekoa	Aldekoa	Aldekoa	Aldekoak

<b>Suaeda albescens</b>			
Taxon bakana da, eta EAEn bi estuariotan baizik ez da bizi, Urdaibain eta Barbadunen. Dena dela, Urdaibain duen banaketa eta habitata egokiak dira. Banaketa hori, neurri batean, estuarioaren erdiko hondartzekin dago lotuta. Paradoxikoki, izan ere, inguru hori nahiko artifiziala baita, sedimentazio-kondizioak eraldatu izanaren ondorioz sortua.			
Populazioaren tamaina, ordea, desegokitzat jo dugu, urritasunagatik eta egindako prospekzioetan nekez hauteman delako. Aurreikuspenak, neurri batean, onak direla esan liteke, baina ezezaguntzat joko ditugu, dunaren eta paduraren arteko trantsizioan bizi baita espeziea, eta egoera hori oso kolokan baitago.			
Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa		Desegokia	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Aldekoa	Desegokia	Aldekoa	Ezezaguna

<b>Armeria euscadiensis</b>			
Bi populazio interesgarri ditu <i>Armeria euscadiensis</i> ek Matxixako inguruan, ia nukleo bakartzat har litezke biak, elkarren jarraian baitaude. Eremu horren zati txiki bat besterik ez dago bi KEBen mugen barruan. Populazio horren kontserbazio-egoeraren diagnostikoa populazio osoarenaren pronostiko bera da.			
Habitata egokia da, prospekzioetan hauteman denez, eta horrek eragin ona du populazioan eta banaketan. Etorkizuneko aurreikuspenak ere egokiak direla esan liteke, azpipopulazio biek etekina ateratzen baitiote gutxienez bi babesguneren, inoiz hiruren, zati izateari.			

<b>Armeria euscadiensis</b>			
Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa		Aldekoa	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Aldekoa	Aldekoa	Aldekoa	Aldekoa
Gaztelugatxeko Donieneko KEBa		Aldekoa	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Aldekoa	Aldekoa	Aldekoa	Aldekoa
<b>Baldintzagarriak</b>			
<b><i>Chamaesyce peplis, Festuca vasconensis eta Medicago marina</i></b>			
<p>Funtsean habitat egokiaren eskuragarritasun urria eta hari lotutako erabilera publikoa dira. Halaber da baldintzagarria iraungipen-mekanismoak nolakoak diren zehatz ez jakitea, espezie hauek pairatzen dituzten eragin esanguratsueni dagokienez.</p>			
<b><i>Matricaria maritima subsp. maritima, Sonchus maritimus subsp. maritimus eta Zostera noltii</i></b>			
<p><i>Matricariaren</i> habitat potentziala oso ondo definituta dago, baina «kolokan» egon liteke, inguru antropizatueta baitago. Populazioak pilatzen diren eremuak gizakiak sortuak dira, argi eta garbi. Populazioa oso oso txikia da, tokian iraungitzeko arriskua, beraz, oso handia da.</p> <p><i>Sonchusen</i> habitat potentziala nahiko espezifiko da; kondizio zehatzak, ordea, egiatan espezializatuak. Gaur egun, Foruko populazioaren egoera ezezaguna denez –behin eta berriro miatuagatik, ez da alerik aurkitu–, tokian iraungita egotetik oso gertu legoke espeziea.</p> <p><i>Zosteraren</i> baldintzagarriei dagokienez, berriz, 1140 habitataren mareartekoan eta 1130-1110 habitaten mareaz azpikoan egiten diren jarduerekin, hala nola itsaski-bilketarekin, partekatzen du bizilekua. Horrengatik hautatu da haren habitat nagusia, 1140, kudeatzeko gako elementu (ikusi habitatei lotutako gako elementuak). Ura benetan arazten ez den bitartean, haren poluzio-karga ere baldintzagarria izango da. Horrez gain, estuarioaren kondizio hidrodinamikoei egiten zaizkien kalteek (dragaketek, esaterako) ere ez diote, oro har, mesederik egiten espeziea ezartzeari, ura bizkorregi mugitzen den tokiak saihesten baititu.</p>			
<b><i>Olea europea subsp. oleaster</i></b>			
<p><i>Olearen</i> habitat potentziala Ogoñoko kareharrizko kaskoan ageri da, oso inguru galkorrean, izan ere. Alekopuru txikiak, gainera, kondizio ekologiko zailekin batera, mugatu egiten du espeziea agertzeko aukera.</p>			
<b><i>Herniaria ciliolata, Honckenya peploides, Salicornia ramosissima eta Suaeda albescens</i></b>			
<p><i>Herniaria ciliolata</i> espeziearen habitat potentziala dunak dira, dela sortuberriak, dela duna mugikor edo zuriak (2110 eta 2120 zenbakidun habitatak). <i>Honckenya peploidesen</i> habitat potentziala hondarra eta dunak dira, eta hondartzako begetazioaren zerrendan (<i>Cakiletea maritima</i>, Direktibako habitat lehenetsi ez dena edo, gehienez ere, interpretatzeko eskuliburuak dioen moduan, 2110 duna primariotzat har litekeena) nahiz berezko duna primarioan ageri da.</p> <p>Populazioak pilatzen diren guneak, gizakiak sortuak edo mantenduak argi eta garbi, dira baldintzagarriak; hori dela eta, ez dago aurreikusterik norainokoa izango den haren berezko eboluzioa (<i>Honckenyaren</i> kasuan, oso ugaria izaten da urte jakin batzuetan, eta desagertu egiten da, berriz, bestetan). Azkenik, dunen erabilera publikoak, gaur egungo egoeran, desagertzeko mehatxu handia dakarkie espezie hone-tako populazio galkorrei.</p> <p><i>Salicornia ramosissima</i> eta <i>Suaeda albescens</i> kasuan gaur egun habitata ez izanik mugatzailea, bigarren espeziearen kasuan behintzat etorkizunerako aurreikuspenak dira mugatzaileak, haren habitata eraldaketa paira bailezake beste habitaten kontserbazio-ekintzen ondorioz. Halaber izan liteke <i>Salicornia</i>-ren kasuan baldintzagarria itsaski-biltzaileen presioa; horren munta ezezaguna da.</p>			



<b><i>Lavatera arborea</i> eta <i>Armeria euscadiensis</i></b>	
<p><i>Lavatera arborea</i>ren badintzagarrriak ekologikoak dira, oso beharrian konkretuak baititu. Halaber hartu da baldintzagarriztat itsas hegaztien kolonien gehiegizko presioa, haren garapenari nolabaiteko faktore mugatzaile bat ezarriko ote dion ere. Eta baldintzagarrria da, orobat, hegaztiak bizi diren lekuetan bizi beharra, horrek, neurri batean, espeziearen iraunkortasuna hegaztien presentziari lotzen baitio. Hori dela eta, gogoratzekoa da 2008. urtean <i>Bermeoko Izaro uharteko landare-estalkia berreskuratzeko proiektua</i> ipini zutela abian Lurgaia Fundazioak eta Bermeoko udalak, bi espezie mehatxaturen egoera hobetzeko: koartzatxo zuria (<i>Egretta garzetta</i>) eta <i>Lavatera arborea</i>.</p> <p><i>Armeria euscadiensis</i>, aurkitu izan den tokietan, nahiko ugaria dela esan liteke. Espeziearen ohiko banaketa geografikoa, izan ere, kudeaketa egiteko eremu garrantzitsua da, lehendik ere badirelako bertan kontserbatu nahiz hobetu beharreko hainbat habitat eta taxon berezi.</p>	
<b>Helburuak eta neurriak</b>	
<b>X.16-28 xedea</b>	<p><b><i>Chamaesyce peplis</i>, <i>Festuca vasconensis</i> eta <i>Medicago marina</i></b> Taxonak ostatatzeako kondizioak atxikitzea, haien habitata –duna-sistemak eta hondartzako landare-ertza– kontserbatuz eta sustatuz, bai gaur egungo berreskuratze-programen bidez, bai eremuaren gainerako lekuetan egotea errazten duten elementuak zainduta. <b><i>Matricaria maritima</i> subsp. <i>maritima</i>, <i>Sonchus maritimus</i> subsp. <i>maritimus</i> eta <i>Zostera noltii</i>:</b> espezieen gaur egungo populazio-kondizioak atxikitzea, bereziki <i>Sonchus</i> eta <i>Matricaria</i>ri dagokienez, eremutik desagertzeko arrisku bizian baitaude. <b><i>Olea europea</i> subsp. <i>oleaster</i>:</b> Uneko populazio-kondizioak hobetzea, dagoeneko daudenen ezaugarri genetiko bereko aldaxka eta landare gazteak lortzea sustatuz. <b><i>Herniaria ciliolata</i>, <i>Honckenia peploides</i>, <i>Salicornia ramosissima</i> eta <i>Suaeda albescens</i>:</b> populazio egonkorak atxikitzea eta haien bilakaera monitorizatzea, oraingo banaketa-eremuetan zein KEBaren barruko antzeko beste batzuetan. <b><i>Lavatera arborea</i> eta <i>Armeria euscadiensis</i>:</b> populazioak egonkor atxikitzea labarretako ekotipoaren kasuan gutxieneko balio onargarri baten eta gehienezko balio baten artean. Dagoeneko ezaguna den tokietatik kanpo izan lezaketen banaketa zein den ahal den neurrian jakitea.</p>
<b>E.16-28.1 emaitza</b>	<b>Taxonen presentzia eta potentzialtasuna ebaluatuko da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>N.16-28.1.1.</b> Espezie hauek guztiak Urdaibaiko eta Gaztelugatxeko itsas ertzeko eta paduretako KEBetan bizi diren eta non bizi diren ahal bezain zehatz jakitea.</p> <p><b>N.16-28.1.2.</b> <i>Armeria euscadiensis</i> eta <i>Lavatera arborea</i>ren populazioen muntak eta banaketak zer bariazio duten jakitea. Espezie horiek pairatzen dituzten kalteak egiaztatzea eta horiek leuntzeko neurri egokiak zein diren argitzea.</p> <p>Halaber da aplikagarria Gidalerro hau: <b>G.3.2</b></p>
<b>E.16-28.2 emaitza</b>	<b>Taxon horientzat habitat egokia egongo dela bermatuko da (taxonen eta haien habitaten taulan ageri da batzuen eta besteen arteko lotura).</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>N.16-28.2.1.</b> Itsaski-bilketak <i>Salicornia ramosissima</i> eta <i>Zostera noltii</i>ren populazioei nola eragiten dien ebaluatzeako eta hura bi espezieen kontserbazioarekin bateratzeko moduko neurriak definitzeko azterlan bat egitea.</p> <p><b>N.16-28.2.2.</b> Itsas ertzean eta paduran kontserbatu beharreko landare-espezieak non dauden eta horiek zein horiei lotutako habitatek zer-nolako garrantzi ekologikoa duten azaltzen duten ohol informatiboak egitea eta ezartzea.</p> <p>Halaber dira aplikagarriak Gidalerro eta Arau hauek <b>G.3.3, G.3.4, G.3.5, G.9.3, A.5.1</b> eta <b>A.5.3</b></p>

<b>E.16-28.3 emaitza</b>	<b>Taxonak hedarazteko protokolo bat diseinatuko da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>N.16-28.3.1.</b> Espezie kalteberen, eta arriskuan eta arrisku larrian daudenen kasuan, hedapen potentzialeko eremuak identifikatzea eta eskualdeko material genetikoetatik abiatuta leheneratzeko eta hedarazteko protokoloa definitzea.</p> <p><b>N.16-28.3.2.</b> Arrisku larrian dauden espezieen kasuan –<i>Chamaesyce peplis</i>, <i>Festuca vasconensis</i> eta <i>Medicago marina</i>–, berriz ezartzeko protokolo bat diseinatzea, bereziki espezieak berriro aipatzen badira.</p>
<b>E.16-28.4 emaitza</b>	<b>Taxon guztien garrantzia zabalduko da eta galdutako, galtzeko arriskuan nahiz galtzeko arrisku larrian dauden taxonak bizkor hautematea erraztuko da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<b>N.16-28.4.1</b> Espezie hauek eta beren habitatek biodibertsitatea kontserbatzeko duten garrantzia islatzen duten dibulgazio-materialak prestatzea eta gizarteak horiek ezagutzea sustatzea.

## GEM 29.– ARTADIKO FLORAKO GAKO ELEMENTUAK *Taxus baccata*

### GE 29.– *Taxus baccata*

Eskualde mailako intereseko taxona. Hagina

Espeziea	Gaztelania	Euskara	(Habitaei buruzko Direktiba)	EAEko katalogoa	Liburu gorria
<i>Taxus baccata</i>	Tejo	Hagina	-	IB	AT

#### Egungo egoera

EAEko Flora Baskularraren Zerrenda Gorrian esaten denaren arabera arriskuan ez dagoen taxona izanik, beste sailkapen batzuetan «Interes bereziko» izendatua da; halakoetan, bizi den baso-sailetan duen esangura ekologikoagatik aitortu zaio garrantzia. Artadiaren barruan dagoela, haren fazies edo forma zahartu bat dela ulertzen da; dagoen basoari egitura-dibertsitatea zabaltasun ekologikoa dakarkio.

Populazio txikia du, gehienez ere hamarka oin bakar batzuek osatua, eta banaketa ondo desegokia da. Ia ez dago alerik kareharrizko kaskoetako ekialdeko magaletan, batez ere Urdaibaiko Artadi Kantauriarren KEBaren hego-ekialdean.

Habitata, ordea, egokitzen har liteke, espeziea garatzeko moduko malda laiotz zabal eta ireki ugari baitago.

KEBaren eremuaren barruko etorkizunerako aurreikuspenak onak dira, KEBaren barruan arauketa indarrean dagoenez; hala ere, espezieak aurrera egiteko duen zailtasuna dela eta, auzitan jartzen du berreskuratzea, ugalketa artifizia, izan ere, zaila baita.

<i>Taxus baccata</i>			
Urdaibaiko kantauriar artadien KEBa		Desegokia	
Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
Desegokia	Desegokia	Aldekoa	Aldekoak

#### Baldintzagarriak

Habitat potentzialagatik espezie produktiboekiko lehia dago. Espeziearen hazkundera eta garapena oso motela da.

Helburuak eta neurriak	
<b>X.29 xedea</b>	<b>Hagin-populazio egonkorak atxikitzea, gaur egungo nukleoak sendotuta eta haien garapenari lagunduta.</b>
<b>E.29.1 emaitza</b>	<b>Oraingo populazioak kontserbatuko direla bermatuko da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	N.29.1.1. <b>Urdaibaiko Artadi Kantauriarren KEBan dauden hagin inbentarioa egitea.</b> <b>Halaber dira aplikagarriak Gidalerro eta Arau hauek:</b> G.2.9, G.3.2, G.6.8, A.2.3, A.2.4 eta A.5.1
<b>E.29.2 emaitza</b>	<b>Haginak taxon gisa zein ekosistemaren elementu gisa duen garrantzia dibulгатuko da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<b>N.29.2.1.</b> Taxonaren balio ekologiko eta kulturalen inguruko dibulgazio-materiala prestatzea, artadia, baso mistoa eta hariztia biltzen dituen estrategia baten barruan.

## FAUNA

### GE 30.- *Austropotamobius pallipes*

EB mailako intereseko taxona (1092). Ibai-karramarro arrunta

Espezia	Gaztelania	Habitatei buruzko Direktiba	EAEko katalogoa	Espainiako katalogoa	Liburu gorria	Bernako Hitzarmena	42/2007 legea
<i>Austropotamobius pallipes</i>	Cangrejo autóctono	II/V	-	Kaltebera	Kaltebera	III	II/VI

### Egungo egoera

1960ko eta 70eko hamarkadetan espeziaek Iberian jasan zuen hondamendiaren ondoren, gaur egun «kaltebera» izendatuta dago penintsula osoan.

Urdaibaiko Ibai Sareko KEBaren barruko banaketa orokorra puntuala da. Aintza hartuta, horrez gain, banaketa-eremu potentziala eremu babestuko ibai-sare osoa edo ia osoa dela, banaketa-eremu erreala-aren balorazioa txarra da. Ez dago populazioaren kalkulurik.

KEBeko ibai-sarearen habitata egokia da uraren kalitateari eta haren ezaugarri fisiko-kimikoei dagokienez. Amerikatik ekarritako bi espezia aloktonoek (*Procambarus clarkii* karramarro gorriak eta *Pacifastacus leniusculus* seinaledun karramarroak) transmititzen duten gaixotasun fungikoak berean irautea da arrisku-faktorea. Bigarren espezia aloktonoaren hedatzea azken urteetan sustatu izan da bertako espezie-arekiko ahaidetasun ekologiko handia zuelakoan. Hemengoak bezain ur epel-hotzetan, ordea, karramarro gorriak berak baino arrisku handiagoa du espezia honek izurria zabaltzeko (Ramos *et al.*, 2001). Espeziearen habitata, beraz, desagokitzat jo da. Egoera horrela, Urdaibaiko Ibai Sarean karramarro aloktonoen populazioek bizirik dirauten bitartean, etorkizunerako aurreikuspenak txarrak izango dira, are txarragoak bereziki zaila izanik partikularrek zeinek bere aldetik eta kontrolik gabe egiten dituzten translokazio puntualak gelditzea.

#### *Austropotamobius pallipes* - 1092

Urdaibaiko ibai-sarearen KEBa		Txarra	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Txarra</b>	<b>Ezezaguna</b>	<b>Desegokia</b>	<b>Txarrak</b>

Baldintzagarriak	
Espeziearen uneko egoera zailari gehitu behar zaio karramarro-espezie aloktono inbaditzaileek bizirik dirautela eremuan, eta partikularrek translokazioak egiteko arriskua ere badela. Aldeko puntu moduan, berriz, aipa liteke bertako espeziearekin translokazioak egitea, populazio berriak sortzearen, eta ehiza eta arrantza zerbitzuko basozainak ere hor daudela.	
Helburuak eta neurriak	
<b>X.30 xedea</b>	<b>Ibai-karramarro arruntaren gaur egungo populazioak kontserbatzea eta banaketa-azalera handitzea.</b>
<b>E.30.1 emaitza</b>	<b>Urdaibaiko ibai-karramarro autoktono zein aloktono guztien egungo banaketa zein den jakingo da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<b>N.30.1.1.</b> Oka ibaiaren UHko ibai-karramarroen banaketa sei urtetik behin aztertzea, UHan barrena dauden laginketa-estazioetan espezie autoktonoaren eta aloktonoen populazioen bilakaera argitzeko eta habitataren nahiz espezieen gaineko esku-hartze neurriak xedatu ahal izateko.
<b>E.30.2 emaitza</b>	<b>Espeziearen banaketa-azalera handituko da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<b>N.30.2.1.</b> Espeziea ibai-sarean barrena hedatzeko translokazio-plan bat diseinatzea. Horretarako aintzat hartuko dira espeziearen banaketari buruzko azterketak eta habitataren gaitasuna ibai-karramarro aloktonorik dagoen ala ez kontuan izanda, halaber baso-igel iberiarrik ez egotea eta errehaburuetan gehiegizko ur-hartunerik ez egotea baldintza moduan hartuta.
<b>E.30.3 emaitza</b>	<b>Eragotzi egingo da espezie aloktonoen (<i>Pacifastacus leniusculus</i> eta <i>Procambarus clarkii</i>) populazio berriak sortzea eta ibai-karramarro arruntaren eremuetara zabaltzea.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<b>N.30.3.1.</b> Ibai-karramarro autoktonoa bizi dela egiaztatu den ibai-zatietatik behera urtean bi aldiz egingo dira laginketak, bi helbururekin: espezieak zati berriak kolonizatu dituen egiaztatzea, eta, espezie aloktonoek erreka kolonizatu badute, lehenbailehen hautematea.  Gidalerro eta Arau hauek dira aplikagarriak: <b>A.10.3 eta NA.18-19.2.1</b>
<b>E.30.4 emaitza</b>	<b>Amerikako karramarro gorriak eta seinaledun karramarroak <i>Austropotamobius pallipes</i> egiten dioten kaltea ezagutaraziko da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	Halaber dira aplikagarriak neurri hauek: <b>NA.18-19.3.1 eta NA.18-19.3.2</b>

### GE 31.– *Elona quimperiana*

EB mailako intereseko taxona (1007). Quimperko barraskiloa

Espeziea	Gaztelania	Habitategi buruzko Direktiba	EAEko katalogoa	Espainiako katalogoa	Liburu gorria	Bernako Hitzarmena	42/2007 legea
<i>Elona quimperiana</i>	Caracol de Quimper	IV	-	-	-	-	V

Egungo egoera			
<p>Europar zeharo babestuta dagoen moluskua da Quimperko barraskiloa. Lur karstikoen gaineko basoetan harkaitzetako zirrikituetan bizitzera egokitutako espeziea da, alegia, Urdaibaiko Artadi Kantauriarren KEBaren daudena bezalakoetan. Habitata egokia dela jo da (Ramos <i>et al.</i>, 2001).</p> <p>Espezieak pairatzen duen mehatxu nagusia da habitat naturalaren galera, presio turistikoek eta urbanizazio-prozesuak eragindako paisaiaren urraketaren ondorioz (Ramos <i>et al.</i>, 2001). Urdaibaiko Artadi Kantauriarren KEBaren gainean halako mehatxurik ez dagoenez, etorkizunerako aurreikuspenak onak direla jo da.</p> <p>Haatik, habitata zein etorkizunerako aurreikuspenak onak izanagatik ere, espeziearen banaketari eta populazioari buruz ezer gutxi dago argi, eta, beraz, KEBaren barruan zer kontserbazio-egoeratan dagoen ez dago definitzerik, eta ezezaguna dela adierazi da.</p>			
Elona quimperiana -1007			
Urdaibaiko kantauriar artadien KEBa		Ezezaguna	
Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
Ezezaguna	Ezezaguna	Aldekoa	Aldekoa
Baldintzagarriak			
<p>Bereziki kontrakoa den baldintzagarriak ez da deskribatu. Aldekotzat jo daitezkeen elementuen artean, berriz, badira une hauetan espazioa kontserbatzera, bertako basoa sustatzera eta egurra saltzeko mozketak murriztera bideratutako ekintzak.</p>			
Helburuak eta neurriak			
<b>X.31 xedea</b>	<b>Banaketa hobeto ezagutzea eta populazioaren jarraipena egitea.</b>		
<b>E.31.1 emaitza</b>	<b>Elona quimperianaren KEB barruko banaketa zein den jakingo da eta populazioen jarraipena egiteko sistema bat ezarriko da.</b>		
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<b>N.31.1.1.</b> KEB barruko banaketa aztertzea eta hainbat populazio aukeratu sei urtetik behin analizatzeko.		

### GE 32.- *Euphydryas aurinia*

EB mailako intereseko taxona (1065). Zingira dontzeila.

Espeziea	Gaztelania	Habitatai buruzko Direktiba	EAEko katalogoa	Espainiako katalogoa	Liburu gorria	Bernako Hitzarmena	42/2007 legea
<i>Euphydryas aurinia</i>	Doncella de ondas rojas	II. eranskina	-	-	-	-	II. eranskina

Egungo egoera
<p><i>Euphydryas aurinia</i>, zingira-dontzeila, baso-lepidoptero bat da, ondo kontserbatutako oihanpea, larbafasean janari dituen aihen-landareez betea, behar duena (Galante eta Verdú, 2000); hala egoki iritzi zaio Urdaibaiko Artadi Kantauriarren KEBaren eskura duen habitatari.</p> <p>Urdaibaiko Artadi Kantauriarren KEBaren barruan zingira-dontzeilak duen banaketari eta populazioari buruz, bestalde, apenas dago informaziorik, eta ezinezkoa da, beraz, balorazio bat egitea.</p> <p>Urdaibaiko Artadi Kantauriarrek oso oihanpe aberatsa dutenez, tximeleta honen etorkizunerako aurreikuspenak onak direla jo da. Haatik, esandako datuak urriak direnez ez do argitzerik zer egoera ekologikotan dagoen atertutako eremuan.</p>

<b>Euphydryas aurinia-1065</b>			
Urdaibaiko kantauriar artadien KEBa		Ezezaguna	
Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
Ezezaguna	Ezezaguna	Aldekoa	Aldekoa
<b>Baldintzagarriak</b>			
Galantek eta Verdúk (2000) adierazi dutenez, aihen-landarez elikatzen denez, basolanek, oro har, eta oihanpea eta sasiak kentzeak bereziki, espezieak jasaten dituen mehatxu nabarmenenak dira. Aldekotzat jo daitezkeen elementuen artean, berriz, badira une hauetan espazioa kontserbatzera, bertako basoa sustatzera eta egurra saltzeko mozketak murriztera bideratutako ekintzak.			
<b>Helburuak eta neurriak</b>			
<b>X.32 xedea</b>	<b>Banaketa hobeto ezagutzea eta populazioaren jarraipena egitea.</b>		
<b>E.32.1 emaitza</b>	<b>Euphydryas auriniaren Urdaibai eta Gaztelugatxeko Donieneko esparruko banaketa zein den jakingo da eta populazioen jarraipena egiteko sistema bat ezarriko da.</b>		
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<b>N.32.1.1.</b> KEB barruko banaketa aztertzea eta hainbat populazio aukeratu sei urtetik behin analizatzeko.		

**GEM 33-34.- KOLEOPTERO SAPROXILIKO MEHATXATUAK**

Gako elementuen multzoa

**GE 33.- *Cerambyx cerdo***

EB mailako intereseko taxona (1088). Kaprikornio handia

**GE 34.- *Lucanus cervus***

EB mailako intereseko taxona (1083). Arkanbelea

Espezia	Gaztelania	Habitategi buruzko Direktiba	EAEko katalogoa	Espainiako katalogoa	Liburu gorria	Bernako Hitzarmena	42/2007 legea
<i>Cerambyx cerdo</i>	Gran capricornio de la encina	II/IV	-	-	KA	-	II/V
<i>Lucanus cervus</i>	Ciervo volante	II	-	-	-	III	II

<b>Egungo egoera</b>
<b><i>Cerambyx cerdo</i></b>
Habitat naturala zuhaitz heldu ugari kuertzineo-baso helduak ( <i>Quercus robur</i> , <i>Q. humilis</i> subsp. <i>pubescens</i> , <i>Q. faginea</i> ...) dituen koleoptero saproxiliko bat da artearen kaprikornio handia (Galante eta Verdú, 2000; Ugarte <i>et al.</i> , 2002). Beharrian ekologiko horiek izanda, harentzako habitat egokia eskaintzen du Urdaibaiko Artadi Kantauriarren KEBak.

EAEn barrena oso hedatuta dagoen koleopteroa da, ugari samarra izanik orain dela gutxira arte. Kuertzineo zaharrak etenik gabe mozteak hura urritzea eragin zuen (Ugarte *et al.*, 2002). Urdaibaiko lehen aipamenak 1996koak dira, Gernikako baso helduko azken hondar txikietan; halaber Bakion eta Mungian (Urdaibaitik mendebalderantz). 2005. urtean, UBeko kantauriar artadietako koleoptero fitofagoen azterketa egin zen, eta Ugartek (2005) argitaratu zuenez, «*espezie interesgarri honetako ale bat bera ere ez dugu aurkitu. Hala ere, begi-bistakoa da eskualdean bizi dela, haritz zahar bakanetan edota artadiaren ondoko harizti-hondarretan, zeinen enborretan ugari ageri baitira helduek haietatik irteteen utzitako zuloak*». Halaber dio autore horrek espeziearen populazioa areago aztertu behar litzatekeela eremuan, haren kontserbazio-egoera zein den finkatzeko. Beraz ezezagunak dira bai banaketa, bai Urdaibaiko Artadi Kantauriarren KEBaren barruko populazioa.

Etorkizunerako aurreikuspenei dagokienez, berriz, egokitzen hartu dira, betiere kuertzineo urtetsuak kontserbatuz gero (Galante eta Verdú, 2000; Ugarte, 2005). *Cerambyx cerdo* Urdaibaiko Artadi Kantauriarren KEBan duen populazioaren eta banaketaren gaineko datu nahikorik ez dagoenez, ezinezkoa da hemen haren kontserbazio-egoeraren balorazio zehatz bat egitea.

<b>Cerambyx cerdo-1088</b>			
Urdaibaiko kantauriar artadien KEBa		Ezezaguna	
Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
Ezezaguna	Ezezaguna	Aldekoa	Aldekoa

### Lucanus cervus

Kuertzineo-baso helduei (*Quercus robur*, *Q. humilis* subsp. *pubescens*, *Q. faginea*...) lotutako koleoptero saproxiliko bat da arkanbelea; haatik, edozein baso misto hostogalkorretan ere bizi daiteke, gaztainondo (*Castanea sativa*), pago (*Fagus sylvatica*), lizar (*Fraxinus excelsior*) eta bestelako espeziez osatuetan, alegia (Ugarte *et al.*, 2002); ez da *Cerambyx cerdo* bezain selektiboa, beraz. Espezieak Urdaibaiko Artadi Kantauriarren KEBan duen habitat potentzialari egoki iritzi zaio.

EAEn zabal banatutako intsektua da, ugari samarra, izan ere. Urdaibairi dagokionez, Ugartek (2005) Atxerreko eta Ereñozarko artadietan aurkitua du, Urdaibaiko Artadi Kantauriarren KEBaren barruan. Artadi osoan barrena eta hariztietan ondo banatuta egon liteke, segur aski, nahiz eta ez duen ematen populazioa oso handia denik.

Arkanbeleak Urdaibaiko Artadi Kantauriarren KEBan duen banaketari eta populazioari buruzko datu eskuragarriak hura osatzen duten bost eremuetatik bi baino (Atxerre eta Ereñozar) ez dituztenez aipatzen, ez dago eremu osorako balorazio zehatz bat proposatzerik, ez banaketa eta populazioaren gainean, ez kontserbazio-egoera globalaren gainean.

Espeziearen mehatxu moduan deskribatu izan direnei dagokienez, habitataren galera eta gehiegizko zatikatzea dira gailenak (Galante eta Verdú, 2000): hori dela eta, egokiak direla jo da espezieak Urdaibaiko Artadi Kantauriarren KEBan dituen etorkizunerako aurreikuspenak, betiere zuhaitz zaharrak babestuz gero eta hostogalkorren zur hila *in situ* usteltzen utziz gero (Ugarte, 2005).

<b>Lucanus cervus - 1083</b>			
Urdaibaiko kantauriar artadien KEBa		Ezezaguna	
Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
Ezezaguna	Ezezaguna	Aldekoa	Aldekoa

### Baldintzagarriak

Aldekotzat jo daitezkeen elementuen artean, berriz, badira une hauetan espazioa kontserbatzera, bertako basoa sustatzera eta egurra saltzeko mozketak murriztera bideratutako ekintzak. KEBaren barruan koleopteroak ikertzeko lanak finantzatu izan dira.

### Helburuak eta neurriak

X.33-34 xedea

**Habitata kontserbatzea, banaketa hobeto ezagutzea eta populazioaren jarraipena egitea.**

<b>E.33-34.1 emaitza</b>	<b><i>Cerambyx cerdoren</i> eta <i>Lucanus cervusen</i> Urdaibaiko eta Gaztelugaxteko Donieneko esparruko banaketa zein den jakingo da eta populazioen jarraipena egiteko sistema bat ezarriko da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<b>N.33-34.1.1.</b> KEB barruko banaketa aztertzea eta hainbat populazio aukeratu sei urtetik behin analizatzeko.
<b>E.33-34.2 emaitza</b>	<b>Aleak babestu eta habitata kontserbatu egingo da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	Gidalerro eta Arau hauek dira aplikagarriak: <b>G.4.1 eta A.5.4</b>

**GEM 35-38.– ODONATU MEHATXATUAK**

Gako elementuen multzoa

**GE 35.– *Oxygastra curtisii***

EB mailako intereseko taxona (1041)

**GE 36.– *Coenagrion mercuriale***

EB mailako intereseko taxona (1044)

**GE 37.– *Brachytron pratense***

Eskualde mailako intereseko taxona

**GE 38.– *Onychogomphus uncatus***

Eskualde mailako intereseko taxona

Espezia	Gaztelania	Habitaei buruzko Direktiba	EAEko katalogoa	Espainiako katalogoa	Liburu gorria	Bernako Hitzarmena	42/2007 legea
<i>Oxygastra curtisii</i>	Libélula	II/IV	-	KA	AR	-	II/V
<i>Coenagrion mercuriale</i>	Caballito del diablo. Señorita	II/IV	-	-	KA	-	II
<i>Brachytron pratense</i>	Libélula	-	-	-	AR	-	-
<i>Onychogomphus uncatus</i>	Libélula	-	-	-	KA	-	-

**Egungo egoera (batera deskribatzen da)**

«*Oxygastra curtisii* (Dale, 1834) (Insecta: Odonata: Corduliidae) en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai. Estudio de las poblaciones y medidas de conservación de una libélula de interés comunitario. Primera y segunda fase» (Pagola eta Maguregi, 2008, 2009) da Urdaibain odonatu-komunitateari buruz egin den ikerketarik berriena eta espezifikoa.

*Oxygastra curtisii* espeziara mugatutako azterketa berriagoetan, egiaztatu ahal izan da Oka ibaian eta haren ibaiadarretan (Ajangiz-Gernikako ibarrean) ugaldtu egiten dela. Gaur egun horixe dugu EAEko populazio ugalkor ezagun bakarra. Urdaibai barruan, babestu beharreko oso odonatu-komunitate berezi batekin batera ageri da *Oxygastra curtisii* (Pagola eta Maguregi, 2009).

Potentzialtasun handieneko eremura mugatu da azterketa hau; beraz, haren banaketa-eremu etenaren jakintza partziala da nahitaez, eta desegokia dela jo da. Populazioaren berri nahiko berriki izan bada ere, eta beraz ezin denez joera argirik definitu, puntu jakin batzuetan ugaria eta egokia dela ikusi da.



Habitat-behar zorrotzak ditu espezieak: errekasto txikien zati geldiak, ertzetan haltzadia eta landa-lurrak dituztenak. Oso urria da habitat hori Urdaibain, haran-hondoak oso eraldatuta eta urbanizatuta baitaude. Horrez gain, nekez sor daiteke berariaz, eta nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak bertan behera uzteko arriskua dago inguruko landa-lurretan. Hori guztia dela eta, habitata «desegokitza» jo da Urdaibaiko Ibai-sarearen KEB osoan. Azkenik, ezer gutxi da jakina odonatu-espezie horien guztien etorkizuneko aurreikuspenei buruz.

Urdaibaiko populazio-nukleo nagusia (Ajangiz, guztizkoaren erdia baino gehiago), odonatuen dibertsitatearen *hotspots* dela esan liteke, interes handiko beste espezie batzuk ere bizi baitira bertan, hala nola *Coenagrion mercuriale* (Charpentier, 1840), hau ere Habitategi buruzko direktibaren II. eta IV. eranskintan bildua. Espezie horietarako guztietarako ezezaguntza jo da kontserbazio-egoera.

<b><i>Oxygastra curtisii</i> - 1041</b>			
Urdaibaiko ibai-sarearen KEBa		Desegokia	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Desegokia	Aldekoa	Desegokia	Ezezaguna
<b><i>Coenagrion mercuriale</i> - 1044</b>			
Urdaibaiko ibai-sarearen KEBa		Ezezaguna	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Ezezaguna	Ezezaguna	Aldekoa	Ezezaguna
<b><i>Brachytron pratense</i></b>			
Urdaibaiko ibai-sarearen KEBa		Ezezaguna	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Ezezaguna	Ezezaguna	Aldekoa	Ezezaguna
<b><i>Onychogomphus uncatus</i></b>			
Urdaibaiko ibai-sarearen KEBa		Ezezaguna	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Ezezaguna	Ezezaguna	Aldekoa	Ezezaguna

### Baldintzagarriak

Azken datuek iradokitzen dute Oka ibaiaren ibarrean oso odonatu-aberastasun handia egon litekeela, eta ospe handiko entomologoek bertako ibai-zatien zorrotz babestearen eta inguru hurbil eta ertaineko egoera atxikitzearen alde egin dute (Pagola Carte eta Maguregi Arenaza, 2008; mapa).

Espezie hauek pairatzen dituzten mehatxuak direla eta, Pagolak eta Maguregik (2008 eta 2009) hainbat gomendio egin dute, gerora kontserbazio-neurriak proposatzeko unean aintzat hartu izan direnak.

### Helburuak eta neurriak

<b>X.35-38 xedea</b>	<b>Kontserbatzeko interes handiena duten odonatuen populazioa kontserbatzea, banaketa hobeto ezagutzea eta populazioaren jarraipena egitea.</b>
<b>E.35-38.1 emaitza</b>	<b>Urdaibain kontserbatzeko interes handiena duten odonatuen populazioa zein den jakingo da eta populazioen jarraipena egiteko sistema bat ezarriko da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<b>N.33-38.1.1.</b> KEB barruko banaketa aztertzea eta hainbat populazio aukeratu sei urtetik behin analizatzeko.
<b>E.35-38.2 emaitza</b>	<b><i>Oxygastra curtisii</i>ren habitata babestuko da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	Gidalerro eta Arau hauek dira aplikagarriak: <b>G.6.9, G.6.10 eta A.6.7</b>

**GEM 39-42.- IKTIOFAUNA INTERESGARRIA**

Gako elementuen multzoa

**GE 39.- *Anguilla anguilla***

Eskualde mailako intereseko taxona. Aingira

**GE 40.- *Salmo trutta***

Eskualde mailako intereseko taxona. Amuarrain arrunta

**GE 41.- *Chondrostoma toxostoma***

EB mailako intereseko taxona (1126). Loina txikia

**GE 42.- *Barbatula barbatula***

Eskualde mailako intereseko taxona Mazkarra (lotxa)

Espezia	Gaztelania	Euskara	Habitategi buruzko Direktiba	EAEko katalogoa	Espainiako katalogoa	Liburu gorria	42/2007 legea
<i>Anguilla anguilla</i>	Anguila	Ibai aingira	-	-	-	KA	-
<i>Salmo trutta</i>	Trucha común	Ibai amuarraina	-	-	-	KA	-
<i>Chondrostoma toxostoma</i>	Madrilla	Loina txikia	II	-	-	-	II
<i>Barbatula barbatula</i>	Locha de río	Mazkar arantzagabea	-	-	-	KA	-

**Egungo egoera*****Anguilla anguilla***

Espezia hau katadromoa da. Angula-fasean ibaietan gora egiten du, eta horietan igarotzen du bere bizi-zikloaren zati luzeena. Zilar-aingira bilakatuta, itsasoratu egiten da berriz, han ugaltzeko. Aingira da analizatu diren EAEko ibai-arro guztietan iraungi ez den espezia migratzaile bakarra (AZTI-Tecnalia *et al.*, 2008).

Gaur egun Urdaibaiko eremuko ibaietako arrain-komunitateen elementu garrantzitsua izanagatik, ezer gutxi dakigu haren populazioaren tamainari buruz, eta URA Agentziak egiten duen EAEko ibaien egoera ekologikoaren jarraipen-sareko laginketa-puntuen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren sare hidrologikoen emaitzak besterik ez dago eskura. Azken urteotan Oka ibaiaren hiru estazioetan aipatu da, Mapeko bi estazioetan eta Golako, Artigas eta Laga erreketako estazio banatan (Ondotek, UTE III, 2005tik 2008ra bitartean, AZTI-Tecnalia *et al.*, 2008). Urte batetik bestera aldaketa handiak izan ditu; hala ere, badirudi egonkor dagoela populazioa edota, agian, goranzko joera txiki bat duela.

Informazioa daukagun azken sasoiaren (2007), 8-46 ale bitarteko emaitzak lortu ziren laginketa-puntu bakoitzeko, dentsitatea 100 m<sup>2</sup>-ko 4 eta 59 ale bitartekoa izanik.

Oka ibaian, aingira-dentsitatea handiagoa da haranburuetako estazioetan. Mape ibaian, aldiz, bokaletik gertuen dagoen estazioan da handiagoa dentsitatea. Golako eta Artigas erreketan, berriz, estazio bakar bateko informazioa besterik ez dago, azkenekoan, hain zuzen.

Kudeaketa-planaren zirriborroan deskribatu diren mehatxu nagusiak dira uraren kalitatearen eraldaketa (hiri- eta industriaguneetako isuriak) eta migrazioari ezarritako oztopoak, espeziea eremu berrietara zabaltzea eragozten dutenak. Horren inguruan, Oka ibaiaren arroko gunek karstiko batzuk berez iritsezinak direla esaten da Plan horretan (Oma ibaia, esaterako). Halaber aipatzen dira gehiegizko arrantza, erregimen hidrikoaren eraldaketa, ibaiaren eta estuarioaren eraldaketa morfologikoak eta *Anguillicola crassu* nematodoaren bidezko parasitosisia. Ez dago espezie exotikoek eragindako kalteen berririk (Doadrio – Edit.–, 2001; AZTI Tecnalia et al., 2008).

Espezieak Urdaibaiko ibai-sarearen zati handi bat kolonizatuta baitauka, eta horko uraren kalitate ekologikoa ona denez estazio gehienetan, etorkizunerako espeziearen aurreikuspenak onak direla jo da.

<b>Anguilla anguilla</b>			
Urdaibaiko ibai-sarearen KEBa		Ezezaguna	
Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
Ezezaguna	Ezezaguna	Favorable	Favorables

### **Salmo trutta**

Ur gezatako arraina da amuarraina, eta Urdaibaiko ibai-sareko erreketan gora mugitu ohi da arrautzak erruteko toki egokien bila. Bizkaiko Foru Aldundiaren debekualdien aginduaren arabera, arrantzatu egiten da.

Amuarrainak Urdaibaiko ibai-sarean duen populazioari eta banaketari buruzko informazio eskuragarria urria da. Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, nekazaritza eta Arrantza saileko URA Agentziak egiten duen EAEko ibaien egoera ekologikoaren jarraipen-sareko laginketa-puntuak emaitzak besterik ez dago eskura (Ondotek, UTE III, 2005tik 2008ra bitartean).

Urdaibaiko ibai-sareko lau laginketa-estaziotan aipatu da: bi Oka ibaian (OK045 eta OK066), Golako ibaiko estazio batean (OKGO120) eta MAPE ibaiko beste batean (OKMA40). Harrapaketa-kopurua 1 eta 9 ale bitartekoa izan da, eta dentsitatea, berriz, 100 m<sup>2</sup>-ko 1-7 ale bitartekoa (Ondotek UTE II, 2007 eta 2008). Oka ibaiko estazioek ageri dute amuarrain-dentsitate handiena, 100 m<sup>2</sup>-ko 9 eta 4 ale bitarte izan baitute; Golako eta Mape erreketan, berriz, dentsitatea ale bakar batekoa besterik ez da 100 m<sup>2</sup>-ko.

Arrantzatzeko asmoz inguru naturalean nahita askatutako aleek eragin duten introgresio genetikoak, habitataren eraldaketa eta fragmentazioa eta erreken poluzioa (hiriguneek nahiz industriak isuritakoa) dira espezie honek pairatzen dituen mehatxu-faktore nagusiak; halaber aisia-arrantza eta espezie alokto-noak askatzea (Doadrio –Ed.–, 2001).

Aintzat hartuta esandako mehatxu horiek, Urdaibaiko ibai-sareko habitatari desegoki iritzi zaio amuarrainarentzat; alde batetik, ez baitago argi genetikoki aldatu gabeko amuarrain-populazio autoktonorik gelditzen den, eta bestetik, ibai-sarean 75 oztopo artifizial zenbatu direlako, horietatik 29 izanik 2 metro baino altuagoak. Bi faktore kaltegarri horiek batera eta aldi berean gertatzen ari direnez, etorkizunerako aurreikuspenak negatibotzat jo dira.

<b>Salmo trutta</b>			
Urdaibaiko ibai-sarearen KEBa		Desegokia	
Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
Ezezaguna	Ezezaguna	Desegokia	Desegokiak

### **Chondrostoma toxostoma**

Arrantzatu daitekeen ziprinido bat da loina txikia. Ur lasterrean zein urloan bizi da, betiere arrautzak egiteko toki bila ibaian gorako bidea libre baldin badu (Doadrio –Ed.–, 2001).

Gaur egun loina txikiak Urdaibaiko ibai-sarean duen banaketari eta populazioari buruzko informazio eskuragarri bakarra da EAEko ibaien egoera ekologikoaren jarraipen-sareko laginketa-puntuetan egin diren arrantza elektrikoko saioak (Ondotek UTE II, 2005tik 2008ra bitartean); beraz, ibai-sarearen gainerrako puntuetan duen estatusa ezezaguna da.

Loina txikiaren dentsitatea asko aldatzen da Urdaibaiko laginketa-puntu batetik bestera. Hala, Golako ibaiko OKGO120 estazioan dentsitatea 29 alekoa da (100 m<sup>2</sup>-ko), eta Oka ibaiko laginketa-puntuetan, berriz, txikiagoa (100 m<sup>2</sup>-ko ale 1ekoa goi-zatietan, OK066 eta OK114 estazioetan) eta 14 alekoa erdibideko puntuetan (OK045) (Ondotek UTE II, 2007 eta 2008).

Espezie honentzat deskribatu diren mehatxu-faktoreetan nabarmena da habitataren eraldaketa, espezie oso sentikorra baita ibai-korridorearen fragmentazioarekiko (Urdaibain, esan bezala, 2 metro garai baino 29 oztopo artifizial handiagoak aurkitu ditugu), fragmentazio horrek ugaltzeko behar dituen tokietara iristea eragozten baitiote. Beste arrisku-faktoreak ere badira, hala nola hondarra eta legarra eraztea eta espezie exotikoak ekartzea (Doadrio -Ed.-, 2001). Horregatik guztiatik jo da Urdaibaiko ibai-sarean loina txikiaren habitat ez dela egokia.

Espeziearen etorkizunerako aurreikuspenak, ordea, onak dira, populazioa gainbeheran dagoen adierazgarririk ez baitago.

<b><i>Chondrostoma toxostoma</i> - 1126</b>			
<i>Urdaibaiko ibai-sarearen KEBa</i>		<b>Desegokia</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Ezezaguna	Ezezaguna	Desegokia	Aldekoak

### ***Barbatula barbatula***

Ur laster eta sakonera txikiko espeziea da mazkar arantzagabea, hondo legartsuak nahiz hondartsuak behar dituena, eta urpean belarra behar duena arrautzak bertan eransteke. Hori dela eta, arrain honentzat egoki iritzi zaio Urdaibaiko ibai-sareko habitadari, batez ere ibaian goi- eta erdi-ibilguaei dagokienez.

Beste espezieen kasuan bezalaxe, ez dakigu zein diren haren banaketa eta zenbateko populazioa bizi den Urdaibaiko ibai-sarean; horiei buruzko informazio eskuragarri bakarra da EAEko ibaien egoera ekologikoaren jarraipen-sareko laginketa-puntuetan egin diren arrantza elektrikoko saioren emaitzak (Ondotek UTE III, 2005tik 2008ra bitartean). Laginketa-estazio horietan, Oka ibaiko hirutan besterik ez da aipatzen (OK045, OK066 eta OK114 estazioetan, hain zuzen), eta gainerakoetan, berriz, ez da aurkitu Golako, Mape, Artigas eta Laga erreketan; Ondotek UTE II, 2007 eta 2008).

Mazkar arantzagabearen populazio-dentsitatea asko aldatzen da estazio hauetan; hala, haranburuetan 13-36 ale izan ohi dira 100 m<sup>2</sup>-ko (OK066 eta OK045 estazioetan), eta bokaletik gertu dagoen OK114 estazioan, berriz, ale 1ekoa besterik ez.

Espeziearen mehatxu-faktore moduan aipa liteke harrapari exotikoak ekarri izana eta uraren poluzioa, azken horrek, izan ere, izugarri eragiten dio (Doadrio -Ed.-, 2001).

Populazioa gainbeheran dagoela iradokitzen duen adierazlerik ez dagoenez, eta Urdaibaiko ibai-sareko erreketako uraren kalitatea (Oka ibaiaren zati batena izan ezik) ona denez, mazkar arantzagabearentzako etorkizunerako aurreikuspenak egokiak direla jo da.

<b><i>Barbatula barbatula</i></b>			
<i>Urdaibaiko ibai-sarearen KEBa</i>		<b>Ezezaguna</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Ezezaguna	Ezezaguna	Aldekoa	Aldekoak

### **Baldintzagarriak**

Aipatu izan da lehenago ere Urdaibain badirela oztopo artifizial ugariak arrainei eragindako mugikortasun-arazoak, kanpoko amuarrainak askatzen direla eta gehiegizko arrantza egiten dela. Urdaibain EAEko ibaien egoera ekologikoaren jarraipen-sareko urteroko arrain-laginketak egitea. Uraren kalitatea onargarria izanagatik ere, hobegarria ere bada.

Abian da Europako aingira EAEn berreskuratzeko kudeaketa-plana, zeinak xede hauek baititu:	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Espezie honi eta Euskal Autonomia Erkidegoari buruz dagoen diziplina arteko informazio guztia osorik biltzea.</li> <li>- Ekintza-arloak sustatzea jakintza gehiago sortzeko espeziearen biologiarene arlo jakin batzuetan, haren bizi-zikloa hobeto ulertzearen eta, hartara, haren populazioa hobeto kudeatzeko.</li> <li>- EB 1100/2007 Araudiak EAeko arrotarako xedatutako helburuak betetzea.</li> <li>- Aingiraren Espainiako kudeaketa-plana prestatzen laguntzea.</li> <li>- Stockaren gainbehera geldiarazteko, aingira-populazioak kudeatzeko modua hobetzea.</li> </ul>	
<b>Helburuak eta neurriak</b>	
<b>X.39-42 xedea</b>	<b>Okupatutako azalera zabaltzea: ur-ingurunearen kalitatea hobetzeko ekintzen bidez eta arrainen mugimendua eragozten duten oztopoak kenduz. Populazioen kalitate genetikoa hobetzea.</b>
<b>E.39-42.1 emaitza</b>	<b>Iktiofauna interesgarriaren banaketa eta populazioaren bilakaera zein diren jakingo da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>N.39-42.1.1.</b> Urdaibain EAeko ibaien egoera ekologikoaren jarraipen-sareko laginketak egiten jarraitzea.</p> <p><b>N.39-42.1.2.</b> Urdaibaiko Ibai Sarean iktiofaunaren banaketa aztertzea. 6 urtetik behin.</p> <p><b>N.39-42.1.3.</b> Urdaibaiko Ibai Sarearen KEBeko iktiofaunaren laginketa egiteko jarraipen-sarearen anpliazio bat diseinatzea, eta hura urtean bitan lagintzea populazioaren egiturari eta jorari buruzko informazioa eskuratzeko.</p>
<b>E.39-42.2 emaitza</b>	<b>Ibaiko aingira-populazioak babestuko dira.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	Gidalerro eta Arau hauek dira aplikagarriak: <b>G.4.5 eta A.5.5</b>
<b>E.39-42.3 emaitza</b>	<b>Amuarrain arruntaren purutasun genetikoa babestuko da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>N.39-42.3.1.</b> Urdaibaiko Ibai Sarean amuarrain arruntaren populazioen purutasun genetikoa aztertzea.</p> <p>Halaber da aplikagarria Arau hau: <b>A.10.3</b></p>
<b>E.39-42.4 emaitza</b>	<b>Ibaien konektagarritasuna hobetuko da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<b>N.39-42.4.1</b> Ibaietan arrainen mugimendua eragozten duten oztopoen inventarioa egitea eta aztertzea ea posible den horiek egokitzea, faunari iragazkorrak gerta dakizkion, edota erabiltzen ez diren oztopoak eraistea ere.

**GE 43.- *Rana iberica***

Eskualde mailako intereseko taxona Baso-Igel iberiarra

Espeziea	Gaztelania	Euskara	Habitategi buruzko Direktiba	EAeko katalogoa	Espainiako katalogoa	Liburu gorria	42/2007 legea	Habitategi buruzko Direktiba
<i>Rana iberica</i>	<i>Rana patilarga</i>	Baso-igel iberiarra	IV	IB	-	KA	III	V

**Egungo egoera**

Iberiako endemismo bat da, laiotzetan bizi dena, urari lotua. Ur laster eta hotzeko erreka eta errekastotan bizi da, ahal dela ibaiadar txikietan, ibai bazterreko landaretza ugari eta hondo harkaiztsukoetan. Ugaltzeko ur geldiko eta sakonera txikiko tokiak aukeratzen ditu, beti uretako landareei lotuak (Esteban eta Martinez, 2002; Ekos, 2002).

EAEEn, baso-igel iberiarra Iberiako beste populazioetatik bereizita bizi da, penintsulako banaketa-eremuaren ekialdeko mugan, Urdaibaiko, Karrantzako eta Gorbeiaeren inguruko hainbat puntutan, hain zuzen (Ekos, 2007). Urdaibaiko ibai-sarean populazio egonkor bat badela aipatu da, Busturiako Gernika-Lumoko eta Muxikako inguruan, dentsitatea izanik 4,3-8 ale/km-koa (egunez egindako tantsektuetan), eta 10-98 ale/km-koa (gauzez egindakoetan).

Nahiz eta baso-igel iberiarrak Urdaibaiko ibai-sarean izan EAeko populazio-dentsitaterik altuenak, azken hamarkadetan beherakada handia pairatu du, 1980ko hamarkadan dentsitatea 400 ale /km-koa baitzen; hori dela eta, populazioaren egoera desegokia dela jo da (Ekos, 2007; Consultora de Recursos Naturales, S.L., 2001a).

Espezie honetarako Urdaibaiko ibai-sarean atzemandako mehatxu nagusia habitataren eta ekosistemen dinamika aldatzea eta suntsitzea da. Egurgintzarako laboreetako operazioek (hala nola landaketen, mozketek, pista-zabaltzeek eta) ikaragarri eragiten diote, zuzenean zein zeharka, erreka txikiak deusezten baitituzte, dela makineria bertara sartuta, dela sedimentuek nahiz betelanez gainez eginda ibilguaren gainean. Busturia inguruan hauteman dira batez ere halako kalteak, hazkunde bizkorreko espezieen aldaketek igelaren habitatari kalte handia egiten baitiote han, bereziki Mape ibaian, non luizi handiek igela bizi zen haranburuetako ibai-zati luzeak estali baitituzte.

Urdaibaiko ibai-sarean, halaber, beste muga-faktore bat aipatu da, bereziki Busturi inguruan: ur-inguruaren egituraren eraldaketa, hain zuzen, zenbait errekastoren haranburuetan egin izan diren ur-kaptazioek urrik gabe utzi baitituzte haranak uda-garaian (Ekos, 2007).

Halaber aipatu da populazioak atzera egin izanaren arrazoi posible moduan goi-mendiko ur-lasterretan abelburu gehiegi ibiltzea –erreketo kondizio ekologikoak aldatuz horrela– eta zapaburuak jaten dituzten espezie exotikoak sartu izana (hala nola amuarrain arrunta eta seinaledun ibai-karramarroa) (Consultora de Recursos Naturales, S.L., 2001a eta Ekos, 2007).

Urdaibaiko ibai-sarean duen presentzia puntuala denez eta habitatak eragin txar handiak pairatzen ditueenez, etorkizuneko aurreikuspenak txarrak direla jo da.

<b>Rana iberica</b>			
<i>Urdaibaiko ibai-sarearen KEBa</i>		<b>Desegokia</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Desegokia</b>	<b>Desegokia</b>	<b>Desegokia</b>	<b>Desegokia</b>

**Baldintzagarriak**

Espezieari buruzko azterlan espezifikoak egin dira EAEEn, 2001ean eta 2006an. Esan bezala, baldintzagarri nagusiak populazioaren isolamendua eta egurgintzarako landaketen ustiapenak habitatari eragiten dion kaltea. Arrakastaz ugaltzeko harraparirik ez egotea behar du.

**Helburuak eta neurriak**

<b>X.43 xedea</b>	<b>Haren populazioak eta habitata kontserbatzea</b>
<b>E.43.1 emaitza</b>	<b>Banaketa eta populazioaren bilakaera zein diren jakingo da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<b>N.43.1.1.</b> Urdaibaiko Ibai Sarearen barruko banaketa aztertzea eta populazioaren bilakaera aztertzeke sei urtetik behin errepikatuko diren laginketak programatzea. 2006ko kanpainan jarraitu ziren zentsu-ibilbide berei jarraituko zaie, gutxienez.

<b>E.43.2 emaitza</b>	<b>Espeziearen banaketa-azalera handituko da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>N.43.2.1.</b> Espeziea ibai-sarean barrena hedatzeko translokazio-plan bat diseinatzea. Horretarako aintzat hartuko dira espeziearen banaketari buruzko azterketak eta habitataren gaitasuna, batez ere ibai-karramarro autoktonoaren eta amuarrainaren banaketaren arabera, eta errehaburuetan gehiegizko ur-hartunerik ez egotea.</p> <p>Halaber da aplikagarria Gidalerro hau: <b>G.4.2.</b></p>

**GEM 44-45.- APOARMATUAK**

Gako elementuen multzoa

**GE 44.- *Emys orbicularis***

EB mailako intereseko taxona (1220). Apoarmatu istilzalea

**GE 45.- *Mauremys leprosa***

EB mailako intereseko taxona (1221). Apoarmatu korrontezalea

Espeziea	Gaztelania	Euskara	Habitatai buruzko Direktiba	EAEko katalogoa	Espainiako katalogoa	Li-buru gorria	42/2007 legea	Habitatai buruzko Direktiba
<i>Emys orbicularis</i>	Galápago europeo	Apoarmatu istilzalea	II/IV	KA	-	KA	II	II/V
<i>Mauremys leprosa</i>	Galápago leproso	Apoarmatu korrontezalea	II/IV	KA	-	KA	II	II/V

**Egungo egoera*****Emys orbicularis***

Apoarmatu istilzalea espezie termofiloa da, landare-estalki ugaria duten istil geldietan bizi dena. Poluzio-maila txiki bat onar dezake (Ayres, 2009).

2003. eta 2005. Urteetan Bolue enpresak azterlan bana egin zuen uretako apoarmatuek UBEaren barruan zuten banaketari buruz, eta han egiaztatu ahal izan zen espeziea hau ibai-sarean bizi zela, aipamen bakarria izanik Oma ibaiaren inguruan errutear zegoen eme bat aurkitu izana (Bolue, 2006).

Emaitza haietatik abiatuta, Boluek (2006) ondorioztatu zuen ez dirudiela eremuan populazio handia dagoenik; ez dute, haatik, baztertzeko, ale zahar bakanak egotea, populazio trinko eta ondo hornitua eratu gaberik ere.

Habitata suntsitzea eta eraldatzea, uraren gehiegizko poluzioarekin batera, aipatu dira espezie honetarako mehatxu nagusi moduan. Halaber legez kanpoko harrapaketak, habitataren erregimen hidrikoaren eraldaketa, espezie inbaditzaileak egotea (hala nola *Trachemys scripta*). Horregatik guztiagatik desegokitzat jo da apoarmatu honek ibai-sarean eskura duen habitataren kalitatea (Keller eta Andreu, 2002).

Apoarmatu istilzaleak Urdaibaiko ibai-sarean duen populazioaren etorkizunerako aurreikuspenak ez dira egokiak, aintzat hartuta eskura dagoen informazioa: espezie exotiko inbaditzaileen presentzia etengabea da eta bere banaketa puntuala eta oso eskasa du.

***Emys orbicularis* - 1220**

Urdaibaiko ibai-sarearen KEBa		Desegokia	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Desegokia	Ezezaguna	Desegokia	Desegokia

**Mauremys leprosa**

Apoarmatu korrontezalea espezie termofiloa da, bazter epelak maite ditu, urmaelak eta ur geldiko errekek, bazterrean landareak dituztenak. Azken ezaugarri hori, hala ere, ez da mugatzailea. Uraren poluzio-maila apur bat onar dezake, baina hura handituz gero desagertu egiten da (Da Silva, 2002).

UBEaren eremuan, 2003 eta 2005 bitartean, azterlan bana egin zen apoarmatuen banaketari buruz. Hiru ale harrapatu ziren Oka ibaian. Horietako batek oskola gizakiak zulatua zuen; norbaitek kontrolik gabe askatua zen beraz.

Emaitza horiek ikusita, egiaztatuta dago espeziea hau Urdaibaiko ibai-sarean bizi dela. Badirudi ale autoktonoek itsasadarraren eskuin ibarra dutela jatorri, banaketa desegokia izanagatik, gutxi-asko puntuala eta lokalizatua (Bolue, 2006).

Apoarmatu korrontezaleak UBEan duen populazioari dagokionez, berriz, Boluek (2006) dio berak lortutako emaitzek diotenez ez dirudiela populazio nabarmenik dagoenik inguruan. Ez dute baztertzeko, haatik, al zahar bakana egotea.

Espezieak pairatzen dituen mehatxu nagusien artean, berriz, aipatu dira habitata suntsitzea eta eraldatzea, gehiegizko poluzioa eta habitataren zatikaketa. Aipatu dira halaber auto-harrapaketak bideetan, emeak errunaldia lurperatzeko toki bila nahiz beste hezeguneetara joan-etorrietan dabiltzala, espezie inbaditzaileak egotea eta legez kanpoko ehiza (Da Silva, 2002; Bolue 2003 eta 2006).

Espezie honi eta Urdaibaiko ibai-sareari buruz bibliografian eskura dagoen informaziotik abiatuta, etorkizuneko aurreikuspenak txarrak direla jo da, eremuan ez baita populazio egonkorrik hauteman eta aurkitutako aleak partikularrek askatuak direla onartuta.

**Mauremys leprosa – 1221**

Urdaibaiko ibai-sarearen KEBa		Desegokia	
Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
Desegokia	Ezezaguna	Desegokia	Desegokia

**Baldintzagarriak**

Lehenago esan bezala, espezie hauek urriak dira Urdaibain, eta antza, horrek zerikusia izan lezake habitataren berezko gaitasun eskasarekin. Dena dela, espezie mehatxatuak dira, eta horregatik arreta berezia behar dute.

**Helburuak eta neurriak**

<b>X.44-45 xedea</b>	<b>Espezie autoktonoen populazioen kontserbazioa eta segimendua, eta aloktonoak kontrolatzea.</b>
<b>E.44-45.1 emaitza</b>	<b>Urdaibaiko apoarmatu autoktonoen banaketa eta populazioaren bilakera zein den jakina izango da eta espezie aloktonoetako aleak ezabatu egingo dira.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<b>N.44-45.1.1.</b> Sei urtetik behin laginketak egitea, esparruan lehenago egindako azterketetako ahalegin bera eginez, gutxienez. Halaber baliatuko dira kanpaina horiek apoarmatu aloktonoak erretiratzeko.  Halaber da aplikagarria Arau hau: <b>A.10.3</b>



**GE 46.– *Podarcis muralis***

Eskualde mailako intereseko taxona. Horma-sugandila

Espezia	Gaztelania	Euskara	Habitatai buruzko Direktiba	EAEko katalogoa	Espainiako katalogoa	Liburu gorria	42/2007 legea	Habitatai buruzko Direktiba
<i>Podarcis muralis</i>	Lagartija roquera	Horma-sugandila	IV	-	IB	AT	II	V

**Egungo egoera**

EAEen barrena barreiatuta dago horma-sugandila, eta hainbat habitat desberdin okupatzen ditu: itsas ondoko labar harkaiztsuetan (Gaztelugatxeko Doniene eta Aketxen kasua, betiere belarrezko geruza polita baldin badago (Diego-Rasillas, 2009).

Gaztelugatxeko Donieneko KEBean ugaria izan zen eguteraan eta gailurrean, toki honek eskaintzen dituen gordeleku ugariak baliatuta. Haatik, 1990eko hamarkadan Pitiusetako sugandila (*Podarcis pityusensis*) aipatu zen bertan, familia bereko espezie inbaditzailea eta kosta-eremura ezin hobeto moldatutakoa. Harrezkero helduberriak lehengo sugandila ordeztu du neurri batean. Honenbestez, orain espezie aloktonoak okupatzen ditu egutera eta gailurreko toki eguzkitsuenak, hala, gaur egun, Gaztelugatxeko Donieneko KEBean horma-sugandilaren banaketa eta populazioa desegokiak dira (Aranzadi Zientzia Elkarte, 2009).

Populazioak pairatzen duen mehatxu larrienak dira bere habitata Pitiusetako sugandilak kolonizatu izana eta udaldian pertsona ugari joatea bertara (Perez-Mellado, 2002; Pleguezuelo, 2002). Hala, jo da espezieak Gaztelugatxeko Donieneko KEBean duen habitata desegokia dela.

Espezieak pairatzen dituen muga-faktoreak horrela, horma-sugandilak Gaztelugatxeko Donieneko KEBean dituen etorkizunerako aurreikuspenak ere txarrak dira.

<i>Podarcis muralis</i>			
Gaztelugatxeko Donieneko KEBa		Txarra	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Desegokia	Ezezaguna	Txarra	Desegokia

**Baldintzagarriak**

Baldintzagarri nagusia, espeziea berreskuratuko bada, sugandila-espezie exotiko inbaditzaile bat egotea da KEBaren uharteetan: *Podarcis pityusensis*. Zenbait azterlan egin da eremuan eta proiektu bat diseinatu da espezie exotiko inbaditzaile hori kontrolatzeko eta ezabatzeko.

**Helburuak eta neurriak**

<b>X.46 xedea</b>	<b><i>Podarcis muralis</i>en populazioa berreskuratzea.</b>
<b>E.46.1 emaitza</b>	<b><i>Podarcis pityusensis</i> espezie aloktono inbaditzailearen populazioa kontrolatzea tokiko iraungiztetik gertuko maila batean.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	Aplikagarriak dira taxon aloktonoak kontrolatzeko neurriak, eta <b>A.10.3</b> araua ere bai.
<b>E.46.2 emaitza</b>	<b>Gaztelugatxeko Donieneko eta Aketxeko saurio-komunitatea, bai eta KEBaren zati kontinentalekoa ere, ondo karakterizatuta egongo da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<b>N.46.2.1.</b> Urteroko zentsuak egitea.

**GEM 47-49.- ITSAS HEGAZTI KOLONIALAK**

Gako elementuen multzoa

**GE 47.- *Phalacrocorax aristotelis***

Eskualde mailako intereseko taxona. Ugarroi mottoduna (Hegaztien Direktibako A018 kodea)

**GE 48.- *Hydrobates pelagicus***

EB mailako intereseko taxona (A014). Ekaitz-txori txikia

**GE 49.- *Egretta garzetta***

EB mailako intereseko taxona (A026). Koartzatxo zuria

Espezia	Gaztelania	Euskara	Hegaztiei buruzko Direktiba	EAEko katalo-goa	Espainiako katalo-goa	Liburu gorria	Bernako Hitzar-mena	Bonngo Hitzar-mena	42/2007 legea
<i>Phalacrocorax aristotelis</i>	Cormorán moñudo	Ugarroi mottoduna	-	B	KA	AR	III	-	IV
<i>Hydrobates pelagicus</i>	Paíño europeo	Ekaitz-txori txikia	I	B	-	KA	II	-	IV
<i>Egretta garzetta</i>	Garceta común	Koartzatxo zuria	I	-	-	-	II	-	IV

**Egungo egoera*****Phalacrocorax aristotelis***

Bost kolonia daude HBBEaren barruan (eta, beraz, Gaztelugatxeko Donieneko KEBean eta Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBean), non Bizkaiko 144 bikote habiagileetatik 71 biltzen baitira (2006ko zentsuko datuak). Hiru kolonia (26 bikote) Gaztelugatxeko Donieneko KEBean, eta bi kolonia (45 bikote) Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBean.

Gaztelugatxeko, Aketxeko eta Ogoñoko kolonietan populazioak gorakada izan du: 25 bikote 1990ean, 51 bikote 1996an eta 67 bikote 2006an.

Nahiz eta koloniak eta haietako populazioak jakinak diren, mugimendu-eremua eta elikatzeko erabiltzen duten itsas eremua ez daude argi. Kontserbazio-egoera baloratzeko gainerako parametroak aldekoak dira, espeziearen etorkizunerako aurreikuspena izan ezik. Horiek ezezaguntzat jo dira, zeren, Urdaibaiko populazioak goranzko joera izanagatik, Iberia mailan «Galtzeko arriskuan» dagoen taxona da (Liburu Gorriak dioenez), eta errezeloa dago espeziea Kantabrian pairatzen ari den beherakadak Urdaibaiko populazioari eragingo ote dion.

Ugarroi mottodunaren muga-faktore susmatuak (datu kuantitatibo gutxi dago, izan ere) hauek dira: ugalketa-arrakasta giza eragozpenen (itsaski-biltzaileek, kirol-arrantzaleek, motordun enbarkazioek, eskalatzaileek eta, eragindakoen) ondorioz murriztea, alde batetik, eta arrantza-arteetan katigatuta nahiz petroliotan zikinduta (*Prestige* ontziaren kasuan bezala, 2002) gertatzen den zueneko hilkortasuna, bestetik.

<b>Phalacrocorax aristotelis - A018</b>			
<i>Urdaibaiko Itsasadarreko HBBEa</i>		Ezezaguna	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Ezezaguna	Aldekoa	Aldekoa	Ezezaguna
<i>ZEC San Juan de Gaztelugatx</i>		Ezezaguna	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Ezezaguna	Aldekoa	Aldekoa	Ezezaguna
<i>ZEC Zonas litorales y marismas de Urdaibai</i>		Ezezaguna	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Ezezaguna	Aldekoa	Aldekoa	Ezezaguna

### **Hydrobates pelagicus**

Ekaitz-txori txikia EAeko kostan ugaltzen zela 1988an jakin zen; gaur egun sei kolonia ezagutzen dira, guztiak Bizkaian. Horietako lau HBBEan daude: «Gaztelugatx» eta «Aketx» izenekoak, biak ala biak Gaztelugatxeko Donieneko KEBaren barruan, eta «Izaro» eta «Ogoño», berriz, Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBaren barruan. Horietako kolonia bat bakarra (Ogoñokoa, hain zuzen) dago kontinentean bertan, labarrean zabaltzen den leize-zulo baten barruan, eta Europa osoan ezagutzen den kasu bakarra da. Gainerako kolonia guztiak uhartetan daude kokatuta.

EAeko kostan 600-700 bikote izan litezkeela estimatu da (2004), eta badira populazioaren estimazio partzialak ere (2006): 3.000 aletik gora Aketxen eta 300dik gora Izaron. Nolanahi ere, zenbait ornitologok zentsuan erabilitako metodologia erabili izana kritikatu dute, populazioaren estimazio handiegia egiteko duen joera dela eta; horrenbestek tentuz erabili beharreko kopuruak dira horiek. Mugimendueremua eta elikatze erabiltzen duten itsas eremua ez daude argi.

Gainerako parametroak, habitata eta etorkizunerako aurreikuspenak, aldekoak dira.

Ekaitz-txori txikiaren kasuan, adierazi izan da kolonia bat ezartzeko ezinbesteko baldintza dela uharte isolatua izatea, lehorrekin loturarik ez duena; bestela ugaltun harrapariak, katu eta arratoiak batez ere, kolonia inbaditu eta txikitu lezakete, eta bertan behera utzarazi. Urpekariek, itsaski-biltzaileek eta uhar-teetara saltatu diren pertsonen eragindako eragozpenak aipatu izan dira. Ogoñon bada eragozpen arriskua, espeleologo eta eskalatzaileek eragina. Ez dago informaziorik janari-eskuragarritasunak populazio totalari eragiten dioneko moduari buru; badirudi, haatik, hidrokarburoen bidezko poluzioak (*Prestige* ontzia hondoratu zenean bezala) ere mehatxu handia egiten diola, lumak petrolioztatze arrisku handia baitu.

<b>Hydrobates pelagicus - A014</b>			
<i>Urdaibaiko Itsasadarreko HBBEa</i>		Ezezaguna	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Ezezaguna	Ezezaguna	Aldekoa	Aldekoak
<i>ZEC San Juan de Gaztelugatx</i>		Ezezaguna	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Ezezaguna	Ezezaguna	Aldekoa	Ezezaguna
<i>ZEC Zonas litorales y marismas de Urdaibai</i>		Ezezaguna	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Ezezaguna	Ezezaguna	Aldekoa	Aldekoak

### **Egretta garzetta**

Koartzatxo zuria hezegune natural zein artifizialetara lotutako espeziea da. Arboletan, lezkadietan nahiz kanaberadietan kokatutako koloniatan ugaltzen da, betiere uretatik gertu (Garrido, 2003). Beraz, Urdaibaiko habitata egokia jo da.

Ornogabez, anfibioz, eta arrainez elikatzen da batik bat. Urdaibain, hartara, ia padura osoak eskaintzen dio jana, hasi Gernikatik eta Portuondo eta Antzoraraino. Izaron badira kotategiak eta ugaltze-koloniak ere (Hidalgo eta Del Villar, 2004).

Populazio-tamainari dagokionez, berriz, Hidalgok eta Del Villarrek (2004) diote 1998z geroztik ugaltzen dela Urdaibain, 25 bikote inguru. Hala ere, eskura dagoen EAEko ur-hegazti habiagileen azken zentsuaren datuen arabera, 12 lirateke bikote habiagileak (IKT, S.A., 2008b). Datu horiek adierazten dutenez lau urtean populazioak nabarmen egin duela beharantz, ugaltzen den populazioaren tamaina desegokia dela jo da.

Neguan egoten den populazioaren tamaina 23-57 alekoa da. 2008ko ur-hegazti negutiarren zentsuak 41 aleko emaitza eman zuen Gernikako itsasadarrerako. Bestalde, eztei-ondoko migrazioan 140 aletik gora bildu ohi badira ere, eztei aurrekoan apenas hautematen da alerik (IKT, S.A., 2000-2005, 2006a, 2007a eta 2008a; Hidalgo eta Del Villar, 2004; Garaita *et al.*, 2002-2004; Garaita eta Del Villar, 2005, 2006b eta 2007).

Espezieak dituen kontserbazio-arazo handienak hezeguneen narriadurari eta murriztapenei lotutakoak dira. Beraz, Urdaibaiko eremuan, jo liteke etorkizuneko aurreikuspenak egokiak direla (Garrido, 2003).

<b>Egretta garzetta - A026</b>			
<i>Urdaibaiko Itsasadarreko HBBEa</i>		<b>Desegokia</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	<b>Desegokia</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoak</b>
<i>Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa</i>		<b>Desegokia</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	<b>Desegokia</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoak</b>

### Baldintzagarriak

Itsasertzeko hegaztien ugaltze-koloniei ikaragarriko kaltea egin diezaieketen arrisku estokastikoak bazter utzita (hala nola petrolio-isuriak), arazo nagusiak lotuta daude pertsonak kolonietara fisikoki inguratzearekin, bereziki ugaltze-sasoiko aldi kritikoan. Uharteetako kolonien kasu konkretuan, lehorreko harrapariek (arratoiek, nagusiki) inbaditzeko arriskua ere badago. Ezer gutxi dakigu ugarroi eta ekaitz-txorien mugimendu-eremuari buruz eta janaria bilatzeko eremuari buruz, halaber kolonietako elikagai-eskuragarritasunari eta arriskuei buruz, esate baterako, arrantza-arteetan katigatzeko arriskuari buruz.

Aldeko baldintzagarriari dagokienez, berriz, badira kudeaketaren aitzindariak ere kolonia hauetan. Hala, bai ugarroi mottodunak, bai ekaitz-txori txikiak, badute Bizkaian kudeaketa-plan bana onetsia. 112/2006 Foru Dekretua, ekainaren 19koa, Foru Aldundiarena; horren bidez, «ubarroi mottoduna» (*Phalacrocorax aristotelis*) hegaztiaren kudeaketa-plana onesten da. Espezie hori bakan izendatuta dago eta, hori babes-teko, neurri espezifikokoak behar dira. (2006/07/06ko BAO); 116/2006 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiarena, ekainaren 19koa, espezie bakana den eta babes-neurri bereziak behar dituen aldetik «Ekaitz-txori txikia (*Hydrobates pelagicus*)» hegaztiaren kudeaketa-plana onesten duena. (2006-07-06ko BAO).

Ugarroi mottodunaren populazioa hamar bat urtetik behin zentsatzen dira (azkena 2006an), eta ekaitz-txori txikiaren kasuan, berriz, urtero egiten dira eraztuntze-kanpainak 1990az geroztik, eta 3.000 ale inguru markatu dira, gehienak Aketxen. Izaroko koartzatxo zuriaren kolonia ere aztertu eta eraztundun egiten da. Horrez gain, berariazko azterketak egin dira *Prestige* ontziaren olio-isuriak Aketxeko koloniarri (2002an eta hurrengo urteetan) eta Izaroko eta Ogoño (2004-2006) populazioen parametroei zer kalte eragin zien aztertzeke.

Koartzatxo zuriari dagokionez, gogoratzekoa da 2008. urtean Bermeoko Izaro uharterko landare-estalkia berreskuratzeko proiektua ipini zutela abian Lurgaia Fundazioak eta Bermeoko udalak, bi espezie mehatxaturen egoera hobetzeko: koartzatxo zuria (*Egretta garzetta*) eta *Lavatera arborea*.

### Helburuak eta neurriak

**X.47-49 xedea**

**Gaur egungo populazioa atxikitzea eta haren parametroak zein diren jakitea.**

<b>E.47-49.1 emaitza</b>	<b>Itsasertzeko hegazti kolonialak kontserbatzeari bideratutako gaur egungo kudeaketari jarraipena emango zaio.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>N.47-49.1.1.</b> Koloniak aldi kritikoan kontrolatzeko eta zaintzeko plan bat ezartzea. Arreta berezia eskaini behar zaie ale helduen hilkortasuna areagotu lezaketen faktoreen zantzu guztiei eta ugaltze-eremuetan izan litezkeen eragozpenak ahal den neurrian urritu. Ugaltzeko fenologia aintzat hartuta, ugarroi mottodunaren aldi kritikoa urtarrilaren 1a eta abuztuaren 15a bitartekoa da, eta ekaitz txori txikiaren kasuan, berriz, maiatzaren 15a eta urriaren 30a bitartekoa (koartzatxo zuriaren aldi kritikoa barne hartzen dute horiek).</p> <p><b>N.47-49.1.2.</b> Uhartexketan eta Ogoñoko labarretan ugaltun harraparien (arratoiak, batik bat) presentzia hautemateko eta kontrolatzeko plan bat ezartzea.</p> <p>Halaber dira aplikagarriak Gidalerro eta Arau hauek: <b>G.4.3, G.4.4, A.4.1, A.8.4</b> eta <b>A.8.5</b></p>
<b>E.47-49.2 emaitza</b>	<b>Ikertzeari bideratutako gaur egungo kudeaketari jarraipena emango zaio, mugimendu-eremuaren ezaugarriak zein diren ahalik eta zehatzten jakinda.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>N.47-49.2.1.</b> Populazio-zentsuak egitea. Urdaibaiko itsasadarreko HBBEan hiru urtetik behin egingo dira zentsuak, espezie horien kolonia ezagunetan zein horiek ezar litezkeen guneeetan.</p> <p><b>N.47-49.2.2.</b> Ekaitz-txori txikiaren kasuan, populazioaren tamainari eta bilakaerari buruzko informazio fidagarria eskaini lezakeen ikerketa- eta zaintza-programa bat ezartzea. Kantauriko ekaitz-txori txikiaren populazioak egoki kuantifikatzeko proposamen berrienak aurreikusten du harrapaketa-markaketa-berrarrapaketa izeneko metodoa erabiltzea, ugaltze-sasoian banatutako hainbat saiotan eginik (9 inguru sasoiko). Azterlanek populazio-zentsuak egitea eta ugaltze-parametroak kalkulatzeko hartuko dute beren baitan, eta EAeko kolonia guztietan zabalduko dira sei urtetik behin.</p> <p><b>N.47-49.2.3.</b> Ugaltze-parametroak aztertzea. Urdaibaiko Itsasadarreko HBBEko habia ikusterrazak dituzten kolonien kasuan, hiru urtetik behin ikerketa ugaltze-parametroak. Ekaitz txori txikiaren kasuan kolonia puntual bat ikerketa proposatu da (Ogoñoko hormako kobazuloa, hain zuzen); egiten den urtean bi bisita egitea proposatu da, bata abuztuaren erdialdean eta bestea urriaren amaieran.</p> <p><b>N.47-49.2.4.</b> Mugimendu-eremua ikerketa. Beharrezko iritzi zaio Urdaibaiko Itsasadarreko HBBE kolonien benetako mugimendu- eta elikatze-eremua zientifikoki zehazten aurrerapausoak egiteari. Horretarako satelite bidez nahiz lurretik bertatik jarraitzeko moduko irrati-markaketa erabiltzea proposatu da. Harrapaketa kolonia ugarienetan egitea eta markatzen diren aleen erdiak baino gehiago EAeko kolonia urrunenetan markatzea gomendatzen da.</p>

**GEM 50-59.- ZINGIRETAKO HEGAZTIAK**

Gako elementuen multzoa

**GE 50.- *Botaurus stellaris***

EB mailako intereseko taxona (A021). Hegazti zezena

**GE 51.- *Ixobrychus minutus***

EB mailako intereseko taxona (A022). Amiltxori txikia

**GE 52.– *Ardea purpurea***

EB mailako intereseko taxona (A029). Koartza gorria

**GE 53.– *Rallus aquaticus***

EB mailako intereseko taxona (A118). Uroilanda handia

**GE 54.– *Riparia riparia***

Eskualde mailako intereseko taxona. Uhalde-enara (Hegaztien Direktibako A249 kodea)

**GE 55.– *Acrocephalus arundinaceus***

Eskualde mailako intereseko taxona. Lezkari karratxina (Hegaztien Direktibako A298 kodea)

**GE 56.– *Acrocephalus paludicola***

EB mailako intereseko taxona (A294). Ur-benarriza

**GE 57.– *Acrocephalus schoenobaenus***

Eskualde mailako intereseko taxona. Benarriz arrunta (Hegaztien Direktibako A295 kodea)

**GE 58.– *Acrocephalus scirpaceus***

Eskualde mailako intereseko taxona. Lezkari arrunta (Hegaztien Direktibako A297 kodea)

**GE 59.– *Emberiza schoeniclus***

Eskualde mailako intereseko taxona. Zingira-berdantza (Hegaztien Direktibako A381 kodea)

Espezia	Gaztelania	Euskara	Hegaztiei buruzko Direktiba	EAEko katalogoa	Espainiako katalogoa	Li-buru gorria	Bernako Hitzar-mena	Bonngo Hitzar-mena	42/2007 legea
<i>Botaurus stellaris</i>	Avetoro común	Hegazti zezen arrunta	I	IB	GA	AL	II	II	IV
<i>Ixobrychus minutus</i>	Avetorillo común	Amiltxori txikia	I	B	-	-	II	II	IV
<i>Ardea purpurea</i>	Garza imperial	Koartza gorria	I	B	-	IA	II	II	IV
<i>Rallus aquaticus</i>	Rascón europeo	Uroilanda handia	II	B	-	-	III	-	-
<i>Riparia riparia</i>	Avión zapador	Uhalde-enara	-	KA	-	-	III	-	-
<i>Acrocephalus arundinaceus</i>	Carricero tordal	Lezkari karratxina	-	B	-	-	II	-	-
<i>Acrocephalus paludicola</i>	Carricérin cejudo	Ur-benarriza	I	IB	-	KA	II	I/II	IV
<i>Acrocephalus schoenobaenus</i>	Carricérin común	Benarriz arrunta	-	GA	-	-	II	-	-
<i>Acrocephalus scirpaceus</i>	Carricero común	Lezkari arrunta	-	B	-	-	II	-	-
<i>Emberiza schoeniclus</i>	Escribano palustre	Zingira-berdantza	-	B	GA	-	II	-	-

**Egungo egoera*****Botaurus stellaris***

Hegazti zezen arrunta landaretza sarriko eta sakonera txikiko hezeguneetako hegaztia da, inoiz ur irekietan agertuagatik ere. Lezkadi zabalak aukeratu ohi ditu, ihidi eta tifa-lezkadiak ere bai, sarriak badira (Consultora de Recursos Naturales, S.L., 2001b).

Urdaibain pase-garaian ikusten da, hotzaldi handiekin lotuta beti, eta ez da ugalketarik egiaztatu (Hidalgo eta Del Villar, 2004). Beraz, ugaltzeko duen gaitasunari eta banaketari dagokionez, esan liteke gaur egun desegokia direla biak ala biak.

Egoera mehatxatuaren kausa nagusia habitataren narriadura da, lezkadien zabalera eta azalera murrizteagatik, beharrezkoak baititu horiek elikatze eta ugaltzeko. Badira, halaber, bigarren mailako beste faktore batzuk: garraiobideetako harrapaketak, argindar-kableekiko kolisioa, poluzioa, legez kanpoko ehiza eta giza jarduerak eragindako eragozpenak. Azken lau kausa horiek, dena dela, ez dira aipatu azter-eremuan (Bertolero eta Soto-Largo, 2003).

Urdaibaiko itsas ertzeko eta paduretako lezkadiak onbidean daude eta azalera hazi egin dira azken urte hauetan landare aloktono inbaditzaileak kontrolatzeko egin diren ekintzen ondorioz; potentzialtasun handia dute espezie honentzat. Hala eta guztiz ere, ezezaguntzat jo behar dira etorkizunerako aurreikuspenak, Liburu Gorriaren arabera Iberia osoan galtzeko «Arrisku Larrian» kategorian sailkatuta baitago.

***Botaurus stellaris* - A021**

<i>Urdaibaiko Itsasadarreko HBBEa</i>			
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Desegokia</b>
<b>Desegokia</b>	<b>Desegokia</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
			<b>Ezezaguna</b>
<i>Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa</i>			
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Desegokia</b>
<b>Desegokia</b>	<b>Desegokia</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
			<b>Ezezaguna</b>

***Ixobrychus minutus***

Amiltxori txikia hezeguneetan eta erreka-bazterretan bizi da, lezkak eta bestelako ur-landareen estalki sarrian gordeta, ahal dela zuhaitz eta zuhaixkak daudela (Galarza eta Hidalgo, 2006). Hegazti zezenaren kasuan bezala, Urdaibaiko barne-paduraren egungo egoera oso egokia izan liteke espezie honentzat.

Oso bakan ikusi da Urdaibain amiltxori txikia, eta, beraz, haren fenologia azaletik baizik ez da ezagutzen. Martxotik urrira bitartean ikusi izan da. Sasoi hori bat dator eremua ugaltzeko erabiltzen duten espezieen presentziarekin; alabaina, Urdaibain ez da halakorik egiaztatu oraindik. Hala, ugaltzeari dagokionez, espezie hau bakan edo iraungi moduan jo da, eta banaketa zein populazioa hala kalifikatu da (Hidalgo eta Del Villar, 2004; Galarza eta Hidalgo, 2006).

Espeziaren kontrako mehatxu gisa deskribatu diren faktoreak dira habitataren suntsiketa, ugaltze-lekuen poluzioa, eta migrazioan eta negualdian pairatzen duen hilkortasuna (Consultora de Recursos Naturales, S.L., 2001b); kausa horiek Urdaibain leunagoak direnez, etorkizunerako aurreikuspenak egokiak direla jo da.

***Ixobrychus minutus* - A022**

<i>Urdaibaiko Itsasadarreko HBBEa</i>			
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Desegokia</b>
<b>Desegokia</b>	<b>Desegokia</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
			<b>Aldekoak</b>
<i>Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa</i>			
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Desegokia</b>
<b>Desegokia</b>	<b>Desegokia</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
			<b>Aldekoak</b>

**Ardea purpurea**

Koartza gorria ur gezatako guneak ditu maite; haatik, halaber agertzen da ur gazikaratakoetan, betiere helofito-formazio zabalak eta sarriak badituzte, lezkadiak nagusiki, eta giza eragina txikia bada. Ezinbesteko baldintza du hori, bertan ugalduko bada. Elikatze-eremuei dagokienez, hezeguneetako sakonera txikieneko guneak hautatzen ditu; erreka eta ubideetan, haien ertzak; beraz, Urdaibaiko habitat potentziala egokia dela jo da (Ripoll eta Agirre, 2003).

Urdaibain oso habiagile bakana da, bikote posible bakarra aipatu baita (IKT, 2006b, 2007b, 2008c); pasegaraiko populazioa ugarixeagoa da. Orduan goi-padurako lezkadi sarriak (Forukoak eta Muruetakoak) erabiltzen ditu atsedentleku gisa (Hidalgo eta Del Villar, 2004; Garaita eta Del Villar, 2005 eta 2007). Beraz, bai banaketa, bai Urdaibaiko populazio habiagilea desegokizat jo dira.

Iberiariko koartza gorriaren populazioari eragin dion mehatxu nagusia izan da ugaltzeko tokiak galtzea, oso kondizio bereziak behar baititu espezie honek bizileku bat ontzat emateko bizi-zikloaren fase horretan. Hala, gizakik eragindako eragozpenak, zingiretako landaretza aldi behin erretzea edo urik ez egotea helofito-formazioetan, ugaltze-koloniak bertan behera utzaraz lezaketen faktoreak dira (Ripoll eta Agirre, 2003).

Urdaibaiko itsasertzeko eta paduretako lezkadiak azken urteotan nabarmen hobetu direnez, eta esandako eragin kaltegarri horiek eremu honetan ez direnez handiak, Urdaibaiko etorkizunerako aurreikuspenak, espezie honen kasuan, aldekatat jo dira.

**Ardea purpurea – A029**

<i>Urdaibaiko Itsasadarreko HBBEa</i>		<b>Desegokia</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Desegokia</b>	<b>Desegokia</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoak</b>
<i>Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa</i>		<b>Desegokia</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Desegokia</b>	<b>Desegokia</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoak</b>

**Rallus aquaticus**

Toki batean uroilanda handia biziko bada, ezinbestekoa da hezeguneak eta ibai-korridore handiak egotea; han, estuario eta zingiretako lezkadiak ditu maiteenak. Urdaibain ugaritu egin da azken urteotan, Busturitik Gernikara bitartean ageri da eta, horrenbestez, egokitzen jo dira bai banaketa, bai Urdaibaiko habitat potentziala (Pombo, 2003; Hidalgo eta Del Villar, 2004).

1995. urtean jo zen Urdaibain 80-100 uroilanda handi bikote habiagile zeudela, horietatik gehienak lezkadietan eta bikote bakan batzuk, berriz, *Iris* so. eta *Caren*. So espezieak nagusi ziren hezeguneetan (Galarza eta Hidalgo, 2006). EAEko ur-hegazti habiagileen zentsuek erakutsi dutenez, 90 bikote seguru eta agian beste 10 gehiago ere izan litezke Gernikako itsasadarrean (IKT, 2006b, 2007b eta 2008c). Galartzak eta Hidalgok (2006), berriz, 102 lurralde zenbatu zituzten. Beraz, populazioak egonkor dirauela esan liteke, ez bada gorantz.

Espezieari lotuta aipatu diren mehatxuei dagokienez, berriz, hezeguneen narriadura eta suntsiketa dira nagusiak, bai eta ubideraketak ere (Pombo, 2003). Aintzat hartuta uroilanda handiak Urdaibain eskura duen habitat potentziala azken urteotan nabarmen hobetu dela, egokitzen jo dira espeziearen etorkizunerako aurreikuspenak.

**Rallus aquaticus – A118**

<i>Urdaibaiko Itsasadarreko HBBEa</i>		<b>Aldekoa</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoak</b>
<i>Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa</i>		<b>Desegokia</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Desegokia</b>	<b>Desegokia</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoak</b>



**Riparia riparia**

Uhalde-enara hegazti soziala da, bai ugaltze-sasoian, bai eztei-ondoko migrazioan. Ugaltze-koloniak eratzen ditu, handiak zein txikiak, hondarreko nahiz hondarrezko eta lohizko ezpondetan egiten dituen zuloen barren-barrenean egiten dituela habiak. Ibaiei zein ur-masei lotutako espeziea da (IKT *et al.*, 2008; Etxezarreta, 2008).

Bizkaian ugaltze-kolonia bakarra dago, Artibai ibaian (Markina-Xemeinen); hortaz, Urdaibain pase-garaian baino ez da ikusten, banaketa egokia duela (Etxezarreta, 2008).

Gaur egun ez dago argi zenbateko populazioa igarotzen den pase-garaian Urdaibaitik barrena. Paduran eginiko eraztuntze-saioetan 2002-2008 aldian 165 uhalde-enara harrapatu dira (10 ale 2008.urtean, seriearen azkenekoa) (Unamuno *eta al.*, 2008). Ezinezkoa izan da, halaber, migratzaile moduan zer joera duen zehaztea.

Espezie honek pairatzen dituen mehatxu nagusiak dira plagiziden neurrigabeko erabilera eta ugaltze-kolonien txikizioa, dela hondarra eta agregakin moduan erabiltzeko erauzteagatik, ibaiak bideratzeagatik edota kausa naturalengatik (Malo de Molina, 2003. Baina Urdaibain egin beharreko balorazioak aintzat hartu behar du espeziea migratzailea dela eta migrazio-garaiko atsedenleku moduan erabiltzen dituela lezkadiak; hori horrela, habitata zein etorkizunerako aurreikuspenak egokiak dira.

<b>Riparia riparia - A249</b>			
<i>Urdaibaiko Itsasadarreko HBBEa</i>		<b>Aldekoa</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	<b>Ezezaguna</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoak</b>
<i>Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa</i>		<b>Aldekoa</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	<b>Ezezaguna</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoak</b>

**Acrocephalus arundinaceus**

Lezkari karratxina udako migratzailea da, eta putzu, ibaibaso, zingira eta urloko tokiak maite ditu, betiere lezka, kanabera eta tifa-lezka baldin badago (Belamendia, 2003; Galarza eta Hidalgo, 2006). Lehenago esan bezala, Urdaibaiko itsasertzeko eta padurako lezkadiak onera egin dute nabarmen azken urteotan; horrek, hartara, espezie honek habitat eskuragarri gehiago izatea ekarri du.

Urdaibain Gernika-Lumo, Forua, Murueta eta Kortezubiko puntu batzuetan baino ez da ageri, eta ez da hauteman kanpo-padurako lezkadietan, Busturialdean, alegia (Hidalgo eta Del Villar, 2004).

1990eko hamarkadan, EAEn 50 bikote baino gutxiago zeudela jo zen, horietatik 6-8 Urdaibain. 2006an, berriz, Galarzak eta Hidalgok 5 bikoteko populazioa zentsatu zuten, eta berretsi zuten beheranzko joera. Gaur egun egoera kritikoa da eta espeziea iraungitzear dago Urdaibain.

Habitat eraldatzea eta hezeguneak poluitzea izan litezke Urdaibaiko lezkari karratxinaren gainbeheraren kausak; hala ere, lezkaria leheneratzeko eta landare exotiko inbaditzaileak (*Baccharis halimifolia*) ezabatzeke egin diren politikek etorkizunean joera hori aldaraz lezaketela pentsa liteke (Belamendia, 2003; Hidalgo eta Del Villar, 2004).

<b>Acrocephalus arundinaceus - A298</b>			
<i>Urdaibaiko Itsasadarreko HBBEa</i>		<b>Desegokia</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Desegokia</b>	<b>Desegokia</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoak</b>
<i>Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa</i>		<b>Desegokia</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Desegokia</b>	<b>Desegokia</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoak</b>

***Acrocephalus paludicola***

Pase-garaian baizik ez da ikusten ur-benarriza Urdaibain, beti landare halofiloek hartutako hezeguneetan edo lezka-antzeko landareek eta zuhaixkek hartutako erreka-bazterrei lotuta (Jubete, 2004). Urdaibain, haatik, ez dago argi zer banaketa duen, ez zer habitat okupatzen duen.

Halaber da ezezaguna zenbateko populazioa migratzen den Urdaibain barrena, paduran egindako eraztuntze-proiektuetako datuak baizik ez baitaude eskura. Azken urteotan ale bakarra harrapatzen da urteko, batez beste (Unamuno, 2007 eta Unamuno *et al.*, 2008).

Jubetek (2004) hezeguneen suntsiketa, habitataren erabilera aldatzea eta hezeguneetako uraren kalitate-galera (nekazaritzako nahiz industriako jarduerak eragina) aipatzen ditu populazio migratzaileak pairatzen dituen mehatxu-faktore nagusi moduan. Dena dela, Urdaibain habitatari egoki iritzi zaio, zingiretako beste espezien kasuan esan bezala.

Europa mailan bere familiako espezie ezezagunenetako bat da oraindik ur-benarriza; zehazki, migrazio-bideei dagokionez, ezer gutxi argitu da. Egun eskura dagoen informazioa ez da, beraz, nahikoa etorkizuneko aurreikuspenak iradokitzeke sikiera. Beraz, gaur egungo kontserbazio-egoera ere ezezaguna da.

***Acrocephalus paludicola* - A294**

<i>Urdaibaiko Itsasadarreko HBBEa</i>		Ezezaguna	
Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
Ezezaguna	Ezezaguna	Aldekoa	Ezezaguna
<i>Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa</i>		Ezezaguna	
Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
Ezezaguna	Ezezaguna	Aldekoa	Ezezaguna

***Acrocephalus schoenobaenus***

Ez dago argi zer estatus duen benarriz arruntak Iberian, ugalketari dagokionez. Baliteke gainbeheran egotea. Apenas dago ugalketa erakusten duten erreferentzia segururik, ez bada 1997 Muskizen izandako saio bat, baina harrezkero ez da berriz gertatu (Galarza eta Hidalgo, 2006). Urdaibain ez da halakorik egiaztatu, nahiz eta presente egon apirila eta iraila bitartean, segur aski bi migrazio-aldiak ez direlako zeharo bereizten (Hidalgo eta Del Villar, 2004).

Hori guztia horrela, esan behar da espezie hau, Urdaibai, udako migratzailea dela, ez ugaltzailea, eta lezkadi sarri eta ugariei lotua dela. Urdaibaiko eremuan, Foruan, Muruetan, Kortezubin eta Gautegiz Arteagan ikusi ohi da; halaber San Kristobalگو eta Busturiko Axpeko lezkadi txikietan. Banaketa eta habitat potentziala egokiak dira (Hidalgo eta Del Villar, 2004).

Ez dago Urdaibai migratzeko erabiltzen duen populazioaren muntari buruzko daturik, ez eta haren joerari buruzkorik ere. Paduran egiten diren eraztuntze-saioen emaitzak besterik ez dago: 28 ale harrapatu ziren 2008an (Unamuno *et al.*, 2008).

Egoki iritzi zaie Urdaibain barrena migratzen den populazioaren etorkizunerako aurreikuspeni.

***Acrocephalus schoenobaenus* - A295**

<i>Urdaibaiko Itsasadarreko HBBEa</i>		Aldekoa	
Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
Aldekoa	Ezezaguna	Aldekoa	Aldekoak
<i>Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa</i>		Aldekoa	
Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
Aldekoa	Ezezaguna	Aldekoa	Aldekoak

***Acrocephalus scirpaceus***

Udako migratzailea da lezkari arrunta, eta bere banaketa ondo garatutako lezkadiei lotuta dago. Ertzak ere okupatzen ditu inoiz, non beste espezieetako landareak, zuhaitzak eta zuhaixkak ere hazten baitira. Hala, Urdaibaiko habitat potentziala espeziearentzat egokia dela jo da.

Oso arrunta da Urdaibaiko edozein lezkaditan, Busturiko (Axpe, San Kristobal) sail txikietan nahiz padura barruko sail handietan (Forua, Gernika-Lumo, Murueta, Kortezubi, Gautegiz- Arteaga). Azken hamarkadetan ugaritu egin da, gainera (Hidalgo eta Del Villar, 2004; Galarza eta Hidalgo, 2006).

Urdaibain ugaltzen diren lezkari arrunten kopuruari dagokionez, berriz, Galarzak eta Hialgok (2006) 142 bikote zenbatu zituzten (1995ean 100-150 bitartekoa zela jo zen), eta emaitza horietatik abiatuta ondorioztatu zuten espezieak goranzko joera izan duela azken hamarkadetan.

Banaketan zein populazio habiagilean izandako gorakada hori Urdaibaiko lezkadien egoeraren eta azalaren hobekuntzaren isla izan liteke. Hori da, hain zuzen, espeziearen muga-faktore nagusia (Galarza eta Hidalgo, 2006; Ganzarain, 2003). Populazioaren etorkizuneko aurreikuspenak egokiak direla jo da.

***Acrocephalus scirpaceus* - A297**

<i>Urdaibaiko Itsasadarreko HBBEa</i>			
			<b>Aldekoa</b>
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoak</b>
<i>Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa</i>			
			<b>Aldekoa</b>
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoak</b>

***Emberiza schoeniclus***

Lezkadiaren eta ur-bazterreko bestelako landaretzaren ertzetan zein sahatsez eta bestelako zuhaixkaz ziprztindutako eremuetan ugaltzen den udako migratzaile bat da zingira-berdantza (Galarza eta Hidalgo, 2006).

Habiagile arrunta izan zen Urdaibain, eta 1986ko bi bikoteetatik 1990eko 12etara ugaritu zen (Fernandez, 2006). Haatik, orduz geroztik desagertu egin zen habiagile moduan, eta Galarzak eta Hialgok 2005ean egindako zentsuetan bikote bakar bat ere ez zuten hauteman. Tokian iraungia dela jo da, beraz.

Aldiz, oso ugaria da Urdaibai migratzeko erabiltzen duen espezie honetako populazioa, batez ere hotzaldi handiekin. Estuario osoan agertzen da orduan, lezkadien ertzetan eta ihidietan agertuagatik ugariago (Hidalgo eta Del Villar, 2004).

Haatik, Urdaibaiko egoeraren ebaluazioa egiteko aintzat hartu behar da ugaltzailea izan dela eta hori duela berezko egoera; beraz, banaketari eta populazioari desegoki iritzi zaie.

Mehatxu-faktore nagusi moduan aipatu dira nekazaritza intentsifikatu izana eta habitata eraldatu izana, batez ere *Baccharis halimifolia* bezalako espezie exotiko inbaditzaileen ugaritzearen ondorioz. Ez da ahaztu behar, baina, Urdaibain badirela eraldatu gabeko eremuak ere, eta horietan ere gertatu dela atzerakada; hala, ezezagunak dira populazio habiagileak pairatutako eragina eta, hartara, etorkizunerako aurreikuspenak ere (Hidalgo eta Del Villar, 2004; Atienza eta Capote, 2004).

***Emberiza schoeniclus* - A381**

<i>Urdaibaiko Itsasadarreko HBBEa</i>			
			<b>Txarra</b>
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Txarra</b>	<b>Txarra</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Ezezaguna</b>
<i>Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa</i>			
			<b>Txarra</b>
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Txarra</b>	<b>Txarra</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Ezezaguna</b>

Baldintzarriak	
<p>Inguru zingiratsuei lotutako espezieen faktore baldintzarri nagusia da Urdaibaiko lezkadien kontserbazio-egoera. Badira habitat hori kontserbatzeko dagoeneko egin diren hainbat ekintza garrantzitsu, nagusiki landare exotiko inbaditzaileak (batik bat <i>Baccharis halimifolia</i>) kontrolatzeko eta ezabatzeak.</p> <p>Gautegiz-Arteagako eta Barrutibasoko lezkadien jarraitutasuna bermatzera bideratutako ureztatze-proiektuak ere burutu dira, Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak sustatuta eta Ihobe, S.A.-k koordinatuta. Idatzita dago dagoeneko, gainera, Oka ibaiaren goi-estuarioa erabat leheneratzeko proiektu bat (Tragsa, 2011), Natura 2000 sareko hainbat gako elementuren kontserbazio-egoera hobetzeko neurri egokiak bildu dituena.</p> <p>Bertan etorkizunean ugaltzeko espezie batzuk buruan –hegazti zezena, esaterako–, argindarkableekiko kolisioek eragindako kontserbazio-arazoak deskribatu dira. Hala, zenbat lineatan hobekuntzalanak egin dira hegaztiak kontserbatzeko HBBEaren barruan. Izan ere, lehen aipatu dugun Oka ibaiaren goi-estuarioa erabat leheneratzeko proiektuaren I. fasearen barruan B argindar-linea ezabatu egin da, aurretiko azterlanek arriskutsuena zela iradokia baitzuten (Consultora de Recursos Naturales, S.L., 2007).</p> <p>Aldian behin Urdaibaiko itsasadarrean ugaltzen diren hegaztien zentsuak egiten dira, eta bada 2005-2006 sasoiaren lezkadietako hegazti habiagileei buruzko azterlan espezifiko bat ere. Horrez gain ahalegin jarraituko eraztuntze-estazio bat ere bada Urdaibain, lezkadietan egiten dituen bere laginketak.</p>	
Helburuak eta neurriak	
<b>X.50-59 xedea</b>	<b>Gainbehera datozen espezie habiagileen (koartza gorria, lezkari karraixina) eta tokian iraungi direnen (amiltxori txikia, zingiraberantza) populazioa berreskuratzea Ahaleginak egitea bertan ugaltzeko espezieak bertan saia daitezkeen ugaltzen. Horien guztien populazioaren parametroak zein diren jakitea.</b>
<b>E.50-59.1 emaitza</b>	<b>Zingiretako hegaztien habitat nagusia, kontserbatzeari buruzko gaur egungo kudeaketari jarraitu egingo zaio.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	Aplikagarriak dira <b>N.6.2.1</b> eta <b>N.6.2.2</b> neurriak, landare exotiko inbaditzaileak kontrolatzeko neurriak eta <b>G.4.10</b> gidalerroa ere bai.
<b>E.50-59.2 emaitza</b>	<b>Lezkadietako hegaztiak, habiagile zein migratzaile, ikertzeari bideratutako gaur egungo kudeaketari jarraipena emango zaio.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>N.50-59.2.1.</b> Hiru urtetik behin zingiretako hegazti habiagileen populazioen zentsuak egitea. Zentsua absolutua izango da, eta bikote- nahiz lurraldekopuruak adieraziko dira. Eskura dagoen habitata urtero kartografiatuko da.</p> <p><b>N.50-59.2.2.</b> Lezkadian umatzen diren ardeidoen ugaltze-parametroak aztertzea hiru urtetik behin. Baldin eta ikusiko balitz habien depredazioa hegazti hauen kontserbazio-arazo dela, zerrendaratu gabeko espezie oportunistek eragindako kalteak kontrolatzeko neurriak hartuko dira.</p> <p><b>N.50-59.2.3.</b> Urtean behin zingiretako hegazti migratzaileen populazioen zentsuak egitea. Zentsua erlatiboa izango da, eta ahalegin jarraituko eraztuntze zientifikoaren bidez gauzatuko da, joerak hautemateko eta hegaztien jatorria jakiteko. <i>Acrocephalus paludicola</i> hobeto ezagutzeko berariazko ahalegina egingo da. Espezie hau hautemateko eta harrapatzeko aukera areagotzeko soinu-apeuak erabiltzea gomendatzen da.</p>

**GEM 60-61.- HAITZETAKO HARRAPARIAK**

Gako elementuen multzoa

**GE 60.- *Neophron percnopterus***

EB mailako intereseko taxon (A077). Sai zuria

**GE 61.- *Falco peregrinus***

EB mailako intereseko taxona (A103). Belatz handia

Espezia	Gaztelania	Euskara	Hegaztiei buruzko Direktiba	EAEko katalogoa	Espainiako katalogoa	Liburu gorria	Bernako Hitzar-mena	Bonngo Hitzar-mena	42/2007 legea
<i>Neophron percnopterus</i>	Alimoche común	Sai zuria	I	KA	KA	AR	II	II	IV
<i>Falco peregrinus</i>	Halcón peregrino	Belatz handia	I	B	-	KA	II	II	IV

**Egungo egoera*****Neophron percnopterus***

2008an Bizkaiko populazioa 17 bikoteko zela estimatu zen (Icarus-SEAR, 2008). Horiez gain, badira beste 4-5 lurralde okupatu, baina ugalketa gertatu ez denak. Iberiako beste toki askotan ez bezala, Bizkaian sai zuriak eutsi egin dio populazioari; haatik, ez dago kontserbazio-arazotik libre. 1992an 12 bikote ziren (Lanius, 1992), eta 2000n, berriz, 19 (Del Moral eta Martí, 2002).

Urdaibaiko Artadi Kantauriarren KEBean bada sai zuriaren lurralde bat, «Arteaga» izena eman zaiona, oraintsu okupatua. Haatik, 2008ra arte ez du lortu umea ateratzea (Icarus-SEAR, 2008).

Bizkaian azken urteotan antzeman zaion joera goranzkoa izan bada ere, bikote ugaltzaile gehiago baitago, ugalketak porrot egiten duen habien kopurua handiegia da oraindik, arrakastatsuekiko: Ondorioz, produktibitatea eta arrakastak behera egin du oro har. 2000 eta 2008 bitartean, Bizkaiko sai zuriaren produktibitateak 0,5etik 0,23ra jaitsi da, ugaltze-arrakasta, berriz, 0,69tik 0,37ra eta hegan egiteko tasa, azkenik, 1,50etik 1,00era (Del Moral eta Martí, 2002; Icarus-SEAR, 2008). Jarraipena egiten ari zaien 9 urteetan, 2008n izan ziren aldi osoko ugaltze-emaizta txarrenak.

Mendian egiten diren aisia-jarduerek (mendi-ibilerak, eskalada, goi-mendia...) eta egurgintzako laboreetan egiten diren lanek eragiten dituzte espezie honek Bizkaian pairatzen dituen kontserbazio-arazo handienak. Antza, eragina zuzenagoa da produktibitatean bikote ugaltzaileen kopuruan baino (Del Moral eta Martí, 2002; Zuberogoitia et al., 2008). Espezieak Bizkaian zer ekologia duen jakiteko, ikus, esaterako, Hidalgo et al., (2005).

Urdaibain dagoen lurraldea berria bada ere, eta espezieak eskura duen habitat potentziala askoz handiagoa ez bada ere (ez da aurreikusten kostako labarrak okupatuko dituenik), sai zuriaren epe luzerako kontserbazio-aurreikuspenak, testuingurua testuinguru (Iberia mailan «Galtzeko Arriskuan», Liburu gorriaren arabera), ezezagun moduan baloratu dira.

***Neophron percnopterus* - A077**

Urdaibaiko Itsasadarreko HBBEa		Aldekoa	
Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
Aldekoa	Aldekoa	Aldekoa	Ezezaguna
Urdaibaiko kantauriar artadien KEBa		Aldekoa	
Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
Aldekoa	Aldekoa	Aldekoa	Ezezaguna

**Falco peregrinus**

Urdaibaiko eta Gaztelugatxeko Donieneko HBBEan eta KEBetan badira zazpi lurralde (Ia saturatuta dago eremua, 2008ko datuak): 5 HBBEan (1 Gaztelugatxeko Donieneko KEBean; 3 Urdaibaiko itsasertzeko eta paduretako KEBean; 1 bi KEBak bereizten dituen kosta-zatian). Gainerako biak Urdaibaiko Artadi Kantauriarren KEBean daude.

Hidrokarbuero bidezko intoxikazio-kasuak deskribatu dira (*Prestige* ontziaren galtzea, 2002. urtean), tiro nahiz harrapaketa bidezko heriotza antropikoak, ugaltze-sasoian eskalatzeak eragindako eragozpenak, utzitako harrobiak betetzeak galarazitako lurraldeak...

Aipatutako baldintzagarri horiek guztiak gora-behera, belatz-populazioa ia saturatuta dago eta populazio-parametro egokiak ditu; hartara, egoki iritzi zaio haren kontserbazio-egoerari, bi HBBEan, bai itsasertzeko KEBetan. Urdaibaiko Kantauriar Artadien KEBean, berriz, harria erazteko jarduerak eragindako mehatxupean dago populazioa, dela habiak ustiatzen ari diren harrobietan daudelako (Foruan, adibidez), dela ugaltzeko erabiltzen dituzten utzitako harrobiak kudeatzeko etorkizunean aurreikusten den moduagatik. Kasu horretan, beraz, desegokitzen jo da haren kontserbazio-egoera.

<b>Falco peregrinus - A103</b>			
<i>Urdaibaiko Itsasadarreko HBBEa</i>		<b>Aldekoa</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoak</b>
<i>Gaztelugatxeko Donieneko KEBa</i>		<b>Aldekoa</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoak</b>
<i>Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa</i>		<b>Aldekoa</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoak</b>
<i>Urdaibaiko kantauriar artadien KEBa</i>		<b>Desegokia</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Desegokia</b>	<b>Desegokiak</b>

**Baldintzagarriak**

Bazter utzita hidrokarbueroz kutsatutako harrapakin zein gorpuzkinak jateak eragin ditzakeen noizbehinkako episodio puntualak, kontserbatzearen baldintzagarri nagusiak dira ugalketaren arrakastari eragiten dioten jarduera gogaikarriak; haatik, zuzeneko jazarpena ere hauteman izan da. Halaber pairatzen dute harrapari hauek argindar-kableek eragiten duten heriotza-tasa.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Naturaren Kontserbazioko eta Naturagune Babestuen Zerbitzuak urtetan sustatu du Bizkaiko harkaitzetako harraparien segimendua, urteroko zentsuak eginez eta haien bioekologiari eta arazoei buruzko datuak bilduz. Belatz handiari dagokionez, zehazki, 1997.urteaz geroztik egiten da haren jarraipen espezifikoa; jarraipen estuena egiten zaizkien bikoteetatik bi Gaztelugatx-Bakio eta Bermeo ingurukoak dira. Horrez gain, *Prestige* ontziaren hondamendiak haiengan eragindako ondorioak ere aztertu dira (2002 eta hurrengoak). Eragozpenak murrizteari dagokionez, adibidez sai zuriaren Arteagako lurraldean, informazio-neurriak abiarazi dira, eskalatzailak ez dezaten kirola praktikatu espeziearen ugaltze-zikloko sasoi kritikoan.

2007-2008 aldian hainbat argindar-linea zuzentzeko ekintzak abiarazi ziren Urdaibaiko Biosferaren Erre-serbaren barruan, hegaztientzat arriskutsuak zirelako (Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitate Zerbitzuaren eta Iberdrola Distribución-en arteko lankidetzaz; finantzaketa, % 75-% 25, hurrenez hurren); besteak beste, Arteagako sai zuriaren lurraldetik gertu zeudenak zuzendu ziren.

Helburuak eta neurriak	
<b>X.60-61 xedea</b>	<b>Gaur egungo populazioa atxikitzea eta haren parametroak zein diren jakitea.</b>
<b>E.60-61.1 emaitza</b>	<b>Gaur egun haitzetako harrapariak kontserbatzera bideratutako kudeaketarekin jarraitu egingo da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>N.60-61.1.1.</b> Lurraldeak aldi kritikoan kontrolatzeko eta zaintzeko plan bat ezartzea. Arreta berezia eskaini behar zaie habiak lapurtzeko aukera nahiz ale helduen hilkortasuna areagotu lezaketen faktoreen zantzu guztiei eta ugaltze-eremuetan izan litezkeen eragozpenak ahal den neurrian urritu. Belatz handiaren ugaltze-fenologia aintzat hartuta, haren aldi kritikoa otsailaren 20a eta ekainaren 2a bitartekoa izango da. Sai zuriaren kasuan, berriz, urrakortasun handiko alditzat ezarriko da martxoaren 15a eta irailaren 10a bitartekoa (maiatzean hasi eta uztaiera bitartean luzatzen da umealdia galtzeko arrisku handieneko aldia).</p> <p>Halaber dira aplikagarriak Gidalerro eta Arau hauek: <b>G.4.7, G.4.9, A.5.6, A.7.1, A.8.6 eta A.8.7</b></p>
<b>E.60-61.2 emaitza</b>	<b>Gaur egun haitzetako harrapariak aztertzeari buruzko kudeaketarekin jarraitu egingo da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>N.60-61.2.1.</b> Populazio-zentsuak egitea. Belatz handiaren eta sai zuriaren lurralde ezagun guztien eta erabil litezkeen inguruetan urtero populazioaren zentsuak egiten jarraituko da.</p> <p><b>N.60-61.2.2.</b> Ugaltze-parametroak aztertzea. Bikote ikusterrazenen kasuan ugaltze-parametroen urteroko azterketa egiten jarraituko da. Horretarako metodologia estandarrei jarraituko zaie, bi parametrori bereziki erreparatuta: ugaltze-arrakastari eta produktibitateari, hain zuzen.</p> <p>Halaber da aplikagarria Gidalerro hau: <b>G.4.8</b></p>
<b>E.60-61.3 emaitza</b>	<b>Espezieak kudeatzeko EAE mailako lege-tresnak abiaraziko dira.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	Halaber da aplikagarria Gidalerro hau: <b>G.4.6</b>

### GEM 62-64.- BASOETAKO HARRAPARIAK

Gako elementuen multzoa

#### **GE 62.- *Milvus milvus***

EB mailako intereseko taxona (A074). Miru gorria

#### **GE 63.- *Pernis apivorus***

EB mailako intereseko taxona (A072). Zapelatz liztorjalea

#### **GE 64.- *Circaetus gallicus***

EB mailako intereseko taxona (A080). Arrano sugezalea

Espezia	Gaztelania	Euskara	Hegaz- tiei buruzko Direktiba	EAEko katalo- goa	Espai- niako katalo- goa	Li- buru gorria	Bernako Hitzar- mena	Bonngo Hitzar- mena	42/2007 legea
<i>Milvus milvus</i>	Milano real	Miru gorria	I	KA	GA	AR	II	II	IV
<i>Pernis apivorus</i>	Abejero europeo	Zapelatz liztorjalea	I	B	-	AT	II	II	IV
<i>Circaetus gallicus</i>	Culebrera europea	Arrano sugezalea	I	B	-	AT	II	II	IV

### Egungo egoera

#### *Milvus milvus*

Basoko espezie filopatrickoa da. Haren banaketa habia egiteko euskarriek eta janari-iturriek baldintzatua da, azken hori lotuta dago hondakindegia, baserri eta abeltzaintzako ustiategiekin. (Viñuela, 2003).

Urdaibain azken urteotan ez dago ugalketa-erregistrorik (Cardiel, 2006; Consultora de Recursos Naturales, S.L., 2009b); beraz migratzaile moduan baloratu behar dugu. Hori horrela, egokitzat jo behar ditugu bai eremu barruko banaketa, bai populazioa, bereziki aintzat hartuz gero Bizkaian negutiarren kopurua ugaritu egin dela.

Dena dela, habitataren gaitasuna eta eskuragarritasuna korapilatsua da, zeren, alde batetik, nonahi baitago pase-garian eta negu-garaian; ez du ematen gainbeheran dagoenik. Baina ugaltzaile moduan desagertu izanak erakusten du, agian, aldaketak izan direla oraintsu Bizkaiko kostaldean.

Iberia mailan pairatzen dituen populazio-mehatxu nagusiak dira harraparien kontra legez kontra eta legez pozoia erabiltzea, gaizki isolatutako argindar-lerroak eta hondakindegia tradizionalak ixtea (Viñuela, 2003).

Urdaibaiko argindar-lineetan zuzenketak egin badira ere, eta zuzeneko heriotza eragin dezaketen bestelako faktore batzuk eremu geografiko jakin honetan apartekoak ez diruditez, ezezaguntzat hartu behar dira etorkizunerako aurreikuspenak, ez baitago jakiterik espeziari zer gertatuko zaion eremuan, aintzat hartuta Europa osoan pairatzen ari den gainbehera.

#### *Milvus milvus* - A074

Urdaibaiko Itsasadarreko HBEEa		Ezezaguna	
Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
Aldekoa	Aldekoa	Ezezaguna	Ezezaguna
Urdaibaiko kantauriar artadien KEBa		Ezezaguna	
Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
Aldekoa	Aldekoa	Ezezaguna	Ezezaguna

#### *Pernis apivorus*

Soilgune handiak dituzten hostozabaleko basoetako harraparia da zapelatz liztorjalea. Nahiago ditu hari-tza eta pogo, baina berin aipatu da gartzainadi, urkidi, artadi, pinudi eta ibarbasoetan (Prieta Diaz, 2003).

Urdaibain udatiarra da. Populazio habiagilea txikia da, baina egonkorra, beraz egokia. Urdaibaiko habitata, oro har, egokia ez bazaio ere, Urdaibaiko itsasadarreko KEBaren barruan eta Urdaibaiko artadi kantauriarren KEBean behintzat halakotzat hartu behar da.

Espezia honi buruzko informazioa hain da urria, non ezinezkoa baita jakitea zein diren penintsula mailan dituen benetako arriskuak. Habitataren eraldaketa aipatu ohi da lehen kausa gisa, bereziki hostozabaleko basoak pinu- eta eukalipto-landaketaz ordezkatzeagatik. Horren atzetik datoz arrautzak eta umeak berariaz lapurtzea, ugalketa-sasoiko ernegamenduak eta ehiza (Prieta Díaz, 2003). Urdaibaiko artadi kantauriarren KEBeko zapelatz liztorjalearen populazio habiagilearen etorkizunerako aurreikuspenak egokiak direla joa da, betiere baldin eta espeziearen ugalketa-habitataren eta ustiatze-habitataren egoera onik atxikiz gero.



<b><i>Pernis apivorus</i> - A072</b>			
Urdaibaiko Itsasadarreko HBBEa		<b>Aldekoa</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoak</b>
Urdaibaiko kantauriar artadien KEBa		<b>Aldekoa</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoak</b>
<b><i>Circaetus gallicus</i></b>			
<p>Espezie basozale hau artadi eta artelazdiei lotua da eta, ez hainbeste harizti eta pagadiei, betiere soilgu-neak dituztela, aztergune moduan erabiltzen baititu horiek (Mañosa, 2003). Behar ekologiko horiek direla, eta egoki iritzi zaio espeziearen habitat potentzialari Urdaibaiko itsasadarreko KEBean nahiz Urdaibaiko artadi kantauriarren KEBean.</p> <p>Udan Urdaibain ugaltzen da espeziea aspalditik, lurralde bakarra badu ere, Urdaibaiko artadi kantauriarren KEBean. Uste da populazio hori bat datorrela espazioak eskaintzen duen gaitasunarekin. Beraz, bai banaketa, bai populazioa, egokitzen jo dira.</p> <p>Arrano honek pairatzen dituen mehatxu nagusiak dira argindar-kableetan elektrokutatzea, nekazaritza-eremuetan izan den narrastien urritzea eta ehiza-lekuak sasiak hartzea (Mañosa, 2003). Etorkizunerako aurreikuspenei egoki iritzi zaie Urdaibain, mehatxurik handiena, elektrokuzio-arriskua hain zuzen, oso mugatu baita.</p> <p>Arrano sugezalearen Urdaibaiko kontserbazio-egoera egokitzen jo da, bertan ugaltzen den populazioak ez baitu zuzenean pairatzen esandako mehatxuetako bat ere, banaketa eta populazioa ere egokiak izanik.</p>			
<b><i>Circaetus gallicus</i> - A080</b>			
Urdaibaiko Itsasadarreko HBBEa		<b>Aldekoa</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>
Urdaibaiko kantauriar artadien KEBa		<b>Aldekoa</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>
<b>Baldintzagarriak</b>			
<p>Zapelatz liztorjalearen eta arrano sugezalearen populazio habiagileak eskura duten habitatarekin bat datozela jo da. Haatik, miru gorriaren populazioaren balorazioa egitean, paseko espezie moduan hartu da, ez ugaltzaile moduan, ez baitago azken urteotan ugalketari buruzko berririk.</p> <p>2007-2008 aldian, Urdaibaiko Biosferaren Erreserba barruko zenbait argindar-lineatan zuzenketak egin ziren hegaztien kontserbazioa goiburuz. Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitate Zerbitzuak eta Iberdrola Distribución-ek lankidetzan sustatu zuten proiektua, % 75-% 25 finantzatuta).</p> <p>Bizkaiko Foru Aldundiak urtetan sustatu du Bizkaiko basoetako harraparien segimendua, haien bioekologiari eta arazoei buruzko datuak bilduz. Dagoeneko idatzita dago Miru gorriaren Bizkaiko kudeaketa-planaren proposamena (Consultora de Recursos Naturales, S.L., 2009b).</p>			
<b>Helburuak eta neurriak</b>			
<b>X.62-64 xedea</b>	<b>Gaur egungo populazioa atxikitzea eta haren parametroak zein diren jakitea.</b>		

<b>E.62-64.1 emaitza</b>	<b>Gaur egun basoetako harrapariak kontserbatzera bideratutako kudeaketarekin jarraitu egingo da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>N.62-64.1.1.</b> Habiak uda osoan kontrolatzeko eta zaintzeko plan bat ezartzea Urdaibaiko eta Gaztelugatxeko Donieneko eremu osoan. Arreta berezia eskaini behar zaie habiak lapurtzeko aukera nahiz ale helduen hilkortasuna areagotu lezaketen faktoreen zantzu guztiei eta ugaltze-eremuetan izan litezkeen eragozpenak, basolanek eragindakoak batez ere, ahal den neurrian urritu.</p> <p>Halaber da aplikagarria Gidalerro hau: <b>G.4.9</b></p>
<b>E.62-64.2 emaitza</b>	<b>Gaur egun basoetako harrapariak aztertzerako bideratutako kudeaketarekin jarraitu egingo da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>N.62-64.2.1.</b> Populazio-zentsuak egitea. Urtero egingo dira zentsuak basoetako harraparien lurralde ezagun guztietan eta erabil litezkeen inguruetan, Urdaibai eta Gaztelugatxeko Donieneko esparruan.</p> <p><b>N.62-64.2.2.</b> Ugaltze-parametroak aztertzea. Bikote ikusterrazenen kasuan ugaltze-parametroen azterketa egingo da.</p> <p>Halaber da aplikagarria Gidalerro hau: <b>G.4.8</b></p>

### GEM 65-69.- ITSASOKO EDO ITSASERTZEKO HEGAZTI MIGRATZAILEAK

Gako elementuen multzoa

#### GE 65.- *Puffinus mauretanicus*

EB mailako intereseko taxona (A384). Balearretako gabaia

#### GE 66.- *Calonectris diomedea*

EB mailako intereseko taxona (A010). Gabai arrea

#### GE 67.- *Uria aalge*

EB mailako intereseko taxona (A199). Martina

#### GE 68.- *Puffinus puffinus*

EB mailako intereseko taxona (A013). Gabai arrunta

#### GE 69.- *Sula bassana*

EB mailako intereseko taxona (A016). Zanga

Espezia	Gaztelania	Euskara	Hegaztiei buruzko Direktiba	EAEko katalogoa	Espainiako katalogoa	Liburu gorria	Bernako Hitzarmena	Bonngo Hitzarmena	42/2007 legea
<i>Puffinus mauretanicus</i>	Pardela balear	Balearretako gabaia	I	-	GA	AL	III	-	IV
<i>Calonectris diomedea</i>	Pardela cenicienta	Gabai arrea	I	-	KA	AR	III	-	IV
<i>Uria aalge</i>	Arao común	Martin arrunta	-	-	-	AL	III	-	IV
<i>Puffinus puffinus</i>	Pardela pichoneta	Gabai arrunta	-	-	KA	AR	II	-	-
<i>Sula bassana</i>	Alcatraz atlántico	Zanga	-	-	-	-	III	-	-

**Egungo egoera** (batera deskribatzen da)

Itsas hegazti migratzaileen taldea, gako elementua baita, EB mailako interesa duten bi espeziek (*Puffinus mauretanicus* eta *Calonectris diomedea*) eta eskualde mailako intereseko beste hiruk (*Uria aalge*, *Puffinus puffinus* eta *Sula bassana*) osatzen dute.

Urdaibain eta Gaztelugatxeko Donienen pase-garaian ikusten dira guztiak, gehien bat ekainetik hasi eta abendura bitartean, kostatik gertu (Matxitxako aldean gehiena). Enbata handiekin kostan pilatu daitezke eta inoiz Urdaibaiko padurara sartu ere bai (Hidalgo eta Del Villar, 2004).

Beraz, bost espezie horiek banaketa egokia dute Urdaibaiko itsasadarraren HBBEaren eta Urdaibaiko itsasertzeko eta paduren KEBaren eta Gaztelugatxeko Donieneko KEBaren barruan. Hala eta guztiz ere, hegazti hauen bertako populazioa zenbatekoa den ez da datu jakina; gehienez ere EAEko itsas eta ur-hegazti negutiarren zentsuen emaitzak daude eskura, eta hori, eskuartean dugun esparruari dagokionez, Gernikako itsasadarrean baizik ez dira egiten. Hala, gehienez ere Balearretako gabai bat aipatu da (2004an) eta 37 martin (2006an) (IKT, S.A., 2000-2005, 2006a, 2007a eta 2008b). Horrez gain zenbait kontaketa partzial egiten dira Matxitxakotik begiratuta, baina ez dira nahikoak berez migrazio-fluxuaren estimazioa egiteko ez eta joerak erazteko.

Oro har, bost espezieen kasuan, esan liteke eskura dagoen bibliografian aipatzen diren mehatxu nagusiak direla habia egiteko habitaten galera eta narriadura, arrantzarekiko interakzioa, uraren poluzioa eta janariaren eskuragarritasuna (Arcos eta Oro, 2004; Carboneras, 2004; Mouriño *eta al.*, 2004; Ramos, 2004). Pasaleku moduan, Urdaibaik eta Gaztelugatxeko Donienek habitat egokia eskaintzen dutela jo da.

Bost espezie horietan bat bera ere ez denez bertan umatzen, etorkizunerako aurreikuspenak, neurri handi batean, ugaltze-eremuetako bilakaerari lotuta egongo dira. Hala, Iberia mailan «galtzeko arriskuan» dauden espezieen kasuan (alegia, Liburu Gorrian «Arriskuan» zein «Arrisku Larrian» kategorietan daudenak: Balearretako gabaia, martina, gabai arrea eta gabai arrunta), horien aurreikuspenak ezezaguntzat jo dira, gure esparrutik kanpo zer gertatzen den ezezaguna baita. Dena dela, Zangaren etorkizunerako aurreikuspenak ontza jo dira.

<b><i>Puffinus mauretanicus</i> - A384</b>			
<i>Urdaibaiko Itsasadarreko HBBEa</i>		Ezezaguna	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Aldekoa	Ezezaguna	Aldekoa	Ezezaguna
<i>Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa</i>		Ezezaguna	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Aldekoa	Ezezaguna	Aldekoa	Ezezaguna
<i>Gaztelugatxeko Donieneko KEBa</i>		Ezezaguna	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Aldekoa	Ezezaguna	Aldekoa	Ezezaguna

<b><i>Calonectris diomedea</i> - A010</b>			
<i>Urdaibaiko Itsasadarreko HBBEa</i>		Ezezaguna	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Aldekoa	Ezezaguna	Aldekoa	Ezezaguna
<i>Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa</i>		Ezezaguna	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Aldekoa	Ezezaguna	Aldekoa	Ezezaguna
<i>Gaztelugatxeko Donieneko KEBa</i>		Ezezaguna	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Aldekoa	Ezezaguna	Aldekoa	Ezezaguna

2013ko abenduaren 24a, asteartea

<b>Uria aalge - A199</b>			
Urdaibaiko Itsasadarreko HBBEa		Ezezaguna	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	Ezezaguna	<b>Aldekoa</b>	Ezezaguna
Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa		Ezezaguna	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	Ezezaguna	<b>Aldekoa</b>	Ezezaguna
Gaztelugatxeko Donieneko KEBa		Ezezaguna	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	Ezezaguna	<b>Aldekoa</b>	Ezezaguna
<b>Puffinus puffinus - A013</b>			
Urdaibaiko Itsasadarreko HBBEa		Ezezaguna	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	Ezezaguna	<b>Aldekoa</b>	Ezezaguna
Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa		Ezezaguna	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	Ezezaguna	<b>Aldekoa</b>	Ezezaguna
Gaztelugatxeko Donieneko KEBa		Ezezaguna	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	Ezezaguna	<b>Aldekoa</b>	Ezezaguna
<b>Sula bassana - A016</b>			
Urdaibaiko Itsasadarreko HBBEa		<b>Aldekoa</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	Ezezaguna	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoak</b>
Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa		<b>Aldekoa</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	Ezezaguna	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoak</b>
Gaztelugatxeko Donieneko KEBa		<b>Aldekoa</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	Ezezaguna	<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoak</b>
<b>Baldintzagarriak</b>			
<p>Espezie hauek Urdaibain eta Gaztelugatxeko Donienen duten populazio-estatusa ugaltze-eremuan dutenaren arabera da: oro har, kolokan dago hura. Askok murrizten du horrek kontserbazioaren alde esku hartzeko aukera; hala, oro har ezezaguntzat jo da kontserbazio-egoera. Eremuko kontserbazio-egoeraren balorazioa egingo bada, gutxienez populazioen joeren berri izan behar litzateke.</p>			
<b>Helburuak eta neurriak</b>			
<b>X.65-69 xedea</b>	<b>Populazioaren parametroak zein diren jakitea.</b>		
<b>E.65-69.1 emaitza</b>	<b>Paseko hegaztien populazioen joera zein den jakingo da.</b>		
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>N.65-69.1.1.</b> Urtean behin hegazti migratzaileen populazioen zentsuak egitea berrogeita hamar egunez. Zentsua erlatiboa izango da, eta ahalegin jarraituko behaketaren bidez gauzatuko da; Matxitxako parean pasatzen diren espezieen populazioaren joerak hautemateko aukera emango du.</p>		

**GEM 70-71.- ESTUARIOKO HEGAZTI MIGRATZAILEAK**

Gako elementuen multzoa

**GE 70.- *Platalea leucorodia***

EB mailako intereseko taxona (A034). Mokokabala

**GE 71.- *Pandion haliaetus***

EB mailako intereseko taxona (A094). Arrano arrantzalea

Espezia	Gaztelania	Euskara	Hegaztiei buruzko Direktiba	EAEko katalogoa	Espainiako katalogoa	Liburu gorria	Bernako Hitzar-mena	Bonngo Hitzar-mena	42/2007 legea
<i>Platalea leucorodia</i>	Espátula común	Mokokabala	I	KA	-	KA	II	II	IV
<i>Pandion haliaetus</i>	Águila pescadora	Arrano arrantzalea	I	B	KA	AL	II	II	IV

**Egungo egoera*****Platalea leucorodia***

Mokokabala hartu da Urdaibai bisitatzen duten espezie guztietan kontserbazioaren interesaren ikuspegitik interes handienekotzat. Tokiaren balio naturalen aintzatespen handia izateaz gain, hura ondo kudeatzeko konpromisoa dakar berekin horrek (Del Villar *eta al.*, 2007). Horren isla da, besteak beste, populazioa ongien ezagutzen deneko espeziea izatea, 1990eko hamarkadaren erdialdeaz geroztik baitaude Urdaibaiko eztei-ondoko migrazio-bolumenari buruzko datuak, egin den segimenduari esker.

EAEen «migratzailea eta, inoiz, negutiar gisa» jokatzeko du (Ganzarain, 1998). Kantauriaren ekialdeko kostan egiten dituen geldiuneak haren migrazio-ibilbideko zedarri kritikoak dira, Iberia zeharkatu aurretik egiten dituen azken eskala teknikoak baitira. Mendebaldeko Europako populazioaren frakzio handi bat eztei-ondoko pasean Urdaibaiko itsasadarrean urtero agertzen dela ikusi da, Kantauriko beste zenbait estuariotan ere bai (Garaita eta Del Villar, 2006b).

Iberiatik iparralderago (Frantzia eta Herbeheretan, batik bat) umatzen diren mokokabalen % 10, gutxienez, Urdaibaiko paduran geldialdi bat egiten dute beren migrazio-bidaian (Del Villar *et al.*, 2007). Urdaibaiko paduran eztei-ondoko migrazioan zentsatu ziren mokokabalen batezbestekoa (1995-2010 urteen artean)  $567,5 \pm 246,4$  izan zen (heina: 271-1.166; 1996 eta 2007an, hurrenez hurren) -ikus eranskinetan Garaita eta Del Villar, 2007; Del Villar *et al.*, 2007; Garaita eta Del Villar, 2008a; Garaita, 2009 eta 2010 lanetatik abiatuta egokitu den grafikoa)-.

Europa iparraldeko populazioaren goranzko joerak ez du isla proportzionalik izan Urdaibain eztei-ondoko migrazioan ikusten diren kopuruetan, 2007an izan ezik. Orduan aurreko urtearekiko % 52,92ko igoera erregistratu zen (Garaita eta Del Villar, 2007a; Del Villar *et al.*, 2007).

Eskura dugun azken zentsua 2010eakoa da. Orduan 975 mokokabal zenbatu ziren, 17 egunetan banatutako 43 sarreretan. Zenbait ale hainbat egunez izan baitziren paduran, 27 eguneko iraunaldia kontabilizatu zen Urdaibain (Garaita, 2010).

Sakonera txikiko ur-masei, -bereziki kostakoei- lotutako hegaztia da, ura gazia, geza nahiz gazikara izanik ere. Urdaibain marearteko habitat lohi-hondartsua (1140) du maiteena atsedean hartzeko zein migrazio-aldian han elikatzeko. Dagoeneko egiaztatu da Gautegiz-Arteagan sortu berri den aintzira berria (1150 habitat lehenetsia).

Urte guztietan erabilitako eremua gainjarrita, espezieak Urdaibain erabil lezakeen eremuaren azalera totala kalkulatu da, eta emaitza 240 ha inguru izan da, goitik jota. Mokokozabalak erabiltzeko moduko padura-eremuak Axpe eta Kanala ditu ipar-mugak eta Anbeko Errotako polder ohia hegoaldekoa. Kostatik gertuago dauden hondartzak ez dituzte erabiltzen, eta ia ez dira sekula Gernika alderantz barneratzen itsasadarrean (Del Villar *et al.*, 2007). Azken lau urteotan, baina, goranzko joera sumatu da mokokozabalek benetan erabiltzen duten eremuaren azalera: 2010ean azalera potentzialaren % 63,33 erabili zuten, 2007an eta 2008nan bezala (190 ha 2007an; 107 ha 2008an), baina 2009an baino gutxiago (208 ha) (Garaita eta Del Villar, 2007a eta 2008a; Garaita, 2009 eta 2010); hori dela eta Urdaibain duen banaketa egokitzat jo da.

Balorazio-taula laburrean ikus daitekeenez, populazioaren balorazioa ere egokia da, etorkizuneko aurreikuspenak bezalaxe. Haatik, espezieak lurraldeari ematen dion erabilera giza presioek eragindako distortsioen eragina pairatzen du (hegaztiak ez dira luzaro gelditzen Urdaibain; izan ere, etortzen diren mokokozabaletatik asko pausatu ere ez dira egiten). Horri dela eta, desagokitzat jo da habitataren egoera.

Hegazti honek Urdaibain pairatzen dituen arazo larrietako gehienak turistek, enbarkazioek eta itsaski-bilketak eraginak dira. Garaitak eta Del Villarrek (2006b) zenbait arrisku- nahiz muga-faktore iradoki dituzte:

- Espeziearentzat egokiak diren eremuak urriak izatea Urdaibain.
- Marea altuan atsedean hartzeko moduko leku eskas egotea.
- Janaria urria izatea (nahiz eta denbora gehiena atsedean hartzen eman).
- Eragozpenak egotea (nahiz eta itxuraz arina izan, espazio txiki batean gertatuz gero baldintza-garria izatera irits liteke).

Padurara sartzeko joera duten jarduerak, hala nola nabigazioak eta itsaski-bilketak) eragin ohi diete eragozpen handienak hegaztiei. Bestelako jarduera turistikoek eta bisitaldi gidatuek ez dira hain inbadigarriak, eta eragozpen txikiagoak eragiten dituzte (Garaita eta Del Villar, 2006b). Halaber aipatu da nahiz eta Urdaibaiko argindar-kableek espezieari eragindako heriotza-tasari buruzko daturik egon ez, hori arrisku-faktore izan litekeela (Del Villar *et al.*, 2007).

Hautemandako eragozpen guztiak, arrano arrantzaleak eta belatz handiak eragindakoak izan ezik, giza-kiak eragindakoak dira, eta horietan itsaski-biltzaileek eta enbarkazioek uxatzen dituzte hegazti gehien.

<b>Platalea leucorodia - A034</b>			
<i>Urdaibaiko Itsasadarreko HBBEa</i>		<b>Desegokia</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Desegokia</b>	<b>Aldekoak</b>
<i>Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa</i>		<b>Desegokia</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Aldekoa</b>	<b>Aldekoa</b>	<b>Desegokia</b>	<b>Aldekoak</b>

### **Pandion haliaetus**

EAEn, espezie migratzailea da arrano arrantzalea; inoiz negu-pasa ere gelditzen da. Urdaibain, Txingudin eta Zadorrako urtegietan baizik ez da sedimentatzen ia (Galarza, 2009). Hilabete guztietan ikusten dira arrano arrantzaleak Urdaibain, oro har Euskal Herrian ikusten den patroia berari jarraikiz. Eztei-ondoko migrazioan izaten da ugariena, irail eta urrian, eta bada bigarren joaldi bat udaberriko pasean, martxo-apirilean. Uda hasierara arte ere ikusten da ale bat edo beste (Galarza, 2009).

Urdaibain dozena bat aletik gora ikusten da urtero, eta azken urteotan kopuruak gora egin du. Pasekoa baino ez den hegazti moduan baloratu behar da, ez baitago eskualdean ugalduta izanaren erregistro historikoa. Eztei-ondoko pasean, estuarioan barrena ondo banatuta ageri da arrano arrantzalea, arrantzan jarduteko moduko ibilguak eta ur txikiko tokiak miatzen (1110, 1130 eta 1140 habitatak). Miatze-azalera totala 670 ha ingurukoa da, estuarioaren behe-aldea eta kostako ur txikia barne hartuta. Kosta beteko toki batzuetara ere iristen da, hala nola Mundakara eta Bakiora (Hidalgo eta Del Villar, 2004; Galarza, 2009).

Urdaibaira agertzen diren aleak zenbait egunez luzatzen dira, ia beti, inguruan. Horrek parada ematen du pentsatzeko itsasadarrak betetzen dituela espezieak elikatzeke eta atsedean hartzeko behar dituen bete-beharrak (Garaita *et al.*, 2002-2004, Garaita eta Del Villar, 2005, 2006b, 2007 eta 2008; Garaita, 2009). Kotategiak basoetan eratzten dira (kantauriar artadietan), arrantza-lekuetatik kilometro bat baino gertuago eta errepide, bide eta baserrietatik urrun (Galarza, 2009).

Gutxienez ale bat hauteman da negua bertan igarotzen. Kopuru urri hori espezieak egonaldian pairatzen dituen presioei zor zaiela jo da; neurri handi batean mokozabalaren kasuan aipatu direnak berak dira (itsasadarreko ibilguetan nabigatzea eta abar). Horrez gain, gutxienez bada elektrokuzio bidezko heriotza baten berri, 2006. Urtean (Consultora de Recursos Naturales, S.L., 2007b). Beraz, habitata desegokitzen jo behar da.

Urdaibain argindar-lineen hainbat oin konpondu badira ere (besteak beste, 2006ko heriotza eragin zutena), nahiz eta espeziea kontserbatzeko berariazko proiektu bat egon eta bikote habiagileak bertan geraraztea sustatu nahiagatik ere, tokiko etorkizuneko aurreikuspenak populazio ugaltzailearen egoeraren baitakoak izango dira («Galtzeko arriskuan», Liburu Gorriak dioenez); beraz, ezezaguntzen jo dira.

<b>Pandion haliaetus - A094</b>			
Urdaibaiko Itsasadarreko HBBEa		Desegokia	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Aldekoa	Aldekoa	Desegokia	Ezezaguna
Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa		Desegokia	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Aldekoa	Aldekoa	Desegokia	Ezezaguna
Urdaibaiko kantauriar artadien KEBa		Aldekoa	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Aldekoa	Aldekoa	Aldekoa	Aldekoa

### Baldintzagarriak

Nahiz eta espezie hauek Urdaibain eskura duten habitata mugatua izan, estuarioaren beraren tamaina dela eta, batik bat, badirudi bertan mokozabalak, arrano arrantzaleak eta bestelako espezie migratzaileak ugariago izango lirakeela padura inbaditzeko joera duten zenbait giza jarduerarik ez balego. Eragozpen handienak aisia-nabigazioak eta ubideetan egiten diren uretako beste kirol batzuek eta itsaski-bilketak eragiten dituzte.

Hegazti migratzaileetan hauexek dira ezagunenak, Urdaibain 1995az geroztik egiten den mokozabalaren eztei-ondoko migrazioaren jarraipena dela eta. Estuarioan barrena pasatzen den populazioa kuantifikatzea du helburua, baina espezieak zer arazo pairatzen duen, nola portatzen den eta aleak nondik datozen (eraztunak irakurriz) hautemateko ere balio du. Horrez gain, una hauetan arrano arrantzaleari buruzko informazioa ere ari dira sistematikoki biltzen. Espezie hori dela eta, izan ere, interes berezia piztu da, eta oraintsu populazio-azterketak egiteari ekin zaio eraztuntze zientifikoaren bitartez. Une hauetan Urdaibain populazio ugaltzaile bat ezartzeko lanetan ari dira, habia artifizialak eta apeuak ipinita.

Marea altuan elikatze-gune- eta atsedeenleku-eskasiari aurre egiteko, 2009an Arteagako paduran ingurumen-hobekuntzako proiektu bati ekin zitzaion. Halaber idatzi da Oka ibaiaren goi-estuarioa zeharo leheneratzeko proiektu bat, Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak sustatua eta Natura 2000 Sareko zenbait gako elementuren kontserbazio-egoera hobetzeko neurriak biltzen dituen. Ekimen horien helburua da bi espezieontzat habitat gehiago izatea eskura.

2007-2008 aldian, Urdaibaiko Biosferaren Erreserba barruko zenbait argindar-lineatan zuzenketak egin ziren hegaztien kontserbazioa goiburua. Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitate Zerbitzuak eta Iberdrola Distribucion-ek lankidetzan sustatu zuten proiektua, % 75-% 25 finantzatuta). Urdaibaiko itsasadarraren HBBEa zeharkatzen duten linea gehienak dagoeneko zuzendu dira, baina zuzentzeke dago oraindik kolisio-arrisku handieneko lineetako bat. Izan ere, Oka ibaiaren goi-estuarioa zeharo leheneratzeko proiektuaren I. fasean (Tragsa, 2011), hain zuzen, B argindar-linea ezabatu da, aurreko azterlanek premia handienekotzen jo zutena (Consultora de Recursos Naturales, S.L. 2007).

Helburuak eta neurriak	
<b>X.70-71 xedea</b>	<b>Populazioaren parametroak zein diren jakitea eta espezie hauek estuarioa atsedenleku eta elikatze-gune moduan erabiltzeko aukera gehiago izatea. Arrano arrantzaleari ugal dadin jardun.</b>
<b>E.70-71.1 emaitza</b>	<b>Ikertzeari bideratutako gaur egungo kudeaketari jarraipena emango zaio, beste espezie migratzaileetara hedatuta.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>N.70-71.1.1.</b> Populazio-zentsuak egitea. Mokokabalaren eta arrano arrantza-learen eztei ondoko migrazioaren urteroko segimendurekin jarraitzea. Zentsua absolutua eta intentsiboa izango da, eta 50 egunez luzatuko da (abuztuaren 21a eta urriaren 10 bitartean), egun-argiz betiere. Hegaztien eraztunen irakurketak eta hautematen diren portaerak eta habitat-hautespenak idatziz jasoko dira. Horrez gain, arrano arrantza-learen eztei ondoko pase-garaitik kanpo hautemango balitz, ugaltze-sasoian batik bat, horien segimendua ere egingo da.</p> <p><b>N.70-71.1.2.</b> Populazio-zentsuak egitea. Estuarioko hegaztien populazioen segimendua urtero egitea asteen behin Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBean diren ur-hegazti guztien zentsuak eginez, goizez.</p>
<b>E.70-71.2 emaitza</b>	<b>Espezie hauek estuarioa atsedenleku eta elikatze-gune moduan erabiltzeko aukera gehiago izatea.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>N.70-71.2.1.</b> Estuarioaren erabilera publikoari lotutako arau berriak dibulgatzeko kanpainak gauzatzea.</p> <p>Halaber dira aplikagarriak Gidalerro, Arau eta Neurri hauek: <b>G.9.2, A.5.3, A.8.1, A.8.2, A.8.3, N.3.1.1 eta N.3.1.2</b> Halaber taxon aloktonoen kontrolarekin lotutako neurriak.</p>

## GEM 72-76.- MEHATXATUEN DAUDEN KIROPTEROAK

Gako elementuen multzoa

### GE 72.- *Rhinolophus euryale*

EB mailako intereseko taxona (1305). Ferra-saguzar mediterraneo

### GE 73.- *Myotis emarginatus*

EB mailako intereseko taxona (1321). Geoffroyren saguzarra

### GE 74.- *Miniopterus schreibersii*

EB mailako intereseko taxona (1310). Koba-saguzarra

### GE 75.- *Rhinolophus ferrumequinum*

EB mailako intereseko taxona (1304). Ferra-saguzar handia

### GE 76.- *Rhinolophus hipposideros*

EB mailako intereseko taxona (1303). Ferra-saguzar txikia



Espezia	Gaztelania	Euskara	Habitatai buruzko Direktiba	EAEko katalogoa	Espainiako katalogoa	Liburu gorria	Bernako Hitzar-mena	Bonngo Hitzar-mena	42/2007 legea
<i>Rhinolophus euryale</i>	Murciélago mediterráneo de herradura	Ferra-saguzar mediterráneo	II/IV	GA	KA	KA	II	II	II/V
<i>Myotis emarginatus</i>	Murciélago ratonero pardo	Geoffroyren saguzarra	II/IV	KA	KA	KA	II	II	II/V
<i>Miniopterus schreibersii</i>	Murciélago de cueva	Koba-saguzarra	II/IV	KA	KA	KA	II	II	II/V
<i>Rhinolophus ferrumequinum</i>	Murciélago grande de herradura	Ferra-saguzar handia	II/IV	KA	KA	IA	II	II	II/V
<i>Rhinolophus hipposideros</i>	Murciélago pequeño de herradura	Ferra-saguzar txikia	II/IV	KA	-	IA	II	II	II/V

### Egungo egoera

#### *Rhinolophus euryale*

Ferra-saguzar mediterraneoak leize-zuloetan bizi den oso espezie taldekoa da; ugaltze-sasoian 600 aleko taldeak ere era ditzake. Miatze-eremuak 10 km inguruko erradioa du kolonien inguruan, eta baso hostogalkorrei eta heskaiei lotuta (Goiti eta Aihartza, 2007). Gainbehera handia pairatu du azken hamarkadetan, 1960kotik hona lehen bizi zen EAEko makina bat tokitatik desagertu baita.

Urdaibain ez da ugaltze-koloniarik deskribatu; hurkoena Aulestin dago (UBEtik ekialderantz). Rallok *et al.*, (2001) udaberriko bi gordeleku aipatu zituzten eskualdean: Bata Kortezubiko Basondoa auzoko baserri batean zegoen; bestea, berriz, Busturiko San Pedro leize-zuloan. Ferra-saguzar mediterraneoak eremuan duen populazioari dagokionez, berriz, Rallok *et al.* (2001) 40-45 alera arteko kopurua eman zuten Busturiko San Pedro leize-zulorako, eta aleren bat edo beste baserri batean.

Azterlan hartan miatu ziren 35 gordeleku (10 leize eta 25 baserri) posibleetatik bitan baizik aurkitu ez zela kontuan izanda, eta aintzat hartuta espeziea hau paseko moduan baloratu behar dela (alegia, ez-ugaltzaile gisa), banaketa desegokitzen jo da. Ez da txartzat eman ezin izan delako ebatzi KEBaren barruan ugaltzeari utzi dion ala ez. Bestalde, nahiz eta gauza jakina den espeziea gainbeheran dagoela EAEn, esandako gordeleketan zer populazio-joera duen ezezaguna da.

Kiroptero honentzat deskribatutako mehatxu-faktore nagusiak dira gordeleketan koloniei egiten zaizkien eragozpenak (oso sentikorra baita), gordelekuak galtzea, intsektizida organokloratuak erabiltzea eta habitat naturalak eraldatzea (Aihartza, 2004). Zenbait gordeleku babesteko neurriak hartu badira ere, espeziearen esku dagoen habitata eskasa eta kalitate gutxikoa da. Izan ere, ez da ugaltzen Urdaibaiko Kantauriar Artadien KEBean.

*Rhinolophus euryal*eren populazioak Urdaibaiko Kantauriar Artadien KEBean dituen etorkizunerako aurreikuspenak baloratzea zaila da, espezieari buruzko oso informazio gutxi baitago eta hura lagintzeak oso teknika bereziak eskatzen baititu. Dena dela, EAEn «Galtzeko arriskuan» izendatuta egoteak etorkizunerako aurreikuspen desegokiak iradokitzen ditu.

#### *Rhinolophus euryale* - 1305

Urdaibaiko kantauriar artadien KEBa		Desegokia	
Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
Desegokia	Ezezaguna	Desegokia	Desegokiak

**Myotis emarginatus**

Saguzar hau ere leizezalea da, neguan batik bat. Leize eta eraikin epelak okupatzen ditu orduan. Udan ere, haatik, erabiltzen ditu zuhaitz eta zubietako zirrikitu eta arrakalak. Hainbat motatako landaretza artean ageri ohi da; hala ere baso sarriak saihestu egiten ditu (Aihartza *et al.*, 2002 eta Quetglas, 2007).

Aihartzak (2004) ugaltze-kolonia bat aurkitu zuen Busturiko San Pedro leize-zuloan, EAEko handiena (1998an 264 ale zenbatu ziren, izan ere). Gordeleku hau beste espezie batzuekin partekatua da: *Rhinolophus ferrumequinum*, *R. euryale* eta *Miniopterus schreibersii*. Informazio hori guztia dela eta, San Pedro «Gordeleku lehenetsi» moduan babesteko proposatu dute EAEko Kiropteroen Ekintza Planean (Aihartza *et al.*, 2002).

Espezie filopatrickoa da, sedentarioa, eta ez du 40 km baino gehiago egin ohi negu-gordelekuen eta ugaltze-gordelekuen artean. Urdaibain, emeak Busturiko San Pedron hasten dira elkartzen, 44 inguru elkartu arte; horietako batzuk, gero, Kortezubiko Basondoko baserri bateko gordeleku batera mugitzen dira. Han beste eme batzuekin elkartzen dira, 80 bat izan arte, eta izen bereko baserria okupatzen dute gero (Rallo *et al.*, 2001).

Kontuan izanda azterlan hartan miatu ziren 35 gordeleku posibleetatik (10 leize eta 25 baserri) espeziea 3tan besterik ez zela agertu, eta ugaltze-kolonia bakarra dagoela, espezie ugaltzaile moduan KEBaren banaketa txarra daukala esan behar da. Bestalde, ezezaguna da zer populazio-joera duten gordelekuek eta ugaltze-koloniak.

Deskribatu diren mehatxu-faktoreak, besteak beste, zura gai organokloratuekin tratatzeak gordelekuetan eragindako toxikazioak, gordelekuetako turismoa eta gordelekuak gaizki ixtea dira (Quetglas, 2007; Aihartza, 2004).

Nahiz eta San Pedro leizea babesteko neurria hartu diren, espeziearentzako habitat-eskuragarritasunari eta habitataren kalitateari desegoki iritzi behar zaie; beste hainbeste etorkizunerako aurreikuspenei dagokienez, ezagutzen den ugaltze-kolonia bakarra jabego pribatuko eraikin batean baitago. Zaintzarazo bat ekar lezake horrek.

<b>Myotis emarginatus - 1321</b>			
Urdaibaiko kantaular artadien KEBa		Txarra	
Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
Txarra	Ezezaguna	Desegokia	Desegokia

**Miniopterus schreibersii**

Koba-saguzarra leizezalea da, jakina: zulo natural (leizetan) zein artifizialetan (meatze eta tuneletan) bizi da ia bakarrik, ordekan nahiz mendialdean, landaretza ugari nahiz urriko eskualdeetan (De Lucas, 2007). Oso filopatrickoa da.

Urdaibaiko artadi kantaularren KEBean ez da ugaltze-koloniarik ezagutzen; haatik, Busturiko San Pedro leizean bada udaberriko elkartze-kolonia bat, 1999an 400 ale bildu zituena. Horietako batzuek Guadalajaran umatzen dira (Gaztela-Mantxa), Urdaibaitik 250 km-ra (Rallo *et al.*, 2001).

Azterlan hartan miatu ziren 35 gordeleku (10 leize eta 25 baserri) posibleetatik bitan baizik aurkitu ez zela kontuan izanda, eta aintzat hartuta espeziea hau paseko moduan baloratu behar dela (alegia, ez-ugaltzaile gisa), banaketa desegokitza jo da. Ez da txartzat eman ezin izan delako ebatzi KEBaren barruan ugaltzeari utzi dion ala ez. Bestalde, nahiz eta gauza jakina den espeziea gainbeheran dagoela EAEn, esandako gordelekuan zer populazio-joera duen ezezaguna da.

Gordelekuak galtzea eta gizakiak ugaltze-sasoian nahiz neguteko hibernazioan eragindako eragozpenak dira koloniak desagertzeko arrazoi nagusiak. Ikaragarri sentikorra da gordelekuak burdinsare bertikalez ixtearekiko (De Lucas, 2007). Halaber aipatu da habitat naturalaren kalitate-galera, besteak beste intsektizida organokloratuak neurririk gabe erabiltzeagatik (Aihartza, 2004).

San Pedroko leizean babes-neurriak hartu badira ere, espeziearentzako habitat-eskaintzari eta haren kalitateari desegoki iritzi behar zaie. Berdin etorkizunerako aurreikuspenei: zaila da Urdaibain ugaltzea hain filopatrickoa izanda.

<b><i>Miniopterus schreibersii</i> - 1310</b>			
Urdaibaiko kantauriar artadien KEBa		Desegokia	
Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
Desegokia	Ezezaguna	Desegokia	Desegokia

### ***Rhinolophus ferrumequinum***

Ferra-saguzar handia espezie ubikista da, nonahi bizi da, lurpeko zein eraikinetako (ganbarak eta) gordelekuak erabiltzen ditu. Ugaltzeko, baina, giza eraikuntzak hautatu ohi ditu, eta horretarako 30-100 aleko koloniak eratzen ditu, inoiz 300ekoak ere. Aztertze-eremuak gordelekuetatik 3-4 km-ra egon ohi dira, baso-bazterretan, heskai artean eta, eta han, harrapakinak bilatzeko, kota jakinetan pausatzen dira gaez (De Paz, 2007).

Urdaibaiko 9 tokitan hauteman da ferra-saguzar handia: 5 leizetan –Ondaro, Mestretxu Etxebarri, Atxaga, Busturiko San Pedro eta Santimamiñe– eta 4 eraikinetan –Mestretxu Etxebarri eta Argatxa baserriak, Ibarrangeluko Real Mansion de Asua eta Arteagako gaztelua– (Rallo *et al.*, 2001). Populazio-mailari dagokionez, Rallok *et al.* (2001) ugaltze-kolonia bat aurkitu zuten Urdaibain, 15 bat alekoa, Kortezubiko Mestretxu Etxebarri baserrian, 15 ale arretako udal-kolonia bat Nabarnizko Ondaroko koban, 4 eme erditzeaz Gautegiz Arteagako Argatxa baserrian eta ama erdiberri bat Kortezubiko Mestretxu Etxebarriko koban; gainerako tokietan ale solteak aurkitu zituzten.

Aztertutako 10 koba posibleetatik 5etan eta 25 eraikinetatik 4tan agertu zela eta 2 tokitan baino ugaltzen ez dela kontuan hartuta, KEBaren barruan banaketa desegokia dela ebatzi da, ugaltzaile moduan. Bestalde, ezezaguna da zer populazio-joera duten gordelekuak.

Deskribatu diren mehatxu handienak dira gordelekuak eraldatzea, koloniei eragindako eragozpenak, etxebizitzak birgaitzea eta gai organokloratuekiko tratamenduak. Halaber dira mehatxu paisaiaren eraldaketak eta pestizida orokorrak kontrolik gabe erabiltzeak elikatze-habitatari eragindako narriadura eta galera (De Paz, 2007). Kalte horiekin lotuta, Santimamiñeko ugaltze-kolonia desagertu izana aipatu behar da (1960ko hamarkadan 5 eme eta ar bat kontatu ziren). Ondare arkeologikoa babesteko burdinsare bertikala jartzeak eragin zuen galera, hori saguzarrek ezin baitute igaro (Rallo *et al.* 2001; Aihartza, 2004).

Aipatu kalte horien ondorioz, Urdaibaiko artadi kantauriarren KEBeko habitata desegokia dela jo da, hartan hainbat eragin bateratzen baitira, hala nola miazte-habitataren zatikaketa eta gordelekuaren eraldaketa. Halaber, aintzat hartuta esandako gordelekuetako batzuk jabego pribatuko elementuetan kokatuta daudenez, etorkizuneko aurreikuspenei ere desegoki iritzi zaie.

<b><i>Rhinolophus ferrumequinum</i> - 1304</b>			
Urdaibaiko kantauriar artadien KEBa		Desegokia	
Banaketa	Populazioa	Habitata	Etorkizunerako aurreikuspenak
Desegokia	Ezezaguna	Desegokia	Desegokiak

### ***Rhinolophus hipposideros***

Ferra-saguzar txikia leizetarra da, funtsean, neguan; hala ere, ugaltze-koloniak eratzeko eraikin hutsak eta ganbarak okupatzen ditu. Gordeleku horiek miazte-eremuetatik (hostozabaleko basotxoak, heskaiak eta ibarbakoak) gertu izan ohi dira (Aihartza *et al.*, 2002).

Urdaibaiko sei tokitan aipatzen dute Rallok *et al.* (2001) espeziea; horietatik bi leizeak dira –Ondaro eta Busturiko San Pedro– eta lau, berriz, eraikinak –Arteagako eliza, Errigoitiko Sanllabanteko baseliza, Nabarnizko eliza eta Arteagako gaztelua–.

Txikiak izan ohi dira ugaltze-koloniak, dozena gutxikoak. Halako bat aurkitu zen Arteagako elizako ganbaran, 14 emek osatua, eta beste bat, 20 eme ingurukoa, Sanllabanteko basilizan. Gainerako tokietan ale solteak aurkitu ziren (Rallo *et al.*, 2001).

Aztertutako 10 koba posibleetatik 2tan eta 25 eraikinetatik 4tan agertu zela eta 2 tokitan baino ugaltzen ez dela kontuan hartuta, KEBaren barruan banaketa desegokia dela ebatzi da, ugaltzaile moduan. Bestalde, ezezaguna da zer populazio-joera duten gordelekuek.

Mehatxu nagusia gordelekuen galera da -etxeak birgaitzeko obrak egitean nahiz eraikin zaharrak erortzeagatik-, eta ehizalekuetako habitata paisaia eraldatuta narriatzea: baso-galtzea, erreketako ibilguak eraldatzea... Halaber ganbara eta teilatuetan pestizida organokloratuak erabiltzea eta nekazaritzan intsektizidak neurririk gabe erabiltzea (Aihartza, 2004).

Kontuan hartuta espezie honi bidaia luzeak egitea zail egiten zaiola, eta gordelekuen inguruko eremuen ezaugarriak ikusita, desegoki iritzi zaio Urdaibaiko artadi kantauriarren KEBeko habitatari.

Ibarrangeluko Real Mansión de Asua izeneko etxea erretzearekin batera han zegoen koloniaren desagerepena aipatu zuen Aihartzak (2004); argiro erakutsiz zeinen galkorrak diren etxe pribatuetan dauden koloniak (alegia, gehienak). Hala, espezieak eremuan dituen etorkizunerako aurreikuspenei desegoki iritzi zaie.

<b>Rhinolophus hipposideros -1303</b>			
Urdaibaiko kantauriar artadien KEBa		Desegokia	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
Desegokia	Ezezaguna	Desegokia	Desegokiak

### Baldintzagarriak

Kiroptero leizetarrek dituzten mehatxu nagusiak dira gordelekuak eraikinak birgaitzeagatik nahiz erortzeagatik galtzea, koloniei eragindako eragozpenak eta ehiza-lekuetako habitata eraldatzea paisaia eraldatzeagatik (baso-soiltzea, ibaien ibilguak eraldatzea...). Halaber dira mehatxuak ganbara eta teilatuetan pestizida organokloratuak erabiltzea eta nekazaritzan eta egurgintzarako laboreetan intsektizidak neurririk gabe erabiltzea. Kiropteroak, gainera, ospe txarreko animaliak dira, eta ustegabeko heriotzez gain, zuzenean eta berariaz hiltzen ditu jendeak.

Ez dago ezagutzen diren kolonia eta gordelekuetako populazioen egoerari eta eboluzioari buruzko informazio freskorik. Aihartzak *et al.*, (2002) *Kiropteroei buruzko EAEko Ekintza Plana* proposatu zuten, eta haren barruan Busturiko San Pedro leize-zuloa EAEko «gordeleku lehenetsi» moduan katalogatu.

Proposatu den Ekintza Plan honek zenbat eremu lehenetsi ditu kiropteroentzako halako kondizio batzuk biltzen dituztelako, hala nola espezie-aberastasun handia eta gordeleku lehenetsiak egotea. Urdaibaiko Biosferaren Erreserba da horietako eremu lehenetsietako bat. Horrez gain, altitude txikian dauden baso autoktonoak eta isuri atlantikoko ohiko landa-paisaia atxiki duten gunek habitat lehenetsi moduan hartu ditu.

### Helburuak eta neurriak

<b>X.72-76 xedea</b>	<b>Populazioak eta habitata -gordelekuak batik bat- kontserbatzea eta populazioaren gaineko jakintza hobetzea</b>
<b>E.72-76.1 emaitza</b>	<b>EAEko kiropteroak kontserbatzeko eta kudeatzeko dokumentua onetsiko da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	Halaber da aplikagarria Gidalerro hau: <b>G.4.11</b>
<b>E.72-76.2 emaitza</b>	<b>Eraikinetako kiroptero-gordelekuak babestuko dira eta kontserbatzeko moduko animaliek okupatzea sustatuko da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	Gidalerro eta Arau hauek dira aplikagarriak: <b>G.7.3, G.7.4, G.7.5, G.7.6 eta A.7.2</b>

<b>E.72-76.3 emaitza</b>	<b>Kobazuloetako kiroptero-gordelekuak babestuko dira</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>N.72-76.3.1.</b> Kiropteroek gordeleku gisa erabiltzen dituzten kobazuloen kontrol- eta zaintza-plana ezartzea. Arreta berezia eskaini behar zaie gordelekuak eraldatzeko aukera nahiz ale helduen hilkortasuna areagotu lezaketan faktoreen zantzu guztiei eta ugaltze-eremuetan izan litezkeen eragozpenak ahal den neurrian urritu.</p> <p><b>N.72-76.3.2.</b> Santimamiñeko burdinazko hesi zaharra kentzea eta saguzarrek aise zeharkatzeko moduko batez ordeztzea. Santimamiñen nahiz Urdaibaiko eta Gaztelugatxeko Donieneko eremuko beste kobazuloetan jartzen diren burdinazko hesi berriek sareta horizontala izango dute, hagen arteko tartea 15 cm-koa eta oin bertikalen artekoa, berriz, 60 cm-koa izanik. Burdin hesiak, halaber, pertsona baimenduak sartu ahal izateko atea izan behar du.</p> <p>Halaber da aplikagarria Gidalerro hau: <b>G.4.14</b></p>
<b>E.72-76.4 emaitza</b>	<b>Habitatak kiropteroei eskaintzen dizkien kondizioak hobetzea sustatuko da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	Halaber dira aplikagarriak Gidalerro, Arau eta Neurri hauek: <b>G.4.12, A.6.6, N.9.1.1, N.9.2.1 eta N.9.2.2</b>
<b>E.72-76.5 emaitza</b>	<b>Kiroptero mehatxatuenen banaketa eta populazioaren bilakaera zein diren jakingo da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>N.72-76.5.1.</b> 2001ean miatu ziren 35 gordelekuen (10 kobazulo natural eta 25 eraikuntza) eta aurrerantzean kobazuloetako kiropteroak aurkitzen diren toki berrien segimendua egingo da, sei urtetik behin. Segimendua egiteko metodo fidagarri eta errepikagarriak erabiliko dira, eta gordeleku batean beti antzeko sasoian eta metodologia bera erabiliko da. Behar bezala justifikatutako salbuespenen kasuan izan ezik, aleak harrapatzea eta maneatzea eskatzen duten teknikak baztertu egingo dira.</p> <p><b>N.72-76.5.2.</b> Busturiko San Pedro kobazuloko gordeleku lehenetsian urtean bitan egingo da segimendua, maiatzean, ahal dela bideo- eta audio-teknikak erabilita (kobazulotik irteteen grabatzea, alegia).</p> <p><b>N.72-76.5.3.</b> Kiropteroen gordelekuak dauden tokien erregistroa egingo da, jabetza ondo azalduta.</p> <p>Halaber da aplikagarria Gidalerro hau: <b>G.4.13</b></p>
<b>E.72-76.6 emaitza</b>	<b>Pertsonen artean saguzarrenganako jarrera positiboak sustatuko dira.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<b>N.72-76.6.1.</b> Gizarteari, oro har, eta bereziki beren ogibidea dela-eta nahiz kolonietatik gertu jarduteagatik saguzar-kolonia eta -taldeei kalte egin liezaizketen pertsonen (foru-basozainak, egurgileak, baserritarrak, tenpluzainak...) zuzendutako dibulgazio- eta sentsibilizazio-plan bat abiaraztea.

**GE 77.- *Mustela lutreola***

EB mailako intereseko habitata (1356) (lehenetsia). Europako bisoia

Espezia	Gaztelania	Euskara	Habitategi buruzko Direktiba	EAEko katalogoa	Espainiako katalogoa	Liburu gorria	Bernako Hitzarmena	Bonngo Hitzarmena	42/2007 legea
<i>Mustela lutreola</i>	<i>Visión europeo</i>	<i>Europako bisoia</i>	II/IV (*)	GA	GA	AR	II	-	II/IV (*)

**Egungo egoera**

Bizkaiko Lurralde Historikoan osa zabaldua dago Europako bisoia, han eta hemen oso egoera desberdina egonagatik ere. Urdaibaiko banaketa ez da egokia, eta bizirik dirauten populazioek kontserbazio-mehatxu larriak pairatzen dituzte. Populazioaren tamainari dagokionez, ez dago argi zenbateko populazioa dagoen, zehatz, Urdaibaiko eremuan. Ugaritasun erlatiboko datuak (zenbat harrapaketa ehun arteko eta gaueko) badira, ordea, espeziearen Kudeaketa Planaren esparruan eskualde honetan egindako arte bidezko harrapakinetan oinarrituak: 0,24 eta 0,13 bisoi harrapatuta, hurrenez hurren, 2008-2009 aldian eta 2010. urtean, 100 arteko eta gaueko. Nolanahi delarik ere, espezieak Urdaibain duen populazio-egoera txartzat jo behar da ezinbestean.

Europako bisoiak Urdaibain pairatzen dituen mehatxuei dagokienez, berriz, habitataren eraldaketa, uraren poluzioa eta ibaien bideraketa dira nagusiak; haatik, ezin da alboratu erreka-bazterretako zuhaitz eta zuhaixken estaldura ezabatzea ere. Habitataren eraldaketa dela eta, aipagarria da bide-azpiegiturek eragindako espazioaren zatikaketa: bisoiak autoz harrapatzeko 29 arrisku-puntu nabarmendu dira, horietako 3 lehen mailako lehentasuna dutela: Etxeanandirreka Gernika-Lumon eta Olalde eta Ibarra errekek Kortezubin (Urdaibai Fundazioa, 2007).

Europako bisoiaren populazioak bakartzen laguntzen duen beste faktore bat erreken bideraketa da: bisoiek porlanezko azpiegiturak baztertzen dituzte, ez dituzte maite, eta hala bizileku egokien arteko konexioa galdu egiten da, eta, gainera, erreketako zati egokiak urritu.

Bestalde, Amerikako bisoiarekiko lehia da espeziearen atzerakadaren kausa nagusia. Badira espezie inbaditzaile horren populazioak Oka ibaiaren arroan. Espezie hura kontrolatzeko Europako bisoiaren Bizkaiko kudeaketa-planean ezarritako programaren esparruan, 2008-2009 aldian 1,05 Amerikako bisoi harrapatu ziren 100 arteko eta gaueko, eta 2010ean, berriz, 0,94. Amerikako bisoiaren harrapaketa-tasak % 44,6 behera eginagatik, bi espezieetako aleen harrapaketan arteko erlazioak okerrera egin du; hala, 2008-2009 aldian Amerikako 4,3 bisoi harrapatu ziren Europako bisoi bakoitzeko, eta 2010ean, berriz, 7. Eraitza horiek ikusita, desegokitzat jo behar da ezinbestean Europako bisoiaren habitat potentziala, Amerikakoa berarekin lehiatzen baita hobi ekologiko berarengatik, arrakastaz lehiatu ere, bere plastizitate ekologiko eta populazio-dentsitate handiagoaren ondorioz.

Europako bisoiaren Bizkaiko kudeaketa-planak halaber aipatzen ditu mehatxu-faktore gisa ehiza eta Aleutiarretako gaixotasuna (segur aski Amerikako bisoiak ekarria); azken horrek Europako bisoiaren % 20-25i eragin die.

Europako bisoiaren Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako eta Urdaibaiko Ibai Sareko KEBetako populazioaren etorkizunerako aurreikuspenei desegoki iritzi zaie, nekez kontrolatu baitaitezke espeziaren atzerakada eragin duten faktoreak.

<b>Mustela lutreola - 1356</b>			
<i>Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa</i>		<b>Txarra</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Desegokia</b>	<b>Txarra</b>	<b>Desegokia</b>	<b>Desegokiak</b>
<i>Urdaibaiko ibai-sarearen KEBa</i>		<b>Txarra</b>	
<b>Banaketa</b>	<b>Populazioa</b>	<b>Habitata</b>	<b>Etorkizunerako aurreikuspenak</b>
<b>Desegokia</b>	<b>Txarra</b>	<b>Desegokia</b>	<b>Desegokiak</b>

**Baldintzagarriak**

Espezieari eragiten dioten baldintzagarri nagusiak habitatarekin lotuak dira batik bat, nagusiki lehiakide inbaditzaile bat izateagatik (Amerikako bisoia), baina horregatik ez ezik, jatorri antropikoko heriotza ugari egoteagatik ere (hala nola autoek harrapatuta), zenbait bide-azpiegiturek eragiten duten oztopo-efektuaren ondorioz.

Europako bisoiak badu Bizkaian kudeaketa-plan bat indarrean: 118/2006 Foru Dekretua, ekainaren 19koa; zeinaren bidez Bisoi Europarraren, *Mustela lutreola* (Linnaeus, 1761) Kudeaketa Plana onetsi den, Bizkaiko Lurralde Historikoan, galtzeko arriskuan dagoen espeziea den eta babesteko neurri bereziak behar diren aldetik (2006ko uztailaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 129. zenbakia).

Kudeaketa-planaren esparruan arte bidezko zenbait populazio-azterketa egin dira eta Amerikako bisoiak kontrolatzeko eta ezabatzeko ekintzak ere abiarazi dira. Halaber daude eskura auto-harrapaketen arazoari neurria hartzeko egindako azterketa espezifikoen emaitzak.	
<b>Helburuak eta neurriak</b>	
<b>X.77 xedea</b>	<b>Populazioa kontserbatzea eta haren parametroak zein diren jakitea.</b>
<b>E.77.1 emaitza</b>	<b>Gaur egun espeziea kontserbatera bideratutako kudeaketarekin jarraitu egingo da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	Halaber dira aplikagarriak Gidalerro, Arau eta Neurri hauek: <b>G.4.5, G.7.2, A.4.2, NA.21.1.1 eta N.79.3.1</b>
<b>E.77.2 emaitza</b>	<b>Hura aztertzeraz bideratutako gaur egungo kudeaketarekin jarraitu egingo da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<b>N.77.2.1.</b> Hiru urtetik behin populazioa zentsatzea, hartara espeziea Urdai-bain nola banatzen den jakiteko. Halaber da aplikagarria Gidalerro hau: <b>G.4.13</b>

## TAXON ALOKTONOAK

### GE 78.- Taxon aloktonoak

KUDEAKETAK ARDATZ HARTUKO DITUEN FLORAKO TAXON ALOKTONOEN MULTZOA (TAM)

#### TAM 1-17.- FLORAKO TAXON ALOKTONOAK

Florako taxon aloktonoen multzoa

TA 1.- *Baccharis halimifolia*

Carolinako txilka

TA 2.- *Buddleja davidii*

Aita Daviden budleia

TA 3-4.- *Conyza canadensis* eta *C. sumatrensis*

TA 5.- *Cortaderia selloana*

Panpako belarra

TA 6.- *Cyperus eragrostis*

TA 7-8.- *Oenothera glazoviana* eta *Oenothera* × *fallax*

Onagrak

TA 9-11.- *Paspalum dilatatum*, *P. distichum* eta *P. vaginatum*

TA 12.- *Robinia pseudoacacia*

Sasiakazia

TA 13.– *Sporolobus indicus*

TA 14.– *Stenotaphrum secundatum*

San Agustin belarra

TA 15.– *Arctotheca calendula*

TA 16.– *Arundo donax*

Kanabera

TA 17.– *Chamaesyce polygonifolia*

Egungo egoera
<b><i>Baccharis halimifolia</i></b>
<p>Padura, duna eta labarretako komunitate azpihalofiloetan bizi da. Urdaibain paduraren zati handi bat hartzen du (Prieto, 2006), komunitate azpihalofiloak batez ere, horietako batzuk kontserbaziorako garrantzi handikoak. Padurako 100 hektareatan komunitate sarriak eratu ditu, ia monoespezifikoak, eta berezko landaretzari haztea eragozten dio (Campos <i>et al.</i>, 2000). 2007an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolaketako sailak Carolinako txilka errotik ezabatzeke proiektu pilotu bati ekin zion Itsasadarraren Babeserako Ereku Bereziko 12 bat hektareatan, zehazki Kortezubiko Barrutian eta Foruko Atxagan. Baliabide mekanikoak eta kimikoak (glifosfatoa bakan aplikatuta) erabili ziren, eta horiekin jarraitzea eta beste batzuekin saiatzzea (urezztatzea) aurreikusi da. Halaber aurreikusi da ekintza horien emaitzak aztertzeke eta landareak ernaberritzen diren edo espezie inbaditzaile berririk agertzen den kontrolatzeko segimendu-programa bat gauzatzea (Prieto, <i>op. cit.</i>).</p> <p>2009an ekin zitzaion Arteagako paduran itsasertzeke urmael bat (1150 zenbakidun habitat lehenetsia) sortzeke proiektuari, eta ondoren Barrutibason lezkadia urak hartzeke proiektuari, biak ala biak Biodibertsitate eta Ingurumen Parte-hartze zuzendaritzak sustatuak eta Ihobe, S.A.k koordinatuak. Halaber idatzi da Oka ibaiaren goi-estuarioa zeharo leheneratzeko proiektu bat (Tragsa, 2011), Natura 2000 Sareko zenbait gako elementuren kontserbazio-egoera hobetzeke neurriak biltzen dituen. Ekimen horien ondorioz urritu egingo da Carolinako txilkak berriz inbaditzeko aukera duten eremuen azalera.</p>
<b><i>Buddleja davidii</i></b>
<p>Bide-bazter, ezponda eta lugorrietan bizi da. Ereku eraldatuak, zoru aberats eta ondo drainatuak dituztenak maite ditu, eta honelakoetan agertu ohi da: 1.– Esku-hartze handiko edo ez hain handiko larreetan; 2.– Betelanetan eta eremu erruderaletan. Halaber agertzen da baso-pisten ertzetako ezpondetan; inoiz padurako ibilguen goi-ertzean eta inguruetan, eta erreketako ertz eta legar-bankuetan. Urdaibain hantzen ageri dira ale solteak, inoiz elkarren ondo samarrean. Ugariagoa da, hala ere, estuarioaren barrualdean kostaldean bertan baino.</p>
<b><i>Conyza canadensis</i> eta <i>C. sumatrensis</i></b>
<p>Bide-bazter, legartegi, lugorri eta lur irekietan bizi dira. Herrerak eta Camposek (2008) dioten moduan, <i>C. canadensis</i> oso sakabanatuta dago lurralde osoan (eta Kantaurialdeko itsas hegi osoan); hartara oso zaila da hura errotik ezabatzea. Optimo ekologikoa habitat erruderalizatuetan du, gainera, eta halakoetan aurkitu izan da ia beti Urdaibai barruan. Beste hainbeste esan liteke <i>C. sumatrensis</i>-i buruz ere. Baliteke genero bereko beste bi espezie gehiago ere agertzea bertan, jokamolde ekologiko bera baitute: <i>C. bonariensis</i> eta <i>C. bilbaoana</i>, hain zuzen. Lehena B1 kategorian dago sailkatuta (alegia, espezie aloktono bertakotua eta inbaditzailea da, nagusiki habitat natural eta erdi-naturaletan); bigarrena, berriz, C2 kategorian (espezie aloktono bertakotua baina ez inbaditzailea, batez ere habitat antropikoetan).</p>



***Cortaderia selloana***

Panpako belarra bide-bazter, ezponda, betelan, sastrakadi eta sasiarteetan bizi da. Oso bizileku desberdinak hartu ohi ditu, baina Urdaibain ugariagoa da paduraren ertzetan eta bertako muna eta ubideetan. Halaber oso toki erruderalizatuetan, hala nola lugorrietan, betelanetan eta, maiz herraguneetatik gertu eta paduran egindako betelanetan. Horrez gain, aurkitu izan da, bakanago, larre-ertzetan eta baso-pistetako ezponda eta ertzetan ere. Espezie honek gehien baztertzen dituen komunitateak ihidi eta sastrakadi halofiloak dira; lezkadiak ere bai. Aise eratzten ditu komunitate ia monoespezifikoak, bera nagusi delarik noski (E5.1 Eunis kodea). Hauek dira espezie honek Urdaibai inguruan gehien kaltetzen dituen komunitate natural eta erdi-naturalak: 1.- Ihidi eta belardi azpihalofiloak. 2.- Ur gezatako lezkadiak (lehorrak nahiz urak aldika zein beti hartzen dituenak). 3.- Lezkadi azpihalofiloak (lehorrak nahiz urak aldika zein beti hartzen dituenak). 4.- Esku-hartze handiko edo ez hain handiko larreak. 5.- Baso autoktonoak, hala nola ibai-bazterreko haltzadiak, harizti eutrofoak, harizti oligotrofoak... Gernikako itsasadarreko padurako zenbait tokitan –hegoaldean, batik bat– ohikoa da, eta han Carolinako txilkarekin nahastu ere egiten da. Kortezubi, Forua eta beste zenbait herriguneen inguruko lugorri utzietan ere badira espezie honetako formazioak. Urdaibaiko eremuaren hein handi batean, gainera, ale solteak ageri ohi dira baso-pistetan.

***Cyperus eragrostis***

Oso ugaria da belaze higrofiloetan, ihidietan, larre hezeetan eta ibai- eta ubide-bazterretan eta urmaeletan, 650 metrotik behera, betiere (Herrera eta Campos, 2008). Bere propagazio-mekanismoek ematen omen diote habitat-mota ugari inbaditzeko eta kolonizatzeo gaitasuna: Begetatiboa distantzia txikietan, eta sexualak kolonizazio urrunetan. Beraz, ezer gutxi egin daiteke haren hedapena gerarazteko. Urdaibairi dagokionez, espezie hau zoru heze erruderalizatuko eremuetara mugatzen da.

***Oenothera glazoviana* eta *Oenothera × fallax***

*Oenothera glazoviana* itsasertzeko dunetan eta ibai-bazterretako ertz hondartsuetan bizi da. Eremu eraldatuak, zoru aberats eta ondo drainatuak dituztenak maite ditu, eta honelakoetan agertu ohi da: 1.- Esku-hartze handiko edo ez hain handiko larreetan; 2.- Betelanetan eta eremu erruderaletan. Toki horiek maiz eraikinetatik gertu nahiz baso-pisten ertzetan eta ezpondetan egoten dira, inoiz padurako ubideen goi-ertzean eta horien inguruetan ere. Itsasertzeko hondartzetan duna sekundarioko hondar-ihidiak eta duna tertziarioko belardi-sastrakadiak ditu maite. Horrez gain, erreketako ertzetan eta legarbankuetan ere ager liteke. Urdaibaiko hondartzetan aipatu izan da (Sestaoko Zientzia Elkarte, Botanika Saila, 2004). Halaber behatu dira espezie horietako bateko aleak San Kristobalگو betelaneko eremu erruderaletan.

*Oe. × fallax*, berriz, duna finko eta erdi-finkoetako belaze nitrofiloetan bizi da. Urdaibaiko hondartzetan aipatu izan da (Sestaoko Zientzia Elkarte, Botanika Saila, 2004). *Oe. glazoviana* da, zalantzarik gabe, EAEn generoko espezieetan ugariena; haatik, beste zenbait ere aurki ditzakegu, inoiz hura bezain inbaditzaileak. Bada bibliografian ohiz bertakotutzat jotzen den espeziea, *Oe. biennis*, hain zuzen, Urdaibain inoiz gutxi aipatu izan dena; aurrekoaren oso antzekoa da, baina lore txikiagoak ditu eta ez ditu haren zuztar eta fruituetako oinarri gorrikkadun ile bereizgarriak. Bi espezieak batera ageri direnean maiz sortzen dira hibrido ugalkorrak, espezie gurasoekin berriz gurutzatu daitezkeenak. Loreak *Oe. biennis*enak bezain handiak dira, baina sepaloak gorrikkak ditu eta zuztar eta fruituetan ile gorrikkak ditu. *Oe. × fallax* Renner izena du eta oso espezie inbaditzaile erasokorra da Bizkaiko duna-sistema batzuetan (Gorliz, Arena...) (Silván eta Campos, 2002a; Loidi eta Campos, 2004).

***Paspalum dilatatum*, *P. distichum* eta *P. vaginatum***

Sega-belardi, belaze heze eta bide-bazterretan bizi da *Paspalum dilatatum*. Euskal Herriko toki askotan sega-belardietako espezie nagusi bilakatu da (Herrera eta Campos, 2008); Urdaibain ere egiaztatu da hori. Bestalde, maiz aipatzen da espezie honekin belar-pozoiak erabiltzea oso korapilatsua dela. Ez dirudi berriz oso praktikoa denik espezie hau errotik ezabatzeo neurriak hartzea.

*Paspalum distichum* belaze heze eta ibai- eta padura-ertzetan bizi da, eta *P. dilatatum* bezala, oso espezie hedatua da; kasu honetan mota desberdin askoko belaze hezeei eta toki heze erruderalizatuiei lotuta, nagusiki. Kasu honetan are arriskutsuagoa da belar-pozoiak erabiltzea, ur-ekosistemak gertuago egon ohi direnez.

<p><i>Paspalum vaginatum</i>, azkenik, hondartza eta paduretako komunitate higrofilo azpihalofiloetan bizi da. Genero bereko beste espezieen kasuan bezalaxe, oso hedatuta dago eta belar-geruzak eratzen ditu komunitate halofiloen soilguneetan, bereziki ihidietan eta hondartzetako gune erruderalizatueta. Aurreko kasuan bezala, arriskutsua da belar-pozoiak erabiltzea ur-ekosistemak gertuago egon ohi direlako. Herre-rak eta Camposek (2008) diotenez, estrategia onena da estuarioko ekosistemak ahalik eta ongien kontserbatzea eta eraldatutako gunerik ez sortzea, horiek erraztu egiten baitute inbasioa hedatzea.</p>
<b><i>Robinia pseudoacacia</i></b>
<p>Erreken inguruko baso mistoetan bizi da eta harizti azidofiloak ordeztu ditu. Badira landaketa txikiak ere urdaibai osoan barrena, bereziki ur-lasterretatik eta errepedeetatik gertu, eta horietatik abiatuta aise asko zabaltzen da. Oka ibaiaren ertzetan oso nabarmen ageri da, eta lehia handia egiten die haltzadien.</p>
<b><i>Sporolobus indicus</i></b>
<p>Bide-bazterretan, larre-ertzetan eta hondartza zapalduetan bizi da. Tamaina txikiko beste gramineoen kasuan bezalaxe –<i>Paspalum dilatatum</i>, esaterako–, oso hedatuta dago larre eraldatueta eta toki erruderalizatueta, batez ere oso zapalduak badira. Ez da normalean agertzen toki horietatik kanpo.</p>
<b><i>Stenotaphrum secundatum</i></b>
<p>Hondartza eta labarretan bizi da. Dunetan dakarren arazo handiena da eraldatutako gune irekiak (bideak, aparkalekuak eta, oro har, erruz zapalduetako tokiak) inbaditzeko duen gaitasun handia. Belar-geruza sarriak eratzeko joera du <i>S. secundatum</i>-ek, eta hala, duna finkoetako berezko espezieak –batzuk oso bakanak gure lurraldean– bertan haztea eragozten du. Paduran, gazitasun txikiko tokietan (azpihalofiloetan) are geruza sarriagoak eratzu ditu, nagusiki <i>Juncus maritimus</i> istinetan. Mehatxu handia da hor ekosistema horietarako eta bertako flora berezirako, kasu askotan espezie arraro eta bakanak, inoiz mehatxatuak ere bai. Labarretan eragiten duen kaltea askoz ere txikiago dela dirudi, besteak beste ez dagoelako hain hedatuta; haatik, kasu jakin batzuetan haren espantsioa espezie arraro batzuentzat mehatxu handia izan liteke, hala nola, <i>Lavatera arborea</i>, <i>Matricaria maritima</i> eta <i>Armeria euscadiensis</i>, orekatik at dauden guneetan bizi baita (zoru zapalduak, mekanikoki zabaldutako soilguneak (Campos <i>et al.</i>, 2004).</p>
<b><i>Arctotheca calendula</i></b>
<p>Itsasertzeko hondartza eta txilardietan bizi da. Urdaibain, dunetan eta hondartzetan, askotan belar erruderaledekin batera, batez ere zoru trinkotu eta zapalduetako soilguneetan eta materiala –haziak– garraiatzen direneko tokietan.</p> <p>Honelakoetan ageri da batik bat: 1.– Hondartzetako arribazoiarekin lotutako urteroko landare psammonitrofiloen komunitateetan. 2.– Duna primarioko belardietan. San Antonio hondartzan zenbait ale solte hauteman dira. Halaber aipatu da Laga eta Kanalako hondartzetan (Aseginolaza <i>et al.</i>, 1985).</p>
<b><i>Arundo donax</i></b>
<p>Itsasertzeko ezpondetan eta putzu eta ur-lasterretako ertzetan bizi da. Kanaberak aprobetxatzeko laboratu izan da batik bat, normalean uretatik eta herriguneetatik gertu. Basati bihurtu da erreka-bazterretan eta padurako ubideen ertzetan. Dunen gainean ere hazten da. Kanaberadi aloktono hauek batez ere habitat hauek kaltetu edo ordeztu dituzte: 1.– Ibai-ondoko haltzadiak. 2.– Ur gezatoko lezkadiak. 3.– Lezkadi azpihalofiloak. Aise eratzu ditu komunitate ia monoespezifikoak, bera nagusi delarik noski. Badira landaketak, erdi basati bihurtuak, Oka ibaiaren erdi-eta behe-ibilguan, bai eta haren ibaiadarretan ere. Inoiz paduran ere agertzen da.</p>

<b><i>Chamaesyce polygonifolia</i></b>	
<p>Hondartzetako urteroko landare halonitrofiloen komunitateetan, itsasertzeko hondartzetan eta duna-sistemetan bizi da; <i>Cakiletea</i>-ko urteroko landare psammonitrofiloen komunitateetara eta duna primarioetako belardietara sartzen da nagusiki. Hauek ditu habitat potentzialak: 1.- Hondartzetako arribazoiarekin lotutako urteroko landare psammonitrofiloen komunitateak. 2.- Duna primarioko belardiak. San Antonio eta Kanalako hondartzetan hauteman izan da. Orain artean Getxoko Azkorri besterik ez ez ezagutzen (Herrera eta Campos, 2008); han <i>Ch. peplis</i> espezie autoktono ahaide mehatxatuarekin batera ageri da. Nahiz eta ez den aipatu espezie hau inbaditzailea denik, honako hauek hasierako kolonizazioak izan litezke eta gertutik zaintzea komeni da. Kantabrian, Lienresko dunetan, espezie honek portaera inbaditzailea du. <i>Chamaesyce peplis</i> (L.) Prokh. (<i>Euphorbia peplis</i> L.) espezie autoktono iraungiarekin nahas liteke. Hark ordea zuztar gorri ilunak ditu, hostoak nabarmen horzdunak dira oinarriko gingilean, nektarioak gorritzak edo moreak, apendizedunak, eta haziek sekzio biribila dute.</p>	
<b>Baldintzagarriak</b>	
<b><i>Baccharis halimifolia</i>, <i>Cortaderia selloana</i>, <i>Arctotheca calendula</i>, <i>Arundo donax</i>, <i>Stenotaphrum secundatum</i>, <i>Chamaesyce polygonifolia</i>, <i>Oenothera glazoviana</i>, <i>O. × fallax</i> eta <i>Cyperus eragrostis</i></b>	
<p>Espezie hauek ezabatzeko baldintzagarri nagusia da zer tratamendu aplikatu, horrek albo-ondorioak eragin bailiezaizkieke populazio naturalei.</p> <p>Carolinako txilkaren kasuan, populazioa estuarioan eta estuario ondoko eremuetan barrena hedatu izana da baldintzagarria, eta Panpako belarrarenean, berriz ibai-arroan barrena hedatu izana.</p> <p><i>Stenotaphrum secundatum</i>-en kasuan, taxona garatze-sasoitik kanpo egotea ere aipatu izan da baldintzagarri moduan.</p>	
<b><i>Conyza canadensis</i>, <i>C. sumatrensis</i>, <i>Paspalum dilatatum</i>, <i>P. distichum</i>, <i>P. vaginatum</i> eta <i>Sporolobus indicus</i></b>	
<p>Zuzeneko kudeaketa aktiboa alferrikakoa izatearen baldintzagarri nagusia da nonahi bizi direla; bestalde, belardi-itxurako habitat antropizatuertarako duen joeraren ondorioz, murrizta du kontserbazio-helburuei eragiteko gaitasuna.</p>	
<b><i>Robinia pseudoacacia</i></b>	
<p>Espezie honen kasuan, baldintzagarri nagusia da laboratutako espezie produktiboa izatea, eta, beraz, egurgintzako jardueren babesean egotea.</p>	
<b><i>Buddleja davidii</i></b>	
<p>Aita Daviden budleia oso sakabanatuta ageri da Oka ibaiaren arroan, eta gunez-gune egindako esku-hartzeak oso emaitza murrizak ditu.</p>	
<b>Helburuak eta neurriak</b>	
<b>XA.1-17 xedea</b>	<p><b><i>Arctotheca calendula</i>, <i>Oenothera glazoviana</i>, <i>O. × fallax</i>, <i>Baccharis halimifolia</i>, <i>Cortaderia selloana</i>, <i>Arundo donax</i>, <i>Stenotaphrum secundatum</i> eta <i>Chamaesyce polygonifolia</i>:</b> haien gaur egungo populazioak murriztea, flora natural autoktonoari eragiten dioten kaltea dela eta. <b><i>Cyperus eragrostis</i>, <i>Sporolobus indicus</i>, <i>Conyza canadensis</i>, <i>C. sumatrensis</i>, <i>Paspalum dilatatum</i>, <i>P. distichum</i> eta <i>P. vaginatum</i>:</b> argitzea nola hedatzen diren KEBetako eta HBBEko inguru naturalean. <b><i>Robinia pseudoacacia</i>:</b> espeziearen aurkako kudeaketari ekitea produkzioarako hazten den tokietan, eta laboreetatik kanpoko guneetako foku naturalizatuak ezabatzea. <b><i>Buddleja davidii</i>:</b> Aita Daviden budleia kontrolatzeko eta pixkanaka ezabatzeko sistema abiaraztea.</p>

<b>E.1-17.1 emaitza</b>	<b>Intereseko habitata dagoen tokietan espezie aloktono hauen populazioak eta dispersio-iturriak txikitu edo murriztu egingo dira.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>NA.1-17.1.1.</b> Taxon hauek kontrolatzeko eta ezabatzeko kanpainak egitea:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Buddleja davidii</i>.</li> <li>- <i>Chamaesyce polygonifolia</i>: hondartza eta dunetatik ezabatuko da, mekanikoki (batez ere tokian iraungia den Ch. peplis espeziearekiko lehia izan litekeen tokietan).</li> <li>- <i>Arctotheca calendula</i>, <i>Oenothera glazoviana</i> eta <i>O. × fallax</i>: besterik gabe erauzita (mekanikoki).</li> <li>- <i>Robinia pseudoacacia</i>, <i>Baccharis halimifolia</i>, <i>Arundo donax</i>, <i>Stenotaphrum secundatum</i> eta <i>Cortaderia selloana</i>: metodoak probatzea gomendatzen da, eta azken bi espezieen kasuan, gainera, landareak ezabatzen KEBka jardutea gomendatzen da, ez oro har lurralde osoan, hartara inbaditutako tokietako erreserba genetikoak pixkanaka ezabatzeko. <i>Stenotaphrum secundatum</i>-en kasuan Gaztelugatxeko Donienen hasia gomendatzen da.</li> </ul> <p><b>NA.1-17.1.2.</b> Aurreko urteetako kanpainen emaitzak aztertuta diseinatuko da jarduteko protokolorik egokiena espeziea KEBetatik kentzeko.</p> <p><b>NA.1-17.1.3.</b> <i>Stenotaphrum secundatum</i>, <i>Arundo donax</i>, <i>Arctotheca calendula</i>, <i>Oenothera glazoviana</i>, <i>O. × fallax</i>, <i>Buddleja davidii</i>, <i>Baccharis halimifolia</i> eta <i>Cortaderia selloana</i> espezieak kontrolatzeko eta ezabatzeko, kudeaketa-elementu gakoekin habitata partekatzen duten gunetan egindako kanpainetan, kanpainek intereseko habitatei eta espezieei nola eragiten dieten baloratuko da.</p> <p>Halaber dira aplikagarriak Gidalerro hauek: <b>G.2.4.</b> eta <b>G.10.2.</b></p>
<b>E.1-17.2 emaitza</b>	<b>KEBetan populazio berriak ezartzea eragotziko da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>NA.1-17.2.1.</b> Apaingarri gisa erabiltzen diren <i>Baccharis halimifolia</i> eta <i>Cortaderia selloana</i> espezieetako aleen inbentarioa egitea, Oka ibaiaren Unitate Hidrologikoaren barruko lorategietatik (publiko zein pribatu) ezabatzea bultzatzeko oinarri gisa.</p> <p>Halaber dira aplikagarriak Gidalerro eta Arau hauek: <b>G.2.7</b>, <b>G.10.1</b>, <b>G.10.2</b>, <b>A.10.1</b> eta <b>A.10.2</b></p>
<b>E.1-17.3 emaitza</b>	<b>Inguru naturala eraldatzen duten taxonak egoteak zer-nolako eragina duen jakinaraziko da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>NA.1-17.3.1</b> Espezie aloktono hauek ekosisteman duten eraginaren inguruko informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak egitea. Halaber egiten diren kontrol- eta ezabatze-kanpainen ingurukoak. Kanpaina horiek orokorrak nahiz sektore jakinei zuzenduak izango dira (elkartearak, basozainak, kudeatzaileak...):</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Cortaderia selloana</i>.</li> <li>- <i>Robinia pseudoacacia</i>.</li> <li>- <i>Baccharis halimifolia</i>.</li> <li>- <i>Chamaesyce polygonifolia</i>.</li> <li>- <i>Arctotheca calendula</i>.</li> <li>- <i>Arundo donax</i>.</li> <li>- <i>Oenothera glazoviana</i>.</li> <li>- <i>O. × fallax</i>.</li> <li>- <i>Stenotaphrum secundatum</i>.</li> <li>- <i>Buddleja davidii</i>.</li> </ul>

## KUDEAKETAK ARDATZ HARTUKO DITUEN FAUNAKO TAXON ALOKTONOEN MULTZOA (TAM)

**TAM 18-21.- FAUNAKO TAXON ALOKTONOAK**

Faunako taxon aloktonoen multzoa

TA 18-19.- *Pacifastacus leniusculus* eta *Procambarus clarkii*

Seinaledun ibai-karramarroa eta ibai-karramarro gorria

Gaur egungo egoera (bi espezieena batera deskribatu da)	
<p>Bi espezieak bertako karramarroari eragiten dion afanomikosiaren agente eragilearen (<i>Aphanomyces astaci</i> onddoa) gordeleku eta biltegi dira. Gaitz horrek Europako gainerako karramarroak iraungiarazi ditu. Karramarro seinaleak ez du gorriak baino kalte txikiagorik eragiten, ez ekologikoki, ez epidemiologikoki. Bi espezieen kasuan lehentasun handiko erabakia da horien arrantza debekatzea (Ihobe, 2009).</p> <p>Gaur egun, oskoldun horiek arrantzatu egiten direnez, administrazio batzuek sustatu izan dituzte haien kontra jardun beharrean, kontrolatuz eta ezabatuz. Gainera, esperientziak argiro erakutsi du arrantzatzea ez dela kontrol-neurri eraginkorra; aitzitik, legez kanpoko translokazioak erraztu egiten dira horrela, eta murriztu beharrean hedatzen laguntzen zaie.</p>	
Baldintzagarriak	
<p>Karramarro aloktonoak Okaren U.H.-tik ezabatzeak duen baldintzagarri nagusia da haien populazioa murriztuko duela bermatzen duen metodo zientifiko eta frogaturik ez egotea. Halaber espezie horien gaur egungo populazioari eta banaketari buruzko informaziorik eza.</p>	
Helburuak eta neurriak	
<b>XA.18-19 xedea</b>	Ibai-karramarro aloktonoen egungo populazioak murriztea eta Okaren Unitate Hidrologikoan barrena hedatzen galaraztea.
<b>E.18-19.1 emaitza</b>	<b>Urdaibaiko ibai-karramarro autoktono zein aloktono guztien egungo banaketa zein den jakingo da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	Halaber da aplikagarria neurri hau: <b>N.30.1.1</b>
<b>E.18-19.2 Emaitza</b>	<b>Eragotzi egingo da espezie aloktonoen (<i>Pacifastacus leniusculus</i> eta <i>Procambarus clarkii</i>) populazio berriak sortzea eta ibai-karramarro arruntaren eremuetara zabaltzea.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>NA.18-19.2.1.</b> Ibai-karramarro aloktonoen populazioak kontrolatzeko programa bat ezartzea Okaren Unitate Hidrologikoan ezagutzen diren espezie autoktonoaren bizilekuetan. Programa horren helburu nagusia izango da kanpoko espezieak ez hedatzea, eta tokian tokian, espezie aloktonoak suntsitzea ere aurreikus lezake.</p> <p>Halaber dira aplikagarriak Arau eta Neurri hauek: <b>A.10.3 eta N.30.3.1</b></p>
<b>E.18-19.3 Emaitza</b>	<b>Amerikako karramarro gorriak eta seinaleak karramarroak <i>Austropotamobius pallipes</i> egiten dioten kaltea ezagutaraziko da.</b>

<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>NA.18-19.3.1</b> Espezie aloktonoek ur-ingurunean duten eraginaren inguruko informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak egitea. Gizarteari oro har eta ibai-ekosistemen kontserbazioarekin bereziki lotutako sektoreei zuzenduak izango dira kanpaina horiek (arrantzale-elkarteak, udalak, basozainak).</p> <p><b>NA.18-19.3.2</b> Arrantzako lanabesak desinfektatzeko metodoei buruzko informazio-kanpainak egingo dira <i>Aphanomyces astaci</i> onddoaren esporak ez hedatzearen.</p>
---	--

TA 20.– *Podarcis pityusensis*

## Pitiusetako sugandila

Egungo egoera	
<p>Pitiusetako endemismo bat da. Duela 15-20 inguru Bartzelona hirira gizakiak sartua, agian berariaz. Harri, etxe-hondakin eta belar ugariko eremu erruderalak okupatzen ditu, eta bertan ugaltzen da. Hiriaren garapen urbanistikoak zaildu egiten du populazioaren bideragarritasuna. 1990eko hamarkadaren erdialdera, ordea, berariaz sartu zuten Gaztelugatxeko penintsulan (Bakio, Bizkaia), eta hasiera batean <i>Podarcis sicula</i> Italiako sugandila moduan identifikatu zuten. Gaur egun gorabidean doa populazioa; ugaria da eta <i>Podarcis muralis</i> espezie autoktonoarekin batera bizi da leku berean (J.M. Pérez de Ana, <i>kom. perts. in: Pleguezuelos, 2002</i>) (Ihobe, 2009; Pleguezuelos, 2002).</p>	
Baldintzagarriak	
<p>Pitiusetako sugandilaren populazioa jaitsarazteko dagoen baldintzagarri nagusiak haren ugaltze-gaitasun handia eta kostako inguruetarako moldaketa dira.</p> <p>Gaur egun Gaztelugatxeko Donieneko biotopo babestuan Pitiusetako sugandila kontrolatzeko plan bat ari da gauzatzen Bizkaiko Foru Aldundia.</p>	
Helburuak eta neurriak	
<b>XA.20 xedea</b>	Gaztelugatxeko Donieneko KEBean bizi den Pitiusetako sugandila aloktonoaren populazioa murriztea.
<b>E.20.1 emaitza</b>	<b>Gaztelugatxeko Donieneko KEBean Pitiusetako sugandilaren populazio berririk ez ezartzea eta populazioaren tamaina murriztea lortuko da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>NA.20.1.1.</b> Gaztelugatxeko Donieneko KEBean Pitiusetako sugandila aloktonoaren populazioa kontrolatzen jarraitzea. Programa honen helburu nagusia izango da kanpoko espezia gehiago ez hedatzea; beraz, haren populazioa gutxitzeko behar diren neurriak aurreikusiko ditu Planak.</p> <p>Halaber da aplikagarria Arau hau: <b>A.10.3</b></p>
<b>E.20.2 Emaitza</b>	<b>Pitiusetako sugandilaren populazioek bertako espezie autoktonoei egiten dieten kaltea ezagutaraziko da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>NA.20.2.1.</b> Espezie aloktonoek inguru naturalean duten eraginaren inguruko informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak egitea. Gizarteari oro har eta ekosistema naturalen kontserbazioarekin bereziki lotutako sektoreei zuzenduak izango dira kanpaina horiek (udalak, basozainak), eta bi urtetik behin egingo dira.</p>

TA 21.– *Neovison vison*

## Amerikako bisoia

Egungo egoera	
<p>Bereziki esanguratsua da Amerikako bisoiaren kasua. Beste espezieen gaineko eragina depredazio bidez, lehia bidez eta gaixotasun transmitigarrien bektore izanez gauzatzen da. Europako bisoiaren biziraupenerako mehatxua da, lehia baztergarria egiten baitio. Hiru espantsio-bide ditu espezie honek EAEn: (1) Penintsula erdiko populazioa iparralderantz ari da aurrera egiten, baina haren frontea Ebro ibaitik hegoaldera dago oraindik. (2) Frantziako populazioaren hegoalderanzko frontea berriz, mugan bertan da dagoeneko. (3) Bizkaiko eta Arabako populazioak. Azken hogei urteetan hedadurak izan duen aurrera-kada jarraitua eta espezie hau agertzeak eta ugaritzeak eragin duen kalte ekologiko handia aintzat hartuta, lehentasuneko helburua da erradikazio-proiektu bat garatzea, hiru lurralde historikoetan segimendu- eta kontrol-protokolo berak aplikatzeko eta hartara etekin handiagoa ateratzeko erabili ohi diren teknikei. Horrez gain, administrazio eskudunen arteko informazio-trukea erraztu egingo litzateke eta prozedura berriak aplikatzea ere bai (Ihobe, 2009).</p>	
Baldintzagarriak	
<p>Amerikako bisoiaren plastizitate ekologikoa eta EAeko ibai-sarean duen dentsitate handia dira haren baldintzagarri nagusiak.</p> <p>2006ko uztailan hasi zen indarrean Europako bisoiaren, <i>Mustela lutreola</i> (Linnaeus, 1761) kudeaketa-plana Bizkaian, galtzeko arriskuan dagoenez eta babesteko neurri bereziak behar dituzenez (2006ko uztailaren 6ko BAO, 129. zenbakia). Foru Dekretuaren eranskinaren 2. atalak xedatu zituen kudeaketa-planaren nondik norako nagusiak, besteak beste Oka ibaian arte bidez erruz harrapatzea bizirik.</p>	
Helburuak eta neurriak	
<b>XA.21.1 xedea</b>	Amerikako bisoiaren populazioa murriztea eta ibai-zati gehiago ez dezala koloniza.
<b>E.21.1 emaitza</b>	<b>Gaur egun espeziea kontrolatzera bideratutako kudeaketarekin jarraitu egingo da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>NA.21.1.1.</b> Amerikako bisoiaren populazioa kontrolatzeko Kudeaketa-planean planteatzen den programarekin jarraitzea (arte bidez masiboki harrapatuta) eta Okaren Unitate Hidrologiko osora zabaltzea programa hura. Europako bisoiari eta gainerako espezieei kalterik ez egiteko protokolo tekniko eta segurtasuneko protokolo zorrotzak izango ditu programak, Europako bisoiaren Bizkaiko Kudeaketa-planak aurreikusi moduan.</p> <p>Halaber da aplikagarria Gidalerro hau: <b>G.4.5</b></p>
<b>E.21.2 Emaitza</b>	<b>Amerikako eta Europako bisoiaren populazioak ikertzera bideratutako gaur egungo kudeaketarekin jarraituko da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	Halaber da aplikagarria Gidalerro hau: <b>G.4.13</b>
<b>E.21.3 Emaitza</b>	<b>Amerikako bisoiaren populazioek bertako espezie autoktonoei egiten dieten kaltea ezagutaraziko da.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<p><b>NA.21.3.1</b> Espezie aloktonoek inguru naturalean duten eraginaren inguruko informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak egitea. Gizarteari oro har eta ekosistema naturalen kontserbazioarekin bereziki lotutako sektoreei zuzendutako kanpaina horiek (udalak, basozainak...).</p>

## PROZESU EKOLOGIKOAK

### GE 79.- Konektagarritasuna

Prozesu ekologikoa

#### Egungo egoera

EAEko eremuan oro har, eta Urdaibain eta Gaztelugatxeko Donienen, zehazki, hainbat lanek analizatu eta ebaluatu dituzte zatikatze edo deskonexio ekologikoko prozesuak. Bai azterlan horiek, bai bestelako hainbat plan edo plan-proposamenek xedatu dituzte konektibitatea hobetzeko neurriak, hala nola:

- EAEko Korridore Ekologikoen Sarea (KES) (Gurrutxaga, 2005).
- Basafaunak Urdaibaiko Biosferaren Erreserbako bideetan pairatzen dituen istripuen azterketa (Consultora de Recursos naturales, 2006a).
- Estudio y caracterización de puntos negros para el visón europeo (*Mustela lutreola*) en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai (Urdaibai Fundazioa, 2007).
- Gernika-Markinako eskualde egiturako LZP.
- Europako bisoiaren (*Mustela lutreola*) Bizkaiko kudeaketa-plana.
- Aingiraren (*Anguilla anguilla*) EAEko kudeaketa-plana.

Urdaibaiko eta Gaztelugatxeko Donieneko eremuan, «muin-gune» moduan identifikatu ditu KESak Urdaibaiko artadi kantauriarren KEBa, eta «konektatzeko interes bereziko ibai-tarte» moduan, berriz, Urdaibaiko ibai-sarearen KEBa. Gainera, ibai-tarte horien bitartez gauzatzen da muin-guneen arteko konexio ekologikoa, dela lotura-korridoreen bidez, lotura-eremuen bidez zein indargabetze-eremuen bidez. Horien barruan daude ibai-sarea bera eta Urdaibaiko Itsasertzeko eta Paduretako KEBa.

Eremu honetako konektagarritasunaren diagnosiaren laburpen modukoa da Gurrutxagak (2005) KESaren eta hiriguneen arteko bi interakziogune kritikori buruz eginiko identifikazioa. Horietako bat Zornotzan dago eta bestea, berriz, Muruetan. Izan ere, konektagarritasunari eragiten dioten arazo handienetako bat da ingurua giza eraikinen bidez fragmentatzea, batez ere etxeak elkartu gabe gauzatzen den herri-espantsioa gertatzen denean; etxe bakarren bidez, alegia. Bereziki baserri-giroko ustiamenduari lotu gabe egiten denean, orduan itxiturak nonahi agertzen baitira, eta basafaunari oztopo gaindiezinak ezartzen baitzaizkio.

Gurrutxagak (2005), halaber, auto-harrapaketak pilatzen diren Urdaibaiko hiru bide-zati aipatu ditu (Ertzaintzak erregistratutako basahuntz- eta basurde-harrapaketen datuetan oinarrituta). Hala, Gernika-Markina eskualde egiturako KZP-k xedatzen du (Ezkiaga, 2002), proposatu diren eskualde mailako korridoreek egoki jardungo badute, ahal den neurrian, murriztu egin behar direla basafaunaren harrapaketak bideetan. Nolanahi ere, kopuruak xumeak dira eta arazoa bide-segurtasunekoa da batik bat; hala ere, harrapaketak pilatzen diren bide-zatiek basoetako espezieen nondik norako mugimenduen berri eman lezakete.

Consultora de Recursos Naturales, S.L.-ren (2006a) eta Urdaibai Fundazioaren (2007) lanek berriaz heldu zioten gaiari, ez bereziki zirkulazio-istripuen ikuspegitik, baizik eta bide-azpiegiturek sortzen duten oztopo-efektuaren ikuspegitik. Bereziki aztertu zen erreketako ugaztunen heriotza-tasa. Hala, Europako bisoia (*Mustela lutreola*) harrapatuta hiltzeko arrisku bizia duten 29 puntu kartografiatu eta deskribatu dira; horietatik 12 arrisku handi zein ertainekotzat jo dira. Hirutan lehenbailehen hartu behar dira bidea egokitzeko neurriak: Bi Kortezubin (BI-638 errepidean, Olalde eta Ibarra erreken gainean), eta bestea Gernikan (BI-635 errepidean, Etxeanandierreka gainean). Gerora, talde tekniko horrek berak aurkitu du Amunaga erreka lurperatu izanak ere (izen bereko industrialdean, hain zuzen, begi-bistako oztopo-efektua eta bisoiaren heriotzak eragin dituela. Beraz, lehenbailehen zuzendu beharreko lau puntu identifikatu dira, guztia bat datorrelarik Europako bisoiaren Bizkaiko kudeaketa-planaren edukiarekin.



<p>Bestalde, bada ibai-sarean faunak aurkitzen dituen oztopo artifizialen inbentarioa ere, aingiraren kudeaketa-planetik (Azzi-Tecnalia <i>et al.</i>, 2008) aterea. EAeko KESean «konektatzeko interes bereziko ibai-tarte» gisa deskribatu den Urdaibaiko Ibai Sareko KEBean ibai-faunak gorabidean aurkitzen dituen 75 oztopo aurkitu dira (presa handi nahiz txikiak, ur-emaria neurtzeko estazioak...), eta oztopo bat, berriz, behera bidean (66 kw-ko minizentral hidroelektriko bat). Halaber dago arraintzako pasaleku bat. Aingiraren kudeaketa-planak, horrez gain, padurarekiko konektagarritasuna hobetzeko neurriak ere proposatu ditu.</p>	
<b>Baldintzagarriak</b>	
<p>Urdaibaiko eta Gaztelugatxeko Donieneko paisaiaren ezaugarrietako bat da giza populazio handia bizi dela bertan, eta sakabanatuta bizi dela. Horrek, berriz, hornitze- (ura, argindarra, gasa...) eta komunikazio-azpiegiturak oso garatzea ekarri du, bizileku urbanoei, landa-bizilekuei eta industriaguneei zerbitzua emango bazaie. Beraz ezin konta ahala gurutze daude erreka eta bideen artean, eta horrek dakarren konektagarritasun-arazoa, inoiz, handia izan daiteke. Horrekin batera, erabilera-presio handia pairatzen du eskualdeak, eta landare-formazio naturalak oso banaketa zatikatua dute.</p> <p>Hainbat azterlan, plan zein plan-proposamenek dagoeneko proposatu dituzte Urdaibaiko eta Gaztelugatxeko Donieneko eremuan konektibitate ekologikoa kontserbatzeko eta hobetzeko neurriak.</p>	
<b>Helburuak eta neurriak</b>	
<b>X.79 xedea</b>	<b>Kontserbatzeko interes handieneko begetazio naturaleko guneak dituzten KEBen arteko (Urdaibaiko artadi kantauriarrak eta Urdai- baiko itsasertzak eta padurak) konektagarritasun ekologikoa kontserbatzea eta hobetzea nekazaritzako, abeltzaintzako eta egur- gintzako eremuetan zehar; halaber, Urdaibaiko ibai-sarearen KEBaren eta Urdaibaiko itsasadarreko HBBEaren funtzionaltasuna gutxieneko balio batetik gora atxikitzea.</b>
<b>E.79.1 emaitza</b>	<b>KESak xedatutako zonakatzearrekin lotutako neurriak abiaraziko dira: muin-espazioak.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	Halaber da aplikagarria Gidalerro hau: <b>G.2.12</b>
<b>E.79.2 emaitza</b>	<b>KESak xedatutako zonakatzearrekin lotutako neurriak abiaraziko dira: lotura-korridoreak eta moteltze-eremuak.</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	Halaber da aplikagarria Gidalerro hau: <b>G.2.12</b>
<b>E.79.3 emaitza</b>	<b>KESak xedatutako zonakatzearrekin lotutako neurriak abiaraziko dira: konektatzeko interes berezia duten ibai-zatiak (padurako ur-gunea ere bildu da hemen)</b>
<b>Gidalerroak, Arauak eta Neurriak</b>	<b>N.79.3.1.</b> Autoek Europako bisoiak ugari harrapatzen dituzten errepideetako lau puntu beltz lehenetsietan konektagarritasun ekologikoa hobetzeko proiektuak egitea (ikus VIII. eranskina). Puntu horietan, bidearen zeharkako drainatze-azpiegiturak basafaunak bidea zeharkatzeko moduan egokitzen saiatuko da, albo-bide lehor bat atonduta. Halaber, animalien galtzara ez gurutzatzearen, hesi fauna-biltzaileak ezartzeko eta faunabideen ondoko ertzak landarez estaltzeko aukera ere aztertuko da, animaliak bide-azpira bideratzearen. Oztopo-efektua bidea lurperatuta konpontzen bereziki zaila izanez gero, faunak puntu hori konektore ekologiko moduan ez erabiltzeko modua proiektatuko da.  Halaber dira aplikagarriak Gidalerro, Arau eta Neurri hauek: <b>G.2.12, G.7.2, A.6.2, N.1.1.1 eta N.39-42.4.1</b>

2013ko abenduaren 24a, asteartea

**NEURRIAK KOADRO LABURRA**

Natura 2000 Sareko espazioak kontserbatzeko eta kudeatzeko tresnen barruan Urdaibairako eta Gaztelugatxeko Donienerako proposatu diren neurriak azaltzen dira hurrena:

GE-kodea	Gako elementua	Espazioa	Xede-kodea	Xedea	Emaizta-kodea	Emaizta	Neurri-kodea	Neurria
GE 1	Estuarioak	Urdaibaiko Itsasertzak eta Padurak	X 1	Gaur egungo egitura eta funtzioa kontserbatzea eta ahal den neurrian hobetzea, sistemak pairatzen dituen presioei eraginginda.	E 1.1	«Estuario» habitatak okupatzen duen kanalaren ezaugarri hidraulikoak eta uraren kalitatea hobetu dira, eta estuarioa erabat leheneratzea sustatu da.	N 1.1.1	Habitat honek hartzen duen azalera leheneratzea eta estuarioa naturalizatzeko laguntzea.
GE 2	Itsasoko urak une oro estaltzen ez dituen hondar- eta lohi-bankuak	Urdaibaiko Itsasertzak eta Padurak	X 2	Sistemaren beharrezko egonkortasuna atxikitze bertan bizi diren taxon nagusientzako biotopo moduan bideragarri iraungo duela bermatzearen, eta aldi berean habitataren berezko komunitateentzako kondizio ekologikoak hobetzea.	E 2.1	Habitataren osotasuna hobetzea da helburua, fauna eta flora interesgarriarentzako ballabide moduan.	Ez dago berriazko neurririk Gako Elementu honen Xedeak eta Emaitzak erdieleste.	
GE 3	Itsasertzeko urmaelak	Urdaibaiko Itsasertzak eta Padurak	X 3	Itsasertzeko aintzira funtzional bati dagokion heldutasun-gradura iristea, bere baitan komunitateak behar bezala graduatuta dauzkala, animaliak zein landareak.	E 3.1	Aintziraren heldutasunerantzko bilakaera sendotu egingo da, habitat lehenetsi gisa.	N 3.1.1. N 3.1.2.	Aintzirako landare- eta bentos-komunitateen bilakaera berriaz monitorizatzea. Intereseko taxonek –hegaztiak batik bat– lurraldeari ematen dioten erabilera berriak berriaz monitorizatzea.
GE 4	Atlantiko eta Baltikoko kostaldeetako itsaslabarrak	Urdaibaiko Itsasertzak eta Padurak / Gaztelugatxeko Doniene	X 4	Sistemaren beharrezko egonkortasuna atxikitze bertan bizi diren taxon nagusientzako biotopo moduan bideragarri iraungo duela bermatzearen..	E 4.1	Habitataren osotasuna hobetzea da helburua, fauna interesgarriarentzako ballabide moduan.	N 4.1.1. -	Izaron duen kontserbazio-egoera analizatu eta hark jasan litzakeen kalteak leuntzeko neurriak ezarri Ikus zer neurri proposatu diren elementuen kasuan

## 2013ko abenduaren 24a, asteartea

GE-kodea	Gako elementua	Espazioa	Xede-kodea	Xedea	Emaizta-kodea	Emaizta	Neurri-kodea	Neurria
GE 5	Kostaldekoko duna finkoak, belarkilandarekiarekin (duna grisak)	Urdaibaiko Itsasertzak eta Padurak	X 5	Heldutasun-egoera bat erdiestea, non taxon aloktonoko komunitateek ez duten lehiarik ekarriko. Hari lotutako azpisistema minoritari-oen egoera kontserbatzea.	E 5.1	Duna tertziarioaren heldutasuneranzko bilakaera sendotu egingo da, habitat lehenetsi gisa.	N 5.1.1.	Habitat mota honetako landare-komunitateen bilakaera berriaz monitorizatzea eta ikertzea, estuari-oen dinamika osorik eta ondo atxikitze behararen testuinguru orokorrean.
					E 5.2	Duna flora aloktono inbaditzailez garbi atxikiko da.	-	Ikus zer neurri proposatu diren taxon aloktonoak kontrolatzeko
					E 6.1	Nabarmen murriztuko da landare aloktono inbaditzaileek eragindako presioa.	-	Ikus zer neurri proposatu diren taxon aloktonoak kontrolatzeko
GE 6	Lezkadiak	Urdaibaiko Itsasertzak eta Padurak / Urdaibaiko ibai-sarea	X 6	Oraingo egitura- eta funtzio-kondizioak hobetzea, hartara zoko ekologiko moduko haren kanpo-funtzioak sistema hauek erabiltzen dituzten espezieentzat mesedegarriak gerta daitezten.	E 6.2	Nabarmen murriztuko da ekologikoki garrantzitsuenak diren lezkadietan hondakinak egoteak eragindako presioa.	N 6.2.1.	Estuarioko, haren inguruko eta ibai-bazterreko lezkadi nagusietan (ur gezatiko azpimota lehorrean eta helofitikoan) hondakin-pilatzek gehien eragindako eremuak ebaluatzea
							N 6.2.2.	Estuarioko eta estuario-buru nagusietako lezkadi handietan hondakinak kentzeko kanpainak egitea.
GE 7	<i>Erica vagans</i> duten kostaldeko txilardi lehor atlantikoak	Urdaibaiko Itsasertzak eta Padurak / Gaztelugatxeko Doniene	X 7	Kontserbazio-egoera egokia lortzea (egungoa hobetzea kasu guztietan), betiere formazio nagusia -kostaldeko txilardia- txilar lehorreko formazio kontinentalagoekin - 4030 kodekoekin- lotuz.	E 7.1	4040 habitataren benetako azalera sendotuko da eta, hala, txilardi osoarena.	Ez dago berriazko neurririk Gako Elementu honen Emaizta hau erdiesteke.	
					E 7.2	Gaztelugatxeko Donieneko itsasertzeko eremuan landare inbaditzaileak kontrolatuko dira.	-	Ikus zer neurri proposatu diren taxon aloktonoak kontrolatzeko
GE 8	Ereinozdi zuhaizkarak	Urdaibaiko kantauniar artadiak	X 8	Gaur egungo sailak sendotzea eta ahal den guneetan zabaltzen laguntzea	E 8.1	Urdaibaiko Artadi Kantauriarak KEBean bildutako ereinozdiak kontserbatuko dira	Ez dago berriazko neurririk Gako Elementu honen Xedeak eta Emaiztak erdiesteke.	
GE 9	Turistikoki ustiatu gabeko kobazuloak	Urdaibaiko ibai-sarea / Urdaibaiko Artadi Kantauriarrak	X 9	Kobazuloetako habitat moduko kondizioak atxikitzea eta hobetzea, horiek gaur egun taxon troglodita, troglodio eta troglomenoztat nahiz lurpeko ur-medioan bizi diren taxonen zatidun gaitasuna egoki jakite-rik hasita. Halaber	E 9.1	Kontrolik gabeko ibilerak eta nahi ez den poluzioak eragindako presioa urritu egingo da.	N 9.1.1	Kobazuloetako alterazioak ezabatzeke programa diseinatzea, taxonak estatatzeko gaitasunaren arabera duten garrantzia aintzat hartuko duena.
					E 9.2	Kobazuloen jakintza hobetu egingo da taxon interesgarrien habitat moduan.	N 9.2.1	Kobazuloetako faunako (troglodio zelin estigobio) aldaerei buruzko azterlanak egitea, sistema bakoitzak talde faunistiko bakoitzarentzat zer-nolako gaitasuna duen jakiteko.

## 2013ko abenduaren 24a, astearta

GE-kodea	Gako elementua	Espazioa	Xede-kodea	Xedea	Emaizta-kodea	Emaizta	Neurri-kodea	Neurria
				sakondu behar da kobazuloak eta kanpoaldea komunikatzen dituzten eremuetak berezko landaretzaren jakintzan, aktiboki kudeatu beharreko elementu denez.			N 9.2.2	KEBetako kobazuloen sarrerei lotutako landareei buruzko azterlanak egitea.
GE 10	<i>Quercus ilex</i> eta <i>Quercus rotundifolia</i> artadiak	Urdaibaiko kantauniar artadiak	X 10	Baso barrua eta mendi-oineko baso-ertza hobetzea	E 10.1	Dauden artadi-hariztiak kontserbatuko dira.	Ez dago berariazko neurririk Gako Elementu honen Emaizta hau erdiesteko.	
					E 10.2	Masaren barne-egitura hobetu eta suzesio-serieko etapen bilakaera erraztu egingo da.	Ez dago berariazko neurririk Gako Elementu honen Emaizta hau erdiesteko.	
					E 10.3	Artadi-hariztiaren osotasuna hobetuko da haren eremu potentzial osoan.	N 10.3.1	Basoak sortzeko moduko lurretan, horiek egur-laboreen kontura zabaltzeko programa bat diseinatzea.
				Erreka-habitataren sistemari jarraitutasuna ematea, bera baita ertzen arteko lotura eta arroaren eta itsasoaren arteko lotura, estuarioa trantsiziogune izanik. Halaber erreka-basoei, horien zabalera eta luzera handituz. Urbazterreko zuhaixka formako sahasiari dagokionez, haren barne-egitura hobetzea eta haltzadi-lizardiranzko suzesioa bultzatzea da helburua, hori baitu berezko joera.		Habitataren egitura eta funtzioa hobetuko dira haltzadiak estaltzeko azalera sendotuta eta hobetuta. Sahastien kasuan, berriz, egungo komunitateak hobetu eta ordezkoko basoa (erreka-basoa, hain zuzen) leheneratu egingo da.	N 11.1.1	Unean egoera larrienean dauden haltzadiak leheneratzeko proiektua diseinatzea eta gauzatzea, bereziki estuario-aurreko ordeakako ibaigune nagusiei dagokienez -estuaria dotozen ur gezako ekarpen nagusiak baitira-, KEBen eta <i>Establecimiento de prioridad de actuaciones de revegetación de riberas en la CAPV</i> (URA, 2011) azterlanean 1. Lehentatzen diren zatien arteko konektibitatea bermatzearren, batik batik.
GE 11	<i>Alnus glutinosa</i> eta <i>Fraxinus excelsior</i> duten erreka bazterreko basoak.	Urdaibaiko Itsasertzak eta Padurak / Urdaibaiko ibai-sarea	X 11		E 11.1		N 11.1.2	Ur-ekosistemak Lehengoratzeko Gidaplana, EAEko plangintza hidrologikoan aurreikusia, idaztea.
					E 11.2	Ibai-sareari kalte handiena egiten dioten lehen sektoreko erabileretarako urruntze-distantziak xedatuko dira.	N 11.2.1	Urdaibaiko Ibai Sareko KEBa izendatu eta urtebeteko epean Urdaibaiko Ibai Sareko KEBaren barruan espezie aloktonoekin egurlandaketa berriak ezartzeko debekua konpentsatzeko irizpideak xedatuko dira; halaber konpentsazio horiek jasotzeko prozedura. Halaber prestatuko dira epe horretan aplikagarri izan litezkeen borondatezko hitzarmenak egiteko irizpideak.

## 2013ko abenduaren 24a, asteartea

GE-kodea	Gako elementua	Espazioa	Xede-kodea	Xedea	Emaizta-kodea	Emaizta	Neurri-kodea	Neurria
					E 11.3	Ibai-habitaten garrantziaren jakintza hedatuko da, batez ere tipologia ekologikoaren adierazgarriak direnen garrantziarena.	N 11.3.1	Erreka-basoen, oro har, eta bereziki erreketako haltzadien balioei buruzko dibulgazio-materiala prestatzea, biodibertsitate-biltegi moduan ez ezik, korridore ekologiko gisa eta ibai-ugaldiak leuntzeko eta kontrolatzeko lehen mailako elementu funtzional moduan ere.
					E 12.1	Dauden hariztiak kontserbatuko dira eta haien egitura hobetuko da suzesioko serieen etapen bilakaeraren alde eginez.		Ez dago berariazko neurririk Gako Elementu honen Emaizta hau erdiesteke.
GE 12	Haritz kandudunez osatutako harizti oligotrofoak	Urdaibaiko ibai-sarea	X 12	Hariztiaren eremu potentzialetan azalera handitzea, egitura hobetzea eta suzesio ekologikoa sustatzea, sahasi-urkidiak hartara jotzen baitu.	E 12.2	Hariztirako eremu potentzialetan, urkidi sendotuak barne, hariztia leheneratzea hobetuko da.		Ez dago berariazko neurririk Gako Elementu honen Emaizta hau erdiesteke.
					E 12.3	Hariztiaren osotasuna hobetuko da haren eremu potentzial osoan.	N 12.3.1	Basoak sortzeko moduko lurretan, horiek egur-laboreen kontura zabaltzeko programa bat diseinatzea. Ibai-sarea indartzeko hori egitea garrantzitsua suertatzen den KEBeko eremuetan, batez ere.
					E 13-15.1	Iratze horientzat habitat egokia egongo dela bermatuko da.	N 13-15.1.1	Urdaibaiko Ibai Sareko KEBean taxonek duten banaketa potentziala kartografiatzea.
GEM 13-15	EB mailako garrantziko iratze paleotrofikalak	Urdaibaiko ibai-sarea	X 13-15	Espezie horien gaur egungo populazio-egoera hobetzea.	E 13-15.2	EB mailako intereseko taxonak bizkor hautemango dira	N 13-15.2.1	EB mailako intereseko taxonak, batez ere iraungitzetik gertu daudenak, bertan bizi direla adierazten duen dibulgazio-materialen bat egitea. Horiek hautemateko prozesuan herritarrek parte har dezatela sustatzea; esaterako, landareen argazkiak bidailita, identifikatzearen. Neurri hau EB mailako intereseko taxon guztiarentzat komuna litzateke.
GEM 16-28	Itsasertzeko eta padurako florako gako elementuak	Urdaibaiko Itsasertzak eta Padurak / Gaztelugatxeko Doniene	X16-28	A) <i>Chamaesyce pepilis</i> , <i>Festuca vasconensis</i> , <i>Medicago marina</i> : Taxonak ostatatzeako kondizioak atxikitzea,	E 16-28.1	Taxonen presentzia eta potentzialtasuna ebaluatuko da.	N 13-15.2.2	Gaur egun dauden populazioak monitorizatzea, espezie kalteberekin eta arriskuan daudenekin batera.
							N 16-28.1.1	<i>Lavatera arborea</i> Gaztelugatxeko Donieneko KEBean ere egotearen balioa ebaluatzea eta batez ere Aketxek zer potentzialtasun eskaintzen duen aztertzea.

## 2013ko abenduaren 24a, asteartea

GE-kodea	Gako elementua	Espazioa	Xede-kodea	Xedea	Emaiza-kodea	Emaiza	Neurri-kodea	Neurria
		( <i>Lavatera arborea</i> )		haien habitata -duna- sistemak eta hondartzako landare-ertzakontserbatuz eta sustatuz, bai gaur egungo berreskuratzeprogramen bidez, bai eremuaren gainerako lekuetan egotea errazten duten elementuak zainduta.			N 16-28.1.2	<i>Armeria euscadiensis</i> eta <i>Lavatera arborea</i> ren populazioen muntak eta banaketak zer bariozio duten jakitea. Espezie horiek pairatzen dituzten kalteak egiaztatzea eta horiek leuntzeko neurri egokiak zein diren argitzea.
				B) <i>Matricaria maritima</i> subsp. <i>maritima</i> , <i>Sonchus maritimus</i> subsp. <i>maritimus</i> eta <i>Zostera noltii</i> : Espezieen gaur egungo populazio-kondizioak atxikitzea, bereziki <i>Sonchus</i> eta <i>Matricariari</i> dagokienez, eremutik desagertzeko arrisku bizian baitaude.	E 16-28.2	Taxon horientzat habitat egokia egongo dela bermatuko da.	N 16-28.2.1	Itsaski-bilketak <i>Salicornia ramossima</i> eta <i>Zostera noltii</i> ren populazioei nola eragiten dien ebaluatzeko eta hura bi espezieen kontserbazioarekin bateratzeko moduko neurriak definitzeko azterlan bat egitea.
				C) Uneko populazio-kondizioak hobetzea, dagoeneko daudenen ezaugarri genetiko bereko aldaxka eta landare gazteak lortzea sustatuz. D) <i>Herniaria ciliolata</i> , <i>Honckenya peploides</i> , <i>Salicornia ramossissima</i> eta <i>Suaeda albenscens</i>			N 16-28.2.2	Itsas ertzean eta paduran kontserbatu beharreko landare-espezieak non dauden eta zer-nolako garrantzi ekologikoa duten azaltzen duten ohol informatiboak egitea eta ezartzea.
							N 16-28.3.1	Espezie kalteberen, eta arriskuan eta arrisku larrian daudenen kasuan, hedapen potentzialeko eremuak identifikatzea eta eskualdeko material genetikotatik abiatuta lehenertzeko eta hedarazteko protokoloa definitzea.
					E 16-28.3	Taxonak hedarazteko protokolo bat diseinatuko da.	N 16-28.3.2	Arrisku larrian dauden espezieen kasuan - <i>Chamaesyce pepilis</i> , <i>Festuca vasconensis</i> eta <i>Medicago marina</i> -, berriz ezartzeko protokolo bat diseinatzea, bereziki espezieak berritoki aipatzen badira.

## 2013ko abenduaren 24a, astearta

GE-kodea	Gako elementua	Espazioa	Xede-kodea	Xedea	Emaiza-kodea	Emaitza	Neurri-kodea	Neurria
				<p>Populazio egonkorrak atxikitzea eta haien bilakaera monitorizatzera, oraingo banaketan eremuetan zein KEBaren barruko antzeko beste batzuetan.</p> <p>E) <i>Lavatera arborea</i> eta <i>Armeria euscadiensis</i>: Populazioak egonkor atxikitzea labarretako ekotipoaren kasuan gutxieneko balio onargarri baten eta gehieneko balio baten artean. Dagoeneko ezaguna den tokietatik kanpo izan lezaketen banaketa zein den ahal den neurrian jakitea.</p>	E 16-28.4	Taxon guztien garrantzia hedaraziko da eta galduta, gaitzeko arriskuan nahiz dauten taxonak larrian hautematea erraztuko da.	N 16-28.4.1	Espezie hauek biodibertsitatea kontserbatzeko duten garrantzia islatzen duten dibulgazio-materialak prestatzea eta gizariteak horiek ezagutzea sustatzea.
GE 29	<i>Taxus baccata</i>	Urdaibaiko kantaauriar artadiak	X 29	Hagin-populazio egonkorak atxikitzea, gaur egungo nukleoak sendotuta eta haien garapenari lagunduta.	E 29.1	Oraingo populazioak kontserbatuko direla bermatuko da.	N 29.1.1	Urdaibaiko Artadi Kantaauriarren KEBean dauten hagin inbentarioa egitea
GE 30	<i>Austrapotambius pallipes</i>	Urdaibaiko ibai-sarea	X 30	Ibai-karramarro arruntaren gaur egungo populazioak kontserbatzea eta banaketazalera handitzea.	E 29.2	Haginak taxon gisa zein ekosistemaren elementu gisa duen garrantzia dibulgatuko da.	N 29.2.1	Taxonaren balio ekologiko eta kulturalen inguruko dibulgazio-materiala prestatzea, artadia, baso mistoa eta hariztia biltzen dituen estrategia baten barruan.
					E 30.1	Urdaibaiko ibai-karramarro autoktono zein aloktono guztien egungo banaketa zein den jakingo da.	N 30.1.1	Oka ibaiaren UHko ibai-karramarroen banaketa sei urtetik behin aztertzea, UHan barrena dauten laginketa-estazioetan espezie autoktonoaren eta aloktonoaren populazioen bilakaera argitzeko eta habitataren nahiz espezioen gaineko esku-hartze neurriak xedatu ahal izateko.

2013ko abenduaren 24a, asteartea

GE-kodea	Gako elementua	Espazioa	Xede-kodea	Xedea	Emaizta-kodea	Emaizta	Neurri-kodea	Neurria
			E 30.2	Espeziearen banaketa-azalera handituko da.			N 30.2.1	Espezia ibai-sarean barrena hedatzeko traslokazio-plan bat diseinatzea. Horretarako aintzat hartuko dira espeziearen banaketari buruzko azterketak eta habitataren gaitasuna ibai-karramarro aloktonorik dagoen ala ez kontuan izanda, halaber baso-igel iberiarrik ez egotea eta errehaburuetan gehiegizko ur-hartuerik ez egotea baldintza moduan hartuta.
			E 30.3	Eragotzi egingo da espezie aloktonoen ( <i>Pacifastacus leniusculus</i> eta <i>Procambarus clarkii</i> ) populazio berriak sortzea eta ibai-karramarro arruntaren eremuetara zabaltzea.			N 30.3.1	Ibai-karramarro autoktonoa bizi dela egiaztatu den ibai-zatietatik behera urtean bi aldiz egingo dira laginketak, bi helbururekin: espezieak zati berriak kolonizatu dituen egiaztatzea, eta, espezie aloktonoek erreka kolonizatu badute, lehenbailehen hautematea.
							-	Ikus N 18-19.2.1 neurria
			E 30.4	Amerikako karramarro gorriak eta seinaleduen karramarroak <i>Austropotamobius pallipes</i> egiten dioten kaltea ezagutaraziko da.			-	Ikus N 18-19.3.1 eta N 18-19.3.2 neurriak
GE 31	<i>Elona quimperiana</i>	Urdaibaiko kantauriar artadiak	X 31	Banaketa hobeto ezagutzera eta populazioaren jarraipena egitea.	E 31.1	<i>Elona quimperiana</i> ren KEB barruko banaketa zein den jakingo da eta populazioen jarraipena egiteko sistema bat ezarriko da.	N 31.1.1	KEB barruko banaketa aztertzea eta hainbat populazio aukeratu sei urteko behin analizatzeko.
GE 32	<i>Euphydryas aurinia</i>	Urdaibaiko kantauriar artadiak	X 32	Banaketa hobeto ezagutzera eta populazioaren jarraipena egitea.	E 32.1	<i>Euphydryas aurinia</i> ren Urdaibaiko eta Gaztelugatxeko Donieneko esparuko banaketa zein den jakingo da eta populazioen jarraipena egiteko sistema bat ezarriko da.	N 32.1.1	Banaketa aztertzea eta hainbat populazio aukeratu sei urteko behin analizatzeko.



## 2013ko abenduaren 24a, asteartea

GE-kodea	Gako elementua	Espazioa	Xede-kodea	Xedea	Emaizta-kodea	Emaizta	Neurri-kodea	Neurria
GEM 33-34	Koleoptero saproxiliko mehatxatuak	Urdaibaiko kantauriar artadiak	X 33-34	Habitata kontserbatzea, banaketa hobeto ezagutzea eta populazioaren jarraipena egitea.	E 33-34.1	<i>Cerambyx cerdo</i> ren eta <i>Lucanus cervus</i> en Urdaibai eta Gaztelugatxe Donie-neko esparriko banaketa zein den jakingo da eta populazioen jarraipena egiteko sistema bat ezarriko da.	E 33-34.1.1	Banaketa aztertzea eta hainbat populazio aukeratu sei urteko behin analizatzeko.
GE 11	<i>Alnus glutinosa</i> eta <i>Fraxinus excelsior</i> duten erreka bazterreko basoak.	N 11.3.1	Erreka-basoen, oro har, eta bereziki erreketako haltzadien balioei buruzko dibulgazio-materialia prestatzea.	Dibulgazioa	1	Materiala prestatzea	1	6.000	6.000			6.000			
GEM 13-15	EB mailako garrantziko iratze paleotropikalak	N 13-15.2.1	EB mailako intereseko taxonak, batez ere iraugintzetik gertu daudenak, bertan bizi direla adierazten duen dibulgazio-materialen bat egitea.	Dibulgazioa	1	Materiala prestatzea	1	6.000	6.000						
GEM 16-28 / GE 4	Itsasertzeko eta padurako florako gako elementuak 16-28 / Atlantiko eta Baltikoko kostaldeetako itsaslabarrak	N 16-28.2.2	Itsas ertzean eta paduran kontserbatu beharreko landare-espezieak non dauden eta zer-nolako garrantzi ekologikoa duten azaltzen duten ohol infor-maiboak egitea eta ezartzea.	Dibulgazioa	1	Materiala prestatzea	1	12.000	12.000						
		N 16-28.4.1	Espezie hauek biodibertsitatea kontserbatzeko duten garrantzia islatzen duten dibulgazio-materialak prestatzea eta gizarteak horiek ezagutzea sustatzea.	Dibulgazioa	2	Materiala prestatzea	1	9.000	9.000				9.000		

2013ko abenduaren 24a, astearta

GE-kodea	Gako elementua	Neurri kodea	Neuria	Atala	L.	Itema	Kop. (Bakoitzak)	€ (Bakoitzak)	€ Guztira	1. urtea	2. urtea	3. urtea	4. urtea	5. urtea	6. urtea
GE 29	<i>Taxus baccata</i>	N 29.2.1	Taxonaren balio ekologiko eta kulturalen inguruko dibulgazio-materiala prestatzea, artadia, baso mistoa eta hariztia biltzen dituen estrategia baten barruan.	Dibulgazioa	2	Materiala prestatzea	1	6.000	6.000					6.000	
GEM 70-71	Estuarioko hegazti migrazioak	N 70-71.2.1	Estuarioaren erabilera publikoari lotutako arau berriak dibulgatzeko kanpainak gauzatztea.	Dibulgazioa	1	Dibulgazioa gauzatztea	1	6.000	6.000						
GEM 72-76	Mehatxatuen dauden kiropteroak	N 72-76.6.1	Gizarteari, oro har, eta bereziki beren ogibidea dela-eta nahiz kolonietatik gertu jarduteagatik saguzarrei kalte egin liezaieketen pertsonen zuzendutako dibulgazio-eta sentsibilizazio-plan bat abiaraztea.	Dibulgazioa	2	Dibulgazioa gauzatztea	1	9.000	9.000						9.000
GE 78 TA 1-17	Landare alokto-inoak	NA 1-17.3.1	Espezie aloktono hauek ekosistemaren duten eraginaren inguruko informazio-eta sentsibilizazio-kanpainak egitea. Halaber egiten diren kontrol-eta ezabatze-kanpainen ingurukoak.	Kontrola / Dibulgazioa	2	Dibulgazioa gauzatztea	1	12.000	12.000		12.000				

2013ko abenduaren 24a, asteartea

GE-kodea	Gako elementua	Neurri kodea	Neuria	Atala	L.	Itema	Kop. (Bakoitzak)	€	€ Guztira	1. urtea	2. urtea	3. urtea	4. urtea	5. urtea	6. urtea
GE 78 TA 18- 19 / GE 30	<i>Pacificastacus leniusculus</i> eta <i>Procambarus clarkii</i> / <i>Austropotamobius palipes</i>	NA 18- 19.3.1	Espezie alokto- noek ur- ingurunean duten eraginaren inguruko informa- zio- eta sentsibilizazio- kanpainak egitea. Gizarteari oro har eta ibai- ekosistemen kontserbazioarekin bereziki lotutako sektoreei zuzen- duak izango dira kanpaina horiek.	Kontrola / Dibulgazioa	2	Dibulgazioa gauzatzea	1	9.000	9.000					9.000	
		NA 18- 19.3.2	Arrantzako lanabesak desin- fektatzeko metodoei buruzko informazio- kanpainak egingo dira <i>Aphanomyces</i> <i>astaci</i> ondoaren esporak ez hedatzearren.	Kontrola / Dibulgazioa	2	Dibulgazioa gauzatzea	1	3.000	3.000					3.000	
GE 78 TA 20	<i>Podarcis pityu-</i> <i>sensis</i>	NA 20.2.1	Espezie alokto- noek inguru naturalean duten eraginaren inguruko informa- zio- eta sentsibilizazio- kanpainak egitea. Gizarteari oro har eta ekosistema naturalen kon- tserbazioarekin bereziki lotutako sektoreei zuzen- duak izango dira kanpaina horiek.	Kontrola / Dibulgazioa	2	Dibulgazioa gauzatzea	1	6.000	6.000						6.000



2013ko abenduaren 24a, astearta

GE-kodea	Gako elementua	Neurri kodea	Neuria	Atala	L.	Itema	Kop. (Bakoitzak)	€ (Bakoitzak)	€ Guztira	1. urtea	2. urtea	3. urtea	4. urtea	5. urtea	6. urtea
GE 78 TA 21	Neovision vison	NA 21.3.1	Espezie alokto- noek ur- ingurunean duten eraginaren inguruko informa- zio- eta sentsibilizazio- kanpainak egitea. Gizarteari oro har eta ibai- ekosistemen kontserbazioarekin bereziki lotutako sektoreei zuzen- duak izango dira kanpaina horiek.	Kontrola / Dibulgazioa	2	Dibulgazioa gauzatzea	1	9.000	9.000						9.000

Atala guztira	93.000	18.000	12.000	12.000	9.000	18.000	24.000
---------------	--------	--------	--------	--------	-------	--------	--------

**DIBULGAZIOA**

1. lehent- suna	30.000	18.000	0	12.000	0	0	0
2. lehent- suna	63.000	0	12.000	0	9.000	18.000	24.000

## III. ERANSKINA. EKAINAREN 4KO 358/2013 DEKRETUARENA

URDAIBAI ETA GAZTELUGATXEKO DONIENEN EREMUEN KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUEI  
ETA HEGAZTIENZAKO BABES BEREZIKO EREMUAREN HELBURUAK ETA JARDUERAK  
(ES2130006), (ES2130007), (ES2130008), (ES0000144) ETA (ES2130005) (\*)

**AURREKARIAK**

Urdaibain eta Gaztelugatxeko Donien (KEB eta HBBE) Natura 2000 sarea kontserbatzeko Gidalerroak eta Arauketak bildu dira dokumentu honetan:

**Gidalerroak.** Erabilera, jarduera, inguru eta elementu gako jakinei buruzko xedapenak dira, KEBaren eta HBBEaren barruan botere publikoen jarduna orientatzekoak, zein bere eskumenen esparruan.

**Arauketak (arauak).** KEBean eta HBBEan ezarritako kontserbazio-helburuak betetzearekin bateraezintzat jotzen diren zenbait erabilera eta jarduera mugatu nahiz arautu egiten dituzten xedapenak dira.

**Gidalerro** eta **Arauketa** horietako batzuk ez dira Natura 2000 sareko eremuetara mugatzen; aitzitik, esparru handiagoa hartzen dute:

- Urdaibai: Urdaibaiko Biosferaren Erreserba, alegia (UBE).
- Gaztelugatxeko Doniene: biotopo babestua eta haren eremua babesteko ingurua.
- Kasuan kasu adierazten diren beste lurralde-eremu batzuk; esaterako, Oka ibaiaren unitate hidrologikoa.

**GIDALERROAK ETA ARAUKETAK**

Epigrafe hauei jarraituta azaltzen dira gidalerro eta arauketak:

- 1.- Kontserbatu beharrekoen babes bereziko prebentzio-araubidea.
- 2.- Kontserbazioa eta ingurumen-hobekuntza-Oro har.
- 3.- Kontserbazioa eta ingurumen-hobekuntza-Flora.
- 4.- Kontserbazioa eta ingurumen-hobekuntza-Fauna.
- 5.- Floraren eta faunaren erazte-ustiaketa (bereiz aztertu dira nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza).
- 6.- Nekazaritza- eta basogintza-erabilera.
- 7.- Azpiegitura eta eraikuntza-erabilera.
- 8.- Erabilera publikoa eta olgeta-erabilera.
- 9.- Zaintza eta sartzeko mugak.
- 10.- Taxon aloktonoen kontrola.

\* Oharra: KBEei buruzko dokumentazio osoa interneteko helbide honetan kontsultatzea aholkatzen da:  
<http://www.euskadi.net/natura2000>

**KONTSERBATU BEHARREKOEN BABES BEREZIKO PREBENTZIO-ARAUBIDEA****Gidalerroak**

D.1.1.- KEBetan zein HBBEetan egiten den jarduera, plan edo proiektu orok Natura 2000 sarearen helburuekin bat datorren analizatzen duen txosten bat izango du, eta indarrean dagoen EAEko arauen arabera egin beharko da haren ingurumen-eraginaren egokitua azterketa.

D.1.2.- Gaur egungo kontserbazio-egoeratik abiatuta eta Natura 2000 sarearen kudeaketa-prozedurak aplikatzeko erreferentzia-dokumentuetan estandarizatutako jarraipen-irizpideak aplikatuta, talde honetako habitaten eta taxonen egungo egoerarekiko gertatzen diren aldaketak ebaluatuko dira.

D.1.3.- Kontserbazio-egoera gerora ere aldian behin ebaluatu beharko da prozedura estandarizatu batzuen bidez, hartara emaitzak alderatu ahal izateko Natura 2000 sareko Euskal Herriko beste lekuetan izandako emaitzekin eta sare osoaren kontserbazio-egoera estimatu ahal izan dadin. Planaren jarraipen-programari gehituko zaizkio prozedura horiek, eta habitat nahiz espezie jakinetarako edo talde taxonomiko nahiz bestelako taxon-talde jakinetarako berariaz eginak izan litezke, betiere gero espezieak zein bere aldetik ebaluatzeko aukera ematen badute.

D.1.4.- Babes bereziko araubidepean dagoen habitat edo espezie bati dokumentu honetan zirriborratutako irizpideak aplikatuta kontserbazio-egoera kaskarrean txarrean dagoela irizten zaionean, kudeatu beharreko elementu gakotzat hartuko da. Horrek berekin ekarriko du berehala behar diren kontserbazio-neurriak hartzea, ez badaude lehendik planean beste elementu gako batentzat aurreikusita.

D.1.5.- Hildako nahiz zauritutako aleak jasotzea suspertze-zentroetara eramatea sustatuko da oneratzeko eta mehatxu-faktoreak analizatzeko. Fauna interesgarrienaren biologiarri eta jasaten dituen mehatxuei buruzko jakintza handitzeko azterlanak egitea sustatuko da, bereziki lurraldean kontserbazio-neurriak definitzeko eta aplikatzeko baliagarriak diren elementuen azterketak egitea.

**KONTSERBAZIOA ETA INGURUMEN-HOBEKUNTZA-ORO HAR****Gidalerroak**

D.2.1.- Tartean diren administrazioekin batera zeharkako irizpide moduan aplikatzea estuariaren berezko funtzionamendu hidraulikoa alda lezaketen ekintzak mugatzea, habitatari zuzenean eragiten diotela nahiz habitat erlazionatuei eragiten dietela (batez ere 1xxx eta 2xxx taldeetako guztiei), non eta ez diren flora aloktonoko espezieen inbasioak (Baccharis halimifolia Carolinako txilkarena, bereziki) kontrolatzeko ingurumen-hobekuntzako ekintzak.

D.2.2.- Arroko organismo eskudunaren aurrean sustatuko da Jabari Publiko Hidraulikoaren mugaketa egitea, organismo hark egindako edo balioetsitako azterketa teknikoetatik abiatuta eta ezaugarri morfologikoak eta eskura dauden azterketa hidrauliko eta hidrولوجikoak eta erreferentzia historikoak aintzat hartuta.

D.2.3.- JPHaren mugaketa esandako moduan egiteaz gain, Ibai-sarea KEBerako «ibai-lurraldea» ere mugatuko da, halakotzat hartuta ibai-ekosistemarekin estu lotutako lur-eremua, ibaiaren dinamika hidrogeomorfologikoa kontserbatzeko edo berreskuratzeko, dibertsitate ekologikoa bermatzeko moduko ibai-korridore bat izateko eta ibai-dinamikari lotutako eremuak berreskuratzeko ahalatasuna emateko bezain zabala eta jarraitua. Gutxienez hamar urteko errepi-katze-denborako uraldiak estalitako eremuak hartuko ditu, eraikinek estalitakoak izan ezik.

D.2.4.- Ingurumen-hobekuntzako zeharkako programak sustatzea itsasoaren eta lehorren arteko jabari publikoan eta jabari publiko hidraulikoarekin eskumena duten administrazioekin batera. Zehazki erreak hondakinez garbitzeko eta eraikuntza osagarriak eta utzitako landaketak kentzeko ekimenak sustatzea. Administrazioen arteko zeharkako irizpideak aplikatuko dira horretarako.

D.2.5.- Estuarioko eta ibai-sareko uraren kalitatea hobetzen duten ekintzak sustatuko dira.

D.2.6.- Ibai-sareko ibilguen ertzetan lurrari eusteko lanik egin behar izanez gero, bioingeniari-tzako teknikak edo atzekoak erabiltzea lehenetsiko da.

D.2.7.- KEBen barruan inguru erruderalizatuak leheneratzea bultzatuko da *Cortaderia* eta *Baccharis*en populazioak gerarazteko. Garai batean marearteko eremuari irabazitako sailtako munak irekitzearen helburua sailak berriz naturalizatzea eta interes komunitarioko habitatak nahiz interes komunitarioko espezieen habitata leheneratzea izango da. Habitategi buruzko direktibaren 6. artikuluan xedatutakoa bete beharko dute egiten diren ekimenek.

D.2.8.- Gaur egungo ereinozdiak osorik atxikiko dira, eta jarduerak, obrek eta planifikazioak egin liezaieketen kaltea saihestuko da. KEBaren barruko ale bakanak eta basorik sortzen ez duten multzo txikiak babestea sustatuko da. Artadiaren fazie lauroidea haren balio berezi esanguratsutzat hartuko da bertako baso-sistema autoktonoa globalki planifikatzeko unean. KEBaren barruan artadia zabaltzeko eremuetan berezko leheneratzea lehenetsiko da baldintza ekologikoek artadiaren fazie lauroidea etorriko dela iradokitzen duenean.

D.2.9.- Artadia kontserbatzea eta haren etapa heldu eta zaharretarantz eboluzionatzea bultzatuko da, horrek halaber fauna eta florako taxon garrantzitsuak kontserbatzea ekarriko baitu.

D.2.10.- Urkidien papera bultzatuko da, laboreen lagungarri moduan ez ezik -gereziondoarena, esaterako-, berezko baso nagusi moduan ere, horiekin batera haritz kanduduneko hariztiak leheneratzea planifikatzen den tokietan.

D.2.11.- Kultura-ondarea kudeatzen duen administrazioarekiko zeharkako lankidetzaren interes kulturala duten leizeetan egin beharreko jarduerak arautzeko.

D.2.12.- EAEko korridore ekologikoen sareari dagokionez, gidalerro hauek xedatzen dira Urdai-baiko eta Gaztelugatxeko Donieneko eremuan:

- Urdai-baiko Kantauriar Artadiak KEBean, saiatuko da haien osotasun ekologikoa eta EAEko Korridore Ekologikoen Sareko habitaten eta xede-espezieen biltegi moduko funtzioa atxikitzen eta areagotzen (ikus KEBean kontserbatu beharreko habitatetarako proposatu diren kontserbazio-neurriak).
- EAEko Korridore Ekologikoen Sareko zonakatzekak ukitzen dituen Urdai-baiko eta Gaztelugatxeko Donieneko eremuan, inpaktuei aurrea hartzen eta berezko landaretza naturaleko elementuak kontserbatzearen eta leheneratzearen alde egingo da, bai eta nekazaritza-, basogintza-, abeltzaintza- eta ehiza- ustiaketa jasangarria izan daitezen ere.

- Bai EAEko Korridore Ekologikoen Sareko korridoreetan bertan zein indargetze-eremuetan, bai KEBetan, lurra landatarra izaten jarrai dezala zainduko da, eta eraikuntza berriak egiteari eta lursailen inguruko porlanezko itxitura finkoen bidez lurraldearen barruko konektagarritasun ekologikoa eragozteari alternatibak bilatuko zaizkio, hura jaitziko ez dela bermatzeko.
- KESak xedatutako zonakatzearekin lotutako neurriak abiaraziko dira: konektatzeko interes berezia duten ibai-zatiak. Urdaibaiko Ibai Sarea KEBean ibilguak eta ertzak kontserbatzeko neurriak aplikatuko dira (ikus KEBean kontserbatu beharreko habitatetarako proposatu diren kontserbazio-neurriak).

D.2.13.- Lurjabeak eta lurraldearen erabiltzaileak kontserbazio-lanetan eta KEBetako balio eta baliabide naturalen erabilera egokian inplikatzeko dituzten kudeaketa-formulak sustatuko dituzte administrazioek eta erakundeek. Hala, sektore pribatuak eta udalek KEBen kontserbazio-ekintzak finantzatzen eta kudeatzen parte hartzea sustatzen duten formulak bultzatuko dira; halaber bultzatuko da herritarren laguntza, esaterako, ekintza haiek exekutatzeko orduan boluntario gisa jardun dezaten. Labur esanda, lurjabeen eta hainbat motatako eragile eta erakunde publiko zein pribatuen arteko lankidetzak bultzatzen duten mota guztietako borondatezko hitzarmenak sustatuko dira: ingurumen-kontratuak, alokairua, lurraren zaintza...

D.2.14.- Tresna honetan xedatutako kontserbazio eta leheneratze-ekintzak sustatzeko, gauzatzeko eta koordinatzeko, jarraipen-batzorde teknikoak eratu da Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren Patronatuaren baitan, urtean behin edo bitan bilduko dena, ohiz, eta behar den guztietan, bestela.

## **Arauketa**

N.2.1.- Debekatuta dago ibai-sareko ur-lasterren eraginpeko eremuetan hondakin solidoak botatzea.

N.2.2.- Estuarioaren hondotik sedimentua erauzteak eragin nabarmena egin diezaike kontserbazio-helburuei; hori dela eta, portu-eremutik kanpo egin nahi den dragatze-lan orori behar bezala aztertuko zaio ingurumen-eragina. Hori guztia, betiere Urdaibaiko Biosferaren Erreserbako Erabilera eta Kudeaketa Gidatzeko Planak xedatzen dituen betekizunak betekizun.

N.2.3.- Urdaibaiko Kantauriar Artadiak KEBaren eremuan, tresna honetan xedatutakoaz gain, Urdaibaiko Kantauriar Artadien Lurralde Ekintzako Planean (LEP) jasotako gobernatzeko planak eta programa integratuak ere aplikatuko dira.

N.2.4.- Aurreko arauak dioena gorabehera, kantauriar artadien LEPea xedatutakoaren eta KEBak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak onesteko tresnan aurreikusitakoaren artean kontraesanik egonez gero, azken dokumentuak xedatutakoak gailenduko dira.

## **KONTSERBAZIOA ETA INGURUMEN-HOBEKUNTZA - FLORA**

### **Gidalerroak**

D.3.1.- Inguruaren kalitatea hobetzeko ekimenak sustatzea, iratze paleotropikalen bizileku potentzialak pixkanaka berriz naturalizatzeko. Ibai-ertzen egitura eta iratzeen habitata hobetzeko programa bateratuei ekingo zaie, halako iratzeak gaur egun bizi diren tokietan.

D.3.2.- Itsas ertzeko, padurako eta artadiko florako elementu gako guztiak gehitzea Natura 2000 espazioen jarraipena egiteko lehenespenetara, eta haien populazioen eboluzioa eta zabaltzeko gaitasuna analizatzea. Espezieak bizi diren habitataren elementu erakusgarritzat erabiltzea espezieak berak.

D.3.3.- *Suaeda albescens*, *Herniaria ciliolata* eta *Honckenia peploides* espezieak gehitzea estuarioko padura-eta duna-habitatako gobernatzeko irizpideetara gehitzea. Duna-eremuei eta *Herniaria ciliolata* eta *Honckenia peploides* espezieei dagokienez, bai agur egun kudeaketapean dauden eremuetan (Laidan eta Lagan, alegia), bai estuarioaren erdialdean (Kanalari eta San Antonion, batez ere).

D.3.4.- *Armeria euscadiensis* gehitzea 4040 eta 1230 habitaten kudeaketa-estrategiara. Halaber gehitzea azken habitat horretara *Olea europaea*, Ogoño inguruko kareharrizko labarretan, hain zuzen.

D.3.5.- Espezie kalteberen eta galzorian eta galzori kritikoan dauden espezieen kasuan, bai eta *Zostera noltii*ren kasuan ere, estuarioaren barne-aldean dunaren eta paduraren arteko trantsizioan habitat potentzialeko eremuak eta ondo garatutako duna-sistemak izango direla bermatzea. Halaber habitataren baldintzak hobetzea, esate baterako hondartzetako zenbait toki ez garbituta, edota estuarioko uraren kalitatea hobetzea, isuriak araztuta eta murriztuta.

D.3.6.- Ibai-eremuak, iratze paleotropikalen populazioak gaur egun bizi diren mikroinguruak betetan babestea zainduko da.

## KONTSERBAZIOA ETA INGURUMEN-HOBEKUNTZA-FAUNA

### Gidalerroak

D.4.1.- *Lucanus cervus* arkanbelea bizi den baso helduak kontserbatuko dira, ez dira moztuko, ez zatituko eta haietan ez da pestizidarik ez intsektizidarik erabiliko. *Quercus sp.* eta beste espezieetako oin zaharrak babestea eta ez moztea, ez baso-lurretan, ez humanizatutako eremuetan; usteltzen ari diren enbor eroriak ez dira erretiratuko, espeziea ugaltzeko balio baitute.

D.4.2.- Ibai-ertzeko habitatako kontserbatzea sustatuko da, *Rana iberica*ren habitata direnez.

D.4.3.- Milabarrিকা txikiari dagokionez, EAEko populazioari gidalerro hauek zaizkio aplikagarriak:

- Lehorreko ugaztunak ugaltze-kolonietara sartzen ekiditea, aurrea hartuta; zehazki, ez da baimenik emango irlak eta lehorra lotzen dituen instalazio finkorik egiteko, ez fondealekuak egitekoak ere, ez eta pertsonak eta enbarkazioak erruz ibiltzeko ere.
- Irletako baldintza ekologikoak ez aldatzea, oro har debekatuta han egiteko berariaz baimendu gabeko jarduerak, betiere, baimen administratiboa ingurumen-eraginaren alde aurretiko ebaluazioaren emaitzaren baitan izanik.
- Populazioa monitorizatzea aldian behingo zentsuen bidez.
- Populazioaren ekologiari buruzko azterketak sustatzea, interes aplikatuko elementuei buruzkoak, batik bat, hala nola hauei: hilkortasun- eta depredazio-tasa, ugaltze-arrakasta, dieta, mugimenduak...

- Espeziea kontserbatzeko neurriak ugaltze-kolonien lurraldean eta haren inguruan eskumenak dituzten eragile administratibo guztien artean zabaltzea, ezagunak direla eta betetzen direla bermatzearen.

D.4.4.- Ubarroi mottodunari dagokionez, EAeko populazio osoari gidalerro hauek zaizkio aplikagarriak:

- Espezieari kalte eginez gero, ugaltze-kolonien inguruan murriztu ahal izango dira berez baimenduta dauden erabilerak, kolonien garrantziaren eta galkortasunaren arabera, ugaltzen ari diren hegaztiak ez dezaten hainbesteko arrisku eta kalte jasan.
- Ehizatze, harrapatze eta arrautzak biltzeko debekuek ahalik eta eraginkortasun handiena izan dezaten behar besteko baliabideak esleituko dira.
- Jardute-protokolo argi bat ezartzea isuri poluigarriek zuzenean kaltetutako itsas hegaztiak biltzeko, tratatzeko eta berreskuratzeko.
- Interes bereziko eremuetako eta haien inguruko ingurumen-baldintzak ez aldatzea lortzea, oro har debekatuta haietan berariaz baimendu gabeko jarduerak eta, betiere, baimen administratiboa ingurumen-eraginaren alde aurretiko ebaluazioaren emaitzaren baitan izanik. Ebaluazioak nahitaez aztertuko ditu, zehatz eta xehe, espeziearen beharrak eta hark jaso litzakeen eraginak.
- Populazioa aztertze eta monitorizatzeko programa bat garatzea, haren kontserbazio-egoerari eta denboraren arabera bilakaerari buruzko datu zehatzak emango dituen.
- Espeziearen hilkortasun-kausak ikertzeko programa bat garatzea, arreta bereziki ipinita arrantza-arteek eragiten duten nahigabeko harrapaketa eta poluzio kronikoa eragiten duten hidrokarburoen isurien eraginean.
- Espeziearen kontserbazio-arazoak eta kontserbazio- eta kudeaketa-neurriak ezagutaztea administrazioei eta lagungarri suerta litezkeen gizataldeei (arrantzaleei, urpekariei, kirolariei...).

D.4.5.- Europako Bisoiri dagokionez, Urdaibaiko Itsasertzeko Zonak eta Padurak KEBean eta Urdaibaiko Ibai Sarea KEBean gidalerro hauek dira aplikagarriak:

- Ibaien ibilguak kontserbatzea eta hobetzea.
- Amerikako bisoia kontrolatzea.
- Legez kanpoko jarduerak kontrolatzea.
- Eremu honetako ingeniari-lanak egokitzea.
- Jakintza gizarteratzeko prozesua indartzea.
- Espeziea kontserbatzeko neurriak eraginkorrak ote diren egiaztatzeko azterlanak egitea.

- Espeziearen biologiaren arlo ezezagunak eta behar bezala ezagutzen ez direnak iker-  
tzeko ikerketa puntualak egitea.

D.4.6.- Espezieak kudeatzeko EAE mailako lege-tresnak abiaraziko dira. Proposatu dira Belatz Handiarentzako eta Sai Zuriarentzako kudeaketa-planak, eta haietan oinarrituta egin dira lehena-  
goko gidalerro, neurri eta arauak. Egokia dirudi proposamen horiek berrikustea gaur egun espezie  
horiei buruz dakigunaren argitara, eta, behar izanez gero, Kudeaketa Planak onestea sustatzea.

D.4.7.- Belatz Handia lehen utzitako lurraldeak nahiz kolonizatzeko moduko besteak okupatzea  
bultzatuko da. Bereziki erreparatuko zaie bertan behera utzitako harrobiak (Busturiakoa eta Foru-  
koa) leheneratzeko lanei, umatzeko toki egokiak direnez.

D.4.8.- Haitzetako eta basoetako harrapariak aztertzeari buruzko gaur egungo kudeaketari ja-  
rraitu egingo zaio. Aleak markatzeko eta haiei segimendua egiteko teknikak (eraztunak, *radio-  
tracking*, satellite bidezko segimendua...) aplikatzearen egokitasuna ebaluatuko da.

D.4.9.- Segimenduaren ondorioz hautematen bada haitzetako nahiz basoko harrapari-bikote bat  
ezin umatu izana janari gutxi egotearen ondorioa dela, aztertu egingo da merezi ote duen haren  
lurraldean janari-eskuragarritasuna handitzeko neurriak aplikatzea edota janaria ekartzea.

D.4.10.- Lezkadiak, zingiretako hegaztien habitat nagusia, kontserbatzeari buruzko gaur egungo  
kudeaketari jarraitu egingo zaio.

D.4.11.- Saguzarrak EAE mailan kontserbatzeko eta kudeatzeko oinarritzko tresna gisa onartzea-  
ren, «EAEko saguzarrentzako ekintza-plan baten proposamena» eguneratzea sustatuko da.

D.4.12.- Kiropteroen babes- eta elikatze-eremu naturalak kontserbatzearen alde jokatu da,  
berziki leizeak eta atlantiar landa-paisaiari eta basoei lotutakoak.

D.4.13.- Kiropteroak eta Europako bisoia kontserbatzeko hartutako neurriak eraginkorrak ote di-  
ren egiaztatzeko azterlanak egitea sustatuko da. Europako zein Amerikako bisoien kasuan, espezie  
autoktonoaren Kudeaketa Planean aurreikusitako ekintzak aplikatu ahala, bi espezieen populazio-  
dinamika aztertzeke ikerketak egitea sustatuko da. Europako espeziearen bio-ekologiari buruzko  
azterketa puntualak egitea bultzatuko da.

D.4.14.- Kudeatzaileak Busturiako San Pedro kobaren inguruko hesia eta giza populazioa senti-  
kortzeko ipinitako hari lotutako seinaleak atxikitzen saiatuko dira.

D.4.15.- Gaztelugatxeko Donieneko KEBeko itsas fauna eta itsas flora aztertzea sustatuko da,  
kontserbazio-helburuak eta -neurriak definitzeko oinarritzko informazio gisa.



## Arauketa

N.4.1.- Milabarrika txikien eta ubarroi mottodunen kolonia guztietan eta haien inguruko 250 m zabaleko zerranda batean arauketa hauek aplikatuko dira:

- Milabarrika txikiaren ugaltze-habitataren nahiz populazioaren kontserbazioari zuzenean nahiz zeharka, bereziki espeziearen ugalketari dagokionez, eragin liezaioketen eskuhartze eta jarduera guztiak debekatzea, hala nola kolonietara sartzearrazten duten urbanizazioak eta bideak eginez kostako habitata betiko eraldatzea, eraikuntza- eta eraiste-hondakinak, zaborra eta poluigarri solido nahiz likidoak isurtzea, kanpatzea, ehiza, espeleologia eta eskalatzea.
- Halaber debekatzen da ugaltze-koloniak dauden irlak lehorrarekin konektatzen dituzten instalazio finkoak eraikitzea eta ugaltze-sasoian kolonien inguruan enbarkazioak lotzeko instalazioak egitea ere.
- Berez nahiz beste batzuekin konbinatuta kalte egin liezaieketen bestelako plan eta proiektu guztiek ezinbesteko txosten bat beharko dute, non egin beharrekoek espeziearen kontserbazio-helburuei nola eragiten dieten egoki ebaluatuko den, eta, behar izanez gero, baldintzak ipiniko zaizkien haiei edota plan edo proiektuei segimendua egitea xedatuko baita.

N.4.2.- Urdaibaiko Itsasertzeko Zonak eta Padurak KEBean eta Urdaibaiko Ibai Sarea KEBean Europako bisoiak ugaltzeko zein babesleku moduan erabiltzen duen habitataren ezaugarriak aldatzea dakarren jarduera orok Bizkaiko Foru Aldundiaren alde zuzeneko baimena beharko du.

## FLORAREN ETA FAUNAREN ERAUZTE-USTIAKETA (BEREIZ AZTERTU DIRA NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA BASOGINTZA)

### Arauketa

N.5.1.- Ibai-ertzetatiko, itsas ertzeko, padurako eta artadiko flora-elementu gakoak eta haietatik ateratako materiala biltzea debekatua da. Landare osoa zein haren zatiak ateratzea dago debekatuta, ez bada herborizatze, azterketa zientifikoak egiteko edo landareak ugaltzeko berriazko baimenarekin.

N.5.2.- KEBetatik ereinotz-egurra egitea eta egurra eta bestelako ereinotz-materiala ateratzea debekatua da.

N.5.3.- M.16-28.2.1 neurria aplikatzearen emaitzetatik abiatuta, behar izanez gero, *Salicornia ramosissima* eta *Zostera noltii* bizi diren eremuetan itsaski-bilketa debekatu liteke. Haatik, urriaren 1etik 15era bitartean itsaski biltzea debekatua da (estuazioaren erdiko tartean; alegia, errearen kanal zuzenaren muturretik Busturiako tren-geralekua eta Kanalako ostra-haztegiaren hormaren ipar-muturra lotzen dituen lerro zuzenera bitartean).

N.5.4.- *Lucanus cervus* arkanbeleak harrapatzea debekatuta dago, ez bada lan zientifikoetarako.

N.5.5.- Urdaibaiko ibai-sarean aingira (*Anguilla anguilla*) harrapatzea debekatuta dago.

N.5.6.- Belatz handiaren habietatik 500 metro baino gertuago ehiza xeheko postuak jartzea debekatuta dago. Gaur egun hor daudenak tokiz aldatu edo besterik gabe erretiratuko diren aztertuko da. Hori gorabehera, sektoreko arauak, bereziki 1999ko otsailaren 9ko 5/1999 Foru Dekretuak, Mundakako Itsasadarreko Ehiza Babeslekuaren azalera handitzen duenak, ezarritako gainerako murriztapenak hartuko dira aintzat.

## **NEKAZARITZA- ETA BASOGINTZA-ERABILERA**

### **Gidalerroak**

D.6.1.- Baso eta zuhaitzetan egin beharreko lanek basoak kontserbatzea eta babestea izango dute helburu (ez da surik egingo, ez sasi-garbitzerik, ez tratamendu fitosanitariorik, ez esandako helburuak lortzera berariaz bideratuta ez dauden nekazaritzako nahiz basogintzako gainerako zereginik).

D.6.2.- Zuhaitz-laboreek bertako basoari presioa egitea saihestuko da, halaber landaketen inguruko sarbideak baso autoktonoaren kontura nahiz hartan lagunduta egitea.

D.6.3.- Zuhaitz-landaketa berriak lehendik erabilera hori bera duten lurretan baino, edo kudea-keapean dauden habitatak hobetzeko beharrezkoa denean baino ez egitea saiatuko da.

D.6.4.- Zuhaitz-landaketetan lehentasuna emango zaie espezie autoktonoak erabiltzeari, eta horien atzetik aloktonoak izanagatik ere lurzoruari eta hidrobiologiari autoktonoek bezalako eragina egiten dietenak erabiltzeari.

D.6.5.- Espezie aloktonoen landaketa utziak (batez ere intsinis pinuak artadian eta beste zenbait hostozabal hariztian) kentzea sustatuko da, fauna-elementu gakoentzat atsedenleku nahiz habia-leku moduan interesgarria izan litezkeen oin bakanak edo multzo bakanak izan ezik. Nolanahi ere, zuhaitzak kentzeko lanek bertako landaretza autoktonoari kalterik ez egitea bilatuko da.

D.6.6.- Ereinozdia, haltzadia eta kuertzineo-masak motzondotik berriro etortzea edota ale berriak haztea galarazten duen ganadua (ardi-ahuntzak, batik bat) ahalik eta gutxiena bazkatzea bultzatuko da.

D.6.7.- Ibai-ertzei lotutako berezko landaretza haztea bultzatuko da. Zuhaitz-landaketa berriek eta nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera produktiboek ibai-ertzetako habitata ez presionatzea bilatuko da; hori gorabehera, zaindu egingo da horiek ez inbaditzea ez jabari publikoa, ez haren zortasun-zona.

D.6.8.- Hagina ageri den tokietara ganadurik ez sartzeko neurriak hartuko dira, motzondoko kimurik balego hark ez dezan galdu.

D.6.9.- Kontserbatu beharreko odonatuen habitata kontserbatzeko, ur-ibilgua bera ez ezik, haren ondoko ibarra ere hartu behar da aintzat; hala, saiatuko da Oka ibaiaren ibarraren erdia gutxienez (Ajangizen eta Gernikan) nekazaritzari eta abeltzaintzari lotutako larre-belardiek estalita egon dadin. Halaber, ibar-basoaren zabalera ibilgutik 5 metro baino zabalagoa ez dadin izan saiatuko da, gutxienez ibaiaren ibar horretako ibilguaren luzeraren erdian.

D.6.10.- *Oxygastra curtisii* babesteko, halaber bilatuko da bizi den ibai-zatien ondoko zabalgu-neak (Oka ibaiaren Ajangizko eta Gernikako ibarrak, alegia) aldi baterako babestea, landa-lurra nekazaritzarako edo abeltzaintzarekin zerikusirik ez duten helburuetarako kudeatzea saihestuz maiatzaren 31tik abuztuaren 31ra bitartean, eta epe horretatik kanpo baimenduz halakoak, betiere gero, maiatzaren 1a baino lehenago leheneratze-lanak eginez gero.

## Arauketa

N.6.1.- Habitategi buruzko Direktibaren 6.3 artikulua aplikatzean, indarrean dagoen nahiz KEBetan aplika litekeen basogintza-plan orok aintzat hartu beharko ditu ekosistema naturalak bultzatzen dituzten neurriak, nagusiki lehen esandako elementu gakoak, eta betiere espezie nagusien oinak botatzea galarazita.

N.6.2.- Ibilgukiko distantzia hauek xedatzen dira Urdaibaiko Ibai Sareak KEBari eragin handiena egiten dioten lehen sektoreko jardueretarako:

- Ibilgu publikoaren mugaketa-lerrotik neurtuta, eta halakorik ez badago ezpondaren goiertzetik, 5 metroko zerrendan, landaretzari berez garatzen utziko zaio, eta debekatuta daude, beraz, lurra edo landaretza aldatzea dakarten esku-hartze guztiak, ez bada ingurumen-hobekuntzako lana egiteko, ertzak leheneratzeko edo azpiegituren mantentze-lanak egiteko, Urdaibaiko Biosferaren Erreserbako Erabilera eta Kudeaketa Gidatzeko Planak xedatzen duenarekin bat.
- Ibai-sareko ibilgutik 5 eta 10 metro bitarteko zerrendan –edo KEBaren mugaraino, hura gertuago baldin badago–, ibarretako landaretzako espezie autoktonoekiko basogintza eta larre eta belazeen ustiakarekin lotutako erabilera baino ez dira baimenduko lehen sektorean, azken erabilerari lotutako instalazioak, hesiak barne, galarazita.
- KEBaren barruan uneko txandan zutik dauden zuhaitz-landaketak ustiatzea baimentzen da, baina ez da baimenik emango espezie aloktonoekiko birlandaketak eta landaketa berriak egiteko. Halaber aplikatuko zaio aurrekoa motzondotik nahiz sustraitik kimuak botatzeko gaitasuna duten espezie aloktonoei.


N.6.3.- Urdaibaiko eta Gaztelugatxeko Donieneko eremuan dauden haritz eta beste espezieetako zuhaixkak errespetatu egingo dira zuhaitz aloktonoen landaketetan egiten diren bitarteko eta azken mozketetan. Gainera, KEBen barruan, debekatuta dago baso-espezie autoktonoetako aleak moztea landaketa horiek bakantzean eta sasi-garbitzean.

N.6.4.- Dagoeneko existitzen diren zortasun-bideetatik sartuko da zuhaitz-landaketetara, eta haiek erabilia aterako da, halaber, botatuko zura eta materiala. Inola ere ez da enborrik arrastan eramango espezie autoktonoetako basoetan zehar (hariztian, sahasian, haltzadian, artadian...).

N.6.5.- KEBetako artadi, harizti eta sahasi-urkidietatik norik bere erabilerarako (ez saltzeko) edota kontserbazio-arrazoiengatik baino ez da baimenduko egurra/zura ateratzea.

N.6.6.- Urdaibaiko Kantauriar Artadiak KEBean, debekatuta dago intsektizida generikoak erabiltzea zuhaitz-masa eta landaketetan.

N.6.7.- *Oxygastra curtisi*ren habitata babesten da: bizi den ibai-zatiek (Oka ibaiaren Ajangizko eta Gernikako ibarrek, alegia) erabateko babesza izango dute, ezin izango delarik ez ibaian bertan, ez bi aldeetako 4 metroko zerrendan, inongo ekintzarik egin, ez bada ingurumeneko berreskuratze-lanak egiteko. Informazioa ematearren, hona hemen *Oxygastra curtisi*ren habitataren banaketa:



N.6.8.- Tresna honek estaltzen dituen Natura 2000 sareko espazioetan bermatu egingo da Dekretu hau aplikatzeak eragiten dituen errenta-galeren konpentsazioa.

## AZPIEGITURA ETA ERAIKUNTZA-ERABILERA

### Gidalerroak

D.7.1.- Ibai-lurraldea errespetatuko da, halakotzat hartuta ibaiaren dinamika hidrogeologikoari eusteko nahiz berreskuratzeko, egoera ekologiko egokiari eusteko, uhaldiak berez leuntzeko, urak hartzeko arriskua duten eremuen antolamendu-arazoak konpontzeko, ibai-paisaia hobetzeko eta sendotzeko eta ibai-korridore jarraitu bat izateko bezain zabala eta jarraitua den eremua.

D.7.2.- Konektagarritasuna murriztea lekarketen ekimenak saihestuko dira, zehazki, autoek Europako bisoia harrapatzeko arriskua duten puntu gehiago sortzea.

D.7.3.- Halaber saiatuko da Urdaibaiko eta Gaztelugatxeko Donieneko eremuko etxeetan, zurzko egitura duten teilatuak konpontzeko, berrantolatzeko nahiz teilaberritzeko lanak ez daitezen egin kiropteroen ugaltze-sasoien aldi kritikoan (ekaina-uztaila-abuztua).

D.7.4.- Udal-arauek aurreko betekizun horiek beren baitan hartzea sustatuko da.


D.7.5.- Urdaibaiko eta Gaztelugatxeko Donieneko eremuan, kiropteroak eta kontserbatzeko interesgarriak diren beste espezie antropofiloak bertan bizitzeko hobekuntza onuragarriak egitea sustatuko da eraikuntza publiko zein erlijiosoetan eta interes kulturalako ondasun izendatutakoetan.

D.7.6.- Urdaibaiko eta Gaztelugatxeko Donieneko eremuan, eraikuntzak birgaitzeko eta estalkiak konpontzeko udal-baimenek berariazko aipamen bat izango dute, zeinaren bidez xedatuko baitira kiropteroak babesteko aplikatu beharreko neurriak (egutegia, erabili beharreko materialak, proiektuaren hobekuntzak...); bestela, halako elementuen beharrik eza adieraziko dute.

### Arauketa

N.7.1.- Debekatuta dago Urdaibaiko Kantauriar Artadiak KEBean kable soilezko airetiko argindar-linea berriak ezartzea. Urdaibai eta Gaztelugatxeko Donieneko eremuaren gainerako lurretan, debekatuta egongo da halakoak ezartzea belatz handiaren habietatik 500 metro baino gertuago eta sai zuriaren habietatik 1.000 metro baino gertuago. Debeku horiek ez zaizkio aplikatuko dagoeneko existitzen diren lineak aldatzeari, hori Natura 2000 sarearen ohiko prebentzio-araubideari lotuta egongo baita.

Informazioa ematearren, hona hemen gutxi gorabehera zer eremutan aplikatzen den arau hori:



N.7.2.- Urdaibaiko eta Gaztelugatxeko Donieneko eremuan, berritu edo berrantolatu beharreko etxeetan kiropteroak hautematen badira, debekatu egingo da teilatuetako zurajea tratatzeko osagai organokloratuak nahiz organofosforatuak dituzten intsektizidak erabiltzea; aldiz, permetrinak edo eskura dauden beste tratamendu leunagoak erabil daitezke. Tratamendu horiek ez dira aplikatuko apirila eta iraila bitartean.

## ERABILERA PUBLIKOA ETA OLGETA-ERABILERA

### Gidalerroak

D.8.1.- Eremuan bizi diren EB nahiz eskualde mailako intereseko habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera atxikitzearekin bateragarria delarik, sustatu egingo da ingurumen-hezkuntzako erabilera didaktikoa.

D.8.2.- Erabilera publikoari buruzko gidalero eta arauketak ezarri ahal izango dituzte eskumena duten administrazioek, 42/2007 legearen 42. artikulua xedatutako prebentzio-araubideari jarraituko diotenak.


D.8.3.- Eskumena duen agintaritzari eskatuko zaio mokoabalak estuarioa atsedentleku eta elikatze-gune moduan gehiago erabiltzeko aukera emateko moduan arautu dezala Urdaibaiko aire-espazioaren erabilera.

## Arauketa


N.8.1.- Irailean eta urrian debekatuta egongo dira, Busturiako tren-geralekua eta Kanalako os-tra-haztegia lotzen dituen lerro zuzenetik gora eta errekaen kanal zuzena barne, olgeta-nabigazioa uretako kirolak (ur-eskia eta hori hegan egiteko teknikekin konbinatuta egiten duten kirolak barne) eta olgeta-hegaldiak (parapentea, hegazkin ultraarinak, helikopteroak eta turismo-hegazkin txikiak).

N.8.2.- Gainerako sasoietan (azarotik abuztura bitartean) baimenduta daude olgeta-nabigazioa eta uretako kirolak -Erabilera eta Kudeaketa Gidatzeko Planak xedatzen dituen baldintzetan- estuario osoan, Gautegiz Arteagako marea-errotatik gorako Oka ibaiaren ibilgu naturalean izan ezik. Sasoi horretan ez zaio mugarik ezarriko hegan egiteari.

Informazioa ematearren, hona hemen estuarioaren zatien mapa:



N.8.3.- Piroteknia-ikuskizun oro debekatua da irailean eta urrian HBBEaren barruan nahiz haren mugatik 500 m baino gertuago dauden Sukarrietako, Busturiako, Muruetako, Foruko, Kortezubiko eta Gautegiz-Arteagako udal-barrutien zatietan. Hurrengo irudian adierazi da zein den eremua:



N.8.4.- Milabarrika txikiaren ugaltze-sasoi kritikotik kanpo (azarotik apirilera bitartean, hain zuzen), N.4.1. arauketaren salbuespen moduan, baimendu ahal izango da kolonien inguruan enbarkazioak lotzea eta espeleologia eta eskalada egitea.



N.8.5.- Aurreko puntuan aurreikusitako salbuespena aplikagarria izan liteke, halaber, ubarro mottodunaren kolonien inguruan, espeziearen ugaltze-sasoi kritikotik kanpo betiere, abuztuaren 15etik abenduaren 31era bitartean, hain zuzen.

N.8.6.- Haitzetako harraparien ugaltze-sasoi kritikoan zehar debekatuta dago eskalada egitea, bide berriak zabaltzea, abenturako kirolak egitea eta delta-hego, parapente eta hegazkin ultraarinear kin hegan egitea, belatz handia umatzen den puntuetatik 200 m baino gertuago eta sai zuria umatzen den puntuetatik 500 m baino gertuago dauden horma eta hegietan. N.7.1. atalean espezie horien umatze-puntuak azaltzen dituen mapa informatiboa dator.

N.8.7.- Sai zuriaren kasuan, segimenduaren ondorioz jakiten denean umeak jaio direla eta habietan direla, neurri murriztaileenak aplikatuko dira aldi batez; beraz, maiatzetik uztaileara bitartean habiatik 1.000 metrora zabaldu egingo dira N.8.6. ataleko debekuak, espeziea behatze hutsa eta basogintza-lanak egitea barne.

## ZAINZA ETA SARTZEKO MUGAK

### Gidalerroak

D.9.1.- Zaintza eta informazioa areagotzea lezkadiaren eraginpeko eremura eta ibaiko, estuarioko eta estuario inguruko urek iragazten dituzten Jabari publour lasterretara hondakin solidorik ez botatzeko.

D.9.2.- Arauz kanpoko itsaski-bilketa areago zainduko da.

D.9.3.- Iratze paleotropikalak eta itsas ertzeko zein padurako flora-elementu gakoak bizi diren tokietara, bai eta etorkizunean horiek gara litezkeen zenbait tokitara, inor ez sartzeko sustatuko da.

D.9.4.- Kantauriar artadian pertsonak eta erabilera publikoa horretarako berariaz atondutako tokietara bideratuko dira, bereziki sasoi lehorrean, handiagoa baita orduan sua hedatzeko arriskua.

D.9.5.- «Kostaldeko duna finkoak, belarki-landarediarekin» eta «*Erica vagans* duten kostaldeko txilardi lehor atlantikoak» habitatetan, eta leheneratze-bidean dauden eremuetan, pertsonen sarrera eta erabilera publiko antolatu egingo dira, sartzeko eta ibiltzeko eremu bakarretara bideratuta.

D.9.6.- Leize-zuloen ahoek jasaten dituzten kalteak ezabatzea eta bertarako sarbideak bidezidor bakanetara murriztea, eta ebaluatzea, intereseko taxonak bertan bizitzeko eta horiek erabiltzeko baldintzak hobetzeko aukera moduan, bisitariak kontrolik gabe sartzen direla hautematen bada zidorrak hein batean ixteko aukera eta iturburuen inguruan babes-perimetro bat xedatzea.

### Arauketa

N.9.1.- KEBen barruko haitzuloetara sartzeko alde aurretiko baimena beharko da ezinbestean. Busturiako San Pedro kobara, otsailetik ekainera bitartean, ikerketa zientifikoa egiteko baino ezingo da sartu.

## TAXON ALOKTONOEN KONTROLA

### Gidalerroak

D.10.1.- Jabari publikoan eskumena duten administrazioekiko zeharkako koordinazio-mekanismoak antolatzea, protokoloak aplikatzeko eta espezie aloktonoak ezabatzeko ekimenak sustatzeko.

- *Oenothera glazioviana* eta *Oenothera* × *fallax*. Dunetan egiten den jarduera orok bere barne hartuko du taxona bertan agertzen edo ez begiratzea.
- *Stenotaphrum secundatum*. Hedadura-tokietarako sarbidea mugatzea, bereziki dunetara, malkarretara eta barneko goi-padurara.
- *Arctotheca calendula* Urdaibaiko Itsasertzeko Zonak eta Padurak KEBean. Hedadura-tokietarako sarbidea mugatzea, bereziki dunetara.
- *Arundo donax*.
- *Chamaesyce polygonifolia*.

D.10.2.- Taxona hedaraz lezaketan jarduerak egiten dituzten administrazioekiko zeharkako koordinazioa sortzea:

- *Robinia pseudoacaciaren*, ahal den neurrian, halako jarduerak mugatzea.
- *Cortaderia selloanaren* kasuan, bere hedadurari lotutako arazoak aintzat hartzen dituzten jardute-protokoloak sortzeko. Populazio berririk ez sortzeko. KEB eremuetan egiten den jarduera orok bermatu beharko du erasandako eremua leheneratu egingo dela.

D.10.3.- Landare aloktono inbaditzaileak ezabatzea bultzatuko da alubioi-haltzadi eta -lizardietan leheneratu beharreko zonaldeetan, fauna-elementu gakoentzat atsedeneku nahiz habia-leku moduan interesgarria izan litezkeen oin aloktono bakanak edo multzo bakanak izan ezik.

### Arauketa

N.10.1.- Debekatuta dago hezegunearen dinamika orokorretik bereizitako espazioak sortzea ekar lezakeen jarduera oro, baldin eta espazioa eraldatzen duten taxonak (*Baccharis halimifolia* eta abar) ugaritzea eragin badezake. Horretaz salbuetsita egongo dira flora aloktonoko espezieen inbasioaren aurka borrokatzeko ingurumen-hobekuntzako jarduerak.

N.10.2.- Oka ibaiaren unitate hidrológicoan debekatuta dago espezie hauek landatzea: *Baccharis halimifolia*, *Buddleja davidii*, *Cortaderia selloana*, *Robinia pseudoacacia* eta *Arundo donax*.

N.10.3.- Oka ibaiaren unitate hidrológicoan debekatuta egongo da karramarro, narrasti eta anfibio aloktonoak sartzea, birpopulaztea eta lekuz aldatzea. Beste hainbeste Amerikako bisoiari dagokionez. Halaber dago debekatuta Urdaibaiko ibai sarean amuarrair aruntak askatzea, ez bada garbitasun genetiko berreskuratzeko.